

ARRISKUAN DAUDEN EAE-KO ORNODUNAK

Antonio Bea



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

ARRISKUAN DAUDEN EAE-KO ORNODUNAK

EGILEA: Antonio Bea

Industria, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak 1996ko uztailaren 9an emandako Dekretuaren bidez eta, 1997ko uztailaren 8an emandoko Aginduaren bidez katalogatutako 146 espezie

MOLDAKETAK: José M.^a Fernández García (IKT, S.A.)

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuak 2003ko maiatzaren 20ko Aginduaren bidez katalogatutako 4 espezie berri

MARRAZKIAK: Ángel Domínguez

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2007

BEA, Antonio

Arriskuan dauden EAEko ornodunak / egilea, Antonio Bea ; moldaketak, José M^a Fernández García ; marrazkiak, Ángel Domínguez ; [itzulpena, Mirari García de Cortazar, Oihane Lakar] . – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2007

p. ; cm

ISBN 978-84-457-2581-8

1. Vertebrados-Euskadi. 2. Animales en vías de extinción-Protección-Euskadi. I. Fernández García, José María. II. Domínguez, Ángel. III. Euskadi. Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio. IV. Título.

596(460.15)

502.743(460.15)

Jatorrizko obra:	Vertebrados amenazados del País Vasco
Argitaraldia:	1.a, 2007ko uztaila
Ale kopurua:	1.000
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Koordinazioa:	Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza
Itzulpena:	Mirari García de Cortazar (Sara Pineda García) Oihane Lakar
Fotokonposaketa:	Ipar, S. Coop. - Bilbao Zurbaran, 2-4 bajo - 48007 Bilbao
Inprimaketa:	Grafo, S.A. Avda. Cervantes, 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)
ISBN:	978-84-457-2581-8
Lege Gordailua:	BI -2.420-07

AURKEZPENA

Arriskuan dauden espezieen euskal katalogoa funtsezkoa da legezko baliabideen artean, EAEko esparruan arrisku-faktoreen pean dauden fauna eta florako populazio eta espezieak babesteko. Funtsean, epe luzerako babesa bermatzeko neurri bereziak behar dituztenak zeintzuk diren zehazten duelako eta babes-araubide zorrotza eskaintzen dielako, animalien kasuan jazarri eta ehizatzea debekatuz, eta atseden hartzeko, elikatzeko, ugaltzeko eta negua igartzeko guneak deuseztatzea ere bai. *Katalogoa* Euskal Herriko Natura Babesteko 16/1994 Legean oinarritzen da, eta hasierako lanketarako, berrikusi egin zen espezie bakoitzaren gainean zegoen informazioa: banaketa, populazioaren neurria eta joera.

Zalantzarik gabe, babesteko estrategien funtsezko alderdi bat, arriskuan dagoen espezie bakoitzaren egoera eta beharren informazio zehatza zabaltzean oinarritu behar da, bai lana ingurumenaren alorrean egiten duten teknikarien artean eta bai natura-ingurunean esku hartzen duten beste sektore batzuetan ere. Beste alde batetik, espezieei eragiten dieten arazoen gaineko datuak oro har jendeari eskaintzeak lagundu egiten du sentsibilizazio soziala areagotzen, eta azken finean, administrazio publikoek abian jartzen dituzten jardueren eraginkortasuna hobetzen. Horrela, aurrera egin ahal izango dugu gure azken helburua lortzen, hots, biodibertsitatearen galera eratzen, planetari erasaten ari zaion gaitza baita.

Aurkezten ari garen liburua Eusko Jaurlaritzak 1999an argitaratutakoaren euskarazko bertsioa da, baina denboraldi honetan *Katalogoan* egin diren moldaketa eta kategoria-aldaketak sartzeko baliatu da argitalpen hau, eta aldaketa horiek aurrerapen batzuk islatu dituzte ezagutzan eta populazio eta espezieen inbentariazioan. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila jakitun da beharrezkoa dela espezieen babes-egoeraren gaineko zaintza-programak mantentzea: datuak etengabe emango dituztenak eta plangintza, zaintza eta kudeaketarako tresna eraginkor izango direnak. Liburu hau argitaratzea ahalegin horretan beste urrats bat izatea espero dugu.

Esther LARRAÑAGA GALDOS
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburua

AURKIBIDEA

SARRERA	9
ESPEZIEEN ZERRENTA	11
<i>GALTZEKO ARRISKUAN DAUDEN</i> ESPEZIEAK	17
ESPEZIE <i>KALTEBERAK</i>	45
ESPEZIE <i>BAKANAK</i>	105
<i>INTERES BEREZIA DUTEN</i> ESPEZIEAK	187

SARRERA

Euskadiko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legea onartzeak, Euskal Autonomia Erkidegoan Basoko eta Itsasoko Fauna eta Flora-espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoa sorrarazi zuen. Katalogo hori babesneurri espezifikoak behar dituzten espezie, subespezie eta populazioek osatzen dute. Honela, 4 kategoriatan bereizten dira: *Galtzeko Arriskuan* daudenak, *Kalteberak*, *Bakanak* eta *Interes Berezikoak* direnak.

Galtzeko Arriskuan: Espezie hauek bizirautea oso zaila izango da egun duten egoera eragiten duten faktoreek bere horretan jarraitzen baldin badute.

Kalteberak: Etorkizun hurbilean aurreko kategorian egoteko arriskua duten espezieak dira, espeziearengan edo bere habitatan eragin negatiboa duten faktoreak zuzentzen ez badira.

Bakanak: Populazio txikiak dituzten espezie eta subespezieak dira. Eremu geografiko txikian edo eremu zabalagoan barreiatuta ageri dira. Egun ez daude «galtzeko arriskuan», eta ez dira «kalteberak».

Interes Berezikoak: Aurreko kategorietako batean ere ez dauden espezieak dira, baina arreta berezia merezi dutenak, balio zientifikoa, kulturala dutelako edo bereziak direlako.

Katalogoa egiteko ornodun-faunaren balorazio-ikerketek, Autonomia Erkidegoan inbentariatutako 399 espezie izan zituzten kontuan. Espezie kontinentaltzat hartu ziren, gure lurraldean sedentarioak zein migratzaileak izan. Itsas espezieak ez dira, oraingoz, kontuan hartu.

Balorazio-ikerketa horren emaitza izan zen 1996. urtean dekretu bat argitaratzea. Dekretuan *Basoko eta Itsasoko Fauna- eta Flora-espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoa* arautu zen, eta 109 ornodun-espezie kontinental sartu ziren. Handik gutxira, 1997. urtean, 37 espezie berri gehitu zituen agindu bat argitaratu zen. Ondoren, 2003an, argitaratu zen beste agindu batean,

katalogoan zeuden espezie batzuen kategoria aldatu zen, 5 espezie katalogotik kendu eta 4 espezie berri gehitu ziren. Ondorioz, egungo katalogoan 145 espezie agertzen dira. Horietarik 12 «galtzeko arriskuan» kategorian daude, 30 «kalteberak» dira, 40 «bakanak» eta 63 «interes be-rezikoak».

Jarraian aurkezten diren portzentajeek, bere osotasunean mehatxu-maila handiena duten taldeak eta mehatxu-kategoria bakoitzean dauden espezieen proportzioa adierazten dituzte. Hortaz, ornodun mehatxatuen 145 espezieak Euskal Autonomia Erkidegoan inbentariatutako guztien %36 dira gutxi gorabehera. Arrainei dagokionez, espezien %21 dago katalogatuta, urlehortarretan %47, narrastietan %43, hegaztietan %35 eta ugaztunetan %42. Kategoriei dagokienez, «galtzeko arriskuan» dauden espezieak guttira katalogatuta dauden %8 dira, «kalteberak» %21, «bakanak» %28 eta «interes berezikoak» gainerako %43.

Liburuaren edukiak katalogoa hedatzea du xedetzat, eta bereziki, zerrrendatutako espezie bakoitzak dituen arazoak ezagutarazteko eta horien identifikazio zehatz eta egokia ahalbidetzeko. Horretarako, espezie bakoitzak kolorezko irudia dauka, animalia bere osotasunean behatzea, bere itxura, diseinua eta kolorazioa bereiztea posible egiten duena, eta espeziea identifikatzeko garrantzitsuak diren xehetasunak agerian dituen. Horrez gain, laminarekin batera espezie bakoitzaren ezaugarri morfologiko garrantzitsuenak zehazten dituen testua idatzi da. Testu horretan, espeziearen neurria eta kanpoko itxura deskribatzen dira; era berean, bere biologiaren, ohitura esanguratsuenen eta bizi den habitataren xehetasun batzuk azaltzen dira. Gainera, katalogoa egiteko erabili ziren fitxa teknikoetan dagoen informazioaren zati bat ere erabili da, batez ere populazioen tamaina eta joera, populazioek nozitzen dituzten mehatxuak, bai eta espeziearen egoera hobetzeko abian jarri beharko lirartekeen kontserbazio-neurrien zirriborroa ere.

Testuan argi eta garbi ikusi ahal izango da espezie mehatxatu gehienak direla ur-habitatei eta hezeguneei lotutakoak, zuhaitz zaharrak eta hauen zuloak behar dituzten basoko espezieak, gizakiaren suntsipen zuzena nozitzen dutenak, eta nekazaritza- eta abeltzaintza-guneetan bizi direnak, eta beraz, paisaiaren sinplifikazioa pairatzen dutenak.

ESPEZIEEN ZERRENDA

Abejaruco Común	242	Apo lasterkaria	50
Abejero Europeo	128	Apo pintatua	110
Abubilla	72	<i>Apus melba</i>	238
<i>Accipiter gentilis</i>	134	<i>Aquila chrysaetos</i>	66
<i>Accipiter nisus</i>	220	<i>Ardea purpurea</i>	122
Acentor Alpino	258	<i>Ardeola ralloides</i>	214
<i>Acrocephalus arundinaceus</i>	166	Argi oilarra	72
<i>Acrocephalus paludicola</i>	270	Armiño	308
<i>Acrocephalus scirpaceus</i>	164	Arrain hiruarantza	48
<i>Acrocephalus schoenobaenus</i>	32	Arrano arrantzalea	138
<i>Actitis hypoleucos</i>	150	Arrano beltza	66
Agateador norteño	172	Arrano sugezalea	130
Águila Pescadora	138	Arrano txikia	136
Águila Real	66	<i>Asio flammeus</i>	160
Águila-azor Perdicera	28	Atalarra	232
Aguililla Calzada	136	Avetorillo Común	118
Aguilucho Cenizo	64	Avetoro Común	212
Aguilucho Lagunero Occidental	132	Avión Zapador	76
Aguilucho Pálido	218	Azor Común	134
Alcaraván Común	232	Aztorea	134
Alcaudón Común	82	Baratz-saguzarra	298
Alcaudón Real	80	<i>Barbastella barbastellus</i>	84
<i>Alcedo atthis</i>	240	Barbo de cola roja	46
Alcotán Europeo	142	Barbo isatsgorria	46
Alimoche Común	62	<i>Barbus haasi</i>	46
<i>Alosa alosa</i>	106	Basakatua	312
Amiamoko beltza	124	Basoetako gerri-txoria	172
Amiamoko zuria	126	Baso-igel iberiarra	192
Amiltxori arrunta	120	Baso-igel jauzkaria	52
Amiltxori txikia	118	Basoilo txikia	68
Andarrios Chico	150	Baso-saguzarra	84
<i>Anthus campestris</i>	254	Bechstein saguzarra	36
Antzandobi handia	80	Belatxinga mokogorria	284
Antzandobi kaskagorria	82	Belatxinga mokohoria	282
Apo ezpoiduna	190	Belatz handia	144

Belatz txikia	140	Curruca Tomillera	272
Benarriz arrunta	32	<i>Charadrius alexandrinus</i>	148
Benarriz gorrizta	30	<i>Charadrius dubius</i>	70
Bisbita Campestre	254	<i>Chionomys nivalis</i>	184
Bisoi europarra	40	<i>Chlidonias niger</i>	156
Bonelli arranoa	28	Chorlitejo Chico	70
<i>Botaurus stellaris</i>	212	Chorlitejo Patinegro	148
<i>Bubo bubo</i>	158	Chotacabras Gris	236
<i>Bufo calamita</i>	50	Chova Piquigualda	282
Búho Campestre	160	Chova Piquirroja	284
Búho Real	158	Daubeton saguzarra	304
Buitre Leonado	216	<i>Dendrocopos medius</i>	74
<i>Burhinus oedecnemus</i>	232	<i>Dendrocopos minor</i>	246
Buscarla Unicolor	30	Desmán del Pirineo	34
Buztangorri argia	78	Dilindaria	280
<i>Calandrella brachydactyla</i>	250	<i>Discoglossus galganoi</i>	110
Calandria	248	Dortoka istilzalea	56
<i>Calidris alpina</i>	152	Dortoka korrontezalea	54
<i>Caprimulgus europaeus</i>	236	<i>Dryocopus martius</i>	162
<i>Carduelis spinus</i>	288	Ekaitz-txori txikia	114
Carricerín Cejudo	270	<i>Elaphe longissima</i>	202
Carricerín Común	32	<i>Elaphe scalaris</i>	204
Carricero Común	164	Elur-lursagua	184
Carricero Tordal	166	<i>Emberiza hortulana</i>	292
<i>Certhia familiaris</i>	172	<i>Emberiza schoeniclus</i>	174
<i>Ciconia ciconia</i>	126	<i>Emys orbicularis</i>	56
<i>Ciconia nigra</i>	124	<i>Eptesicus serotinus</i>	298
Cigüeña Blanca	126	Erbinude zuria	308
Cigüeña Negra	124	Erlatxoria	242
Cigüeñuela Común	230	Erroia	286
<i>Cinclus cinclus</i>	256	Escribano Hortelano	292
<i>Circaetus gallicus</i>	130	Escribano Palustre	174
<i>Circus aeruginosus</i>	132	Eskailera-sugea	204
<i>Circus cyaneus</i>	218	Eskulapioren sugea	202
<i>Circus pygargus</i>	64	Esmerejón	140
<i>Cobitis calderoni</i>	22	Espátula Común	58
<i>Coccothraustes coccothraustes</i>	290	Espinoso	48
Cogujada Montesina	252	Euli-txori beltza	170
Colirrojo Real	78	<i>Euproctus asper</i>	188
<i>Coluber viridiflavus</i>	200	Ezkal-txinboa	272
Collalba Rubia	262	<i>Falco columbarius</i>	140
Cormorán Moñudo	116	<i>Falco peregrinus</i>	144
Correlimos Común	152	<i>Falco subbuteo</i>	142
<i>Corvus corax</i>	286	<i>Felis silvestris</i>	312
<i>Crex crex</i>	226	Ferra-saguzar handia	90
Cuervo	286	Ferra-saguzar mediterraniarra	38
Culebra bastarda	206	Ferra-saguzar txikia	92
Culebra de escalera	204	<i>Ficedula hypoleuca</i>	170
Culebra de esclapio	202	Fraile	20
Culebra verdiamarilla	200	Fumarel Común	156
Culebrera Europea	130	Gabiraia	220
Curruca Carrasqueña	274	Galápago europeo	56
Curruca Mirlona	276	Galápago leproso	54

<i>Galemys pyrenaicus</i>	34	<i>Lanius meridionalis</i>	80
<i>Galerida theklae</i>	252	<i>Lanius senator</i>	82
Garcilla Cangrejera	214	<i>Larus fuscus</i>	234
Gardatxoa	194	Lepahoria	182
Garza Imperial	122	Lepitzulia	244
<i>Gasterosteus aculeatus</i>	48	Lertxun gorria	122
Gato Montés	312	Lertxuntxo karramarrozalea	214
Gau-saguzar handia	176	Lezkari arrunta	164
Gau-saguzar txikia	294	Lezkari karratxina	166
Gau-saguzarra	300	Lirón gris	102
Gavilán Común	220	<i>Locustella luscinioides</i>	30
Gaviota Sombria	234	Lúgano	288
<i>Gelochelidon nilotica</i>	154	<i>Lutra lutra</i>	42
Geoffroy saguzarra	94	Markal-sorbeltza	238
Giloia	226	<i>Malpolon monspessulanus</i>	206
<i>Glis glis</i>	102	Marta	182
Grulla Común	228	<i>Martes martes</i>	182
<i>Grus grus</i>	228	Martin arrantzalea	240
Guión de Codornices	226	Martín Pescador	240
<i>Gypaetus barbatus</i>	26	Martinete Común	120
<i>Gyps fulvus</i>	216	<i>Mauremys leprosa</i>	54
Halcón Peregrino	144	Mazkar arantzaduna	22
Harkaitz-zozo gorria	264	<i>Melanocorypha calandra</i>	248
Harkatiz-zozo urdina	266	Mendi-erregetxoa	278
Hegoaldeko zuhaitz-igela	24	Mendi-tuntuna	258
<i>Hieraaetus fasciatus</i>	28	<i>Merops apiaster</i>	242
<i>Hieraaetus pennatus</i>	136	Miarritza	292
<i>Himantopus himantopus</i>	230	Milano Real	60
Hontza handia	158	<i>Milvus milvus</i>	60
<i>Hydrobates pelagicus</i>	114	<i>Miniopterus schreibersii</i>	100
<i>Hyla meridionalis</i>	24	Mirlo Acuático	256
<i>Hypsugo savii</i>	306	Mirlo Capiblanco	268
Ibai-kabuxa	20	Mirotz urdina	64
Igaraba arrunta	42	Mirotz zuria	218
Iparraldeko katxoa	18	Miru gorria	60
Ipurtatsa	310	Mokolodia	290
Ipurzuri horia	262	Mokozabal zuria	58
Itsas enara beltza	156	<i>Monticola saxatilis</i>	264
<i>Ixobrychus minutus</i>	118	<i>Monticola solitarius</i>	266
<i>Jynx torquilla</i>	244	Montpelierko sugea	206
Kaio iluna	234	Mosquitero Musical	168
Kalandria	248	Murciélago de Bechstein	36
Kolaka	106	Murciélago bigotudo	180
Kuliska txikia	150	Murciélago de bosque	84
Kurrilo arrunta	228	Murciélago de cueva	100
Kutturlio mokolaburra	252	Murciélago de Herradura mediterráneo	38
<i>Lacerta lepida</i>	194	Murciélago de Huerta	298
<i>Lacerta schreiberi</i>	196	Murciélago de montaña	306
Lagartija colilarga	198	Murciélago de oreja partida	94
Lagarto ocelado	194	Murciélago de patagio aserrado	178
Lagarto verdinegro	196	Murciélago enano de bosque	296
Lamprehuela	22	Murciélago grande de herradura	90
Landa-txirta	254	Murciélago orejudo dorado	98

Murciélago orejudo meridional	86	<i>Podiceps cristatus</i>	208
Murciélago pequeño de herradura	92	<i>Podiceps nigricollis</i>	210
Murciélago rabudo	302	Polluela Chica	224
Murciélago ratonero grande	88	Polluela Pintoja	222
Murciélago ratonero mediano	96	<i>Porzana porzana</i>	222
Murciélago ribereño	308	<i>Porzana pusilla</i>	224
Murgil handia	208	<i>Prunella collaris</i>	258
<i>Mustela erminea</i>	308	<i>Psammodromus algirus</i>	198
<i>Mustela lutreola</i>	40	<i>Pyrrhocorax graculus</i>	282
<i>Mustela putorius</i>	310	<i>Pyrrhocorax pyrrhocorax</i>	284
Muturluze piriniarra	34	Quebrantahuesos	26
Muxar grisa	102	<i>Rallus aquaticus</i>	146
<i>Myotis bechsteinii</i>	36	Rana ágil	52
<i>Myotis blythii</i>	96	<i>Rana dalmatina</i>	52
<i>Myotis daubentonii</i>	304	<i>Rana iberica</i>	192
<i>Myotis emarginata</i>	94	Rana patilarga	192
<i>Myotis myotis</i>	88	Ranita Meridional	24
<i>Myotis mystacinus</i>	180	Rascón Europeo	146
<i>Myotis nattereri</i>	178	Ratilla nival	184
Nathusius pipistrela	296	<i>Regulus regulus</i>	278
Natterer saguzarra	178	<i>Remiz pendulinus</i>	280
<i>Neophron percnopterus</i>	62	Reyezuelo Sencillo	278
Nóctulo mayor	176	<i>Rhinolophus euryale</i>	38
Nóctulo mediano	300	<i>Rhinolophus ferrumequinum</i>	90
Nóctulo menor	294	<i>Rhinolophus hipposideros</i>	92
Nutria paleártica	42	<i>Riparia riparia</i>	76
<i>Nyctalus lasiopterus</i>	176	Roquero Rojo	264
<i>Nyctalus leisleri</i>	294	Roquero Solitario	266
<i>Nyctalus noctula</i>	300	Sábalo	106
<i>Nycticorax nycticorax</i>	120	Saguzar arratoi-belarrihandia	88
<i>Oenanthe hispanica</i>	262	Saguzar arratoi-belarritxikia	96
Okil beltza	162	Saguzar biboteduna	180
Okil ertaina	74	Saguzar buztanluzea	302
Okil txikia	246	Saguzar hego-belarrihandia	86
Pagaza Piconegra	154	Saguzar ipar-belarrihandia	98
Paíño Europeo	114	Sai arrea	216
Pájaro Moscón	280	Sai zuria	62
<i>Pandion haliaetus</i>	138	<i>Salaria fluviatilis</i>	20
Papamoscas Cerrojillo	170	Sapillo pintojo ibérico	110
<i>Pelobates cultripes</i>	190	Sapo corredor	50
<i>Pernis apivorus</i>	128	Sapo de espuelas	190
<i>Phalacrocorax aristotelis</i>	116	Savi saguzarra	306
<i>Phoenicurus phoenicurus</i>	78	<i>Saxicola rubetra</i>	260
<i>Phylloscopus trochilus</i>	168	Schreiber muskerra	196
Pico Mediano	74	Schreibers saguzarra	100
Pico Menor	246	Sisón Común	68
Picogordo	290	Somormujo Lavanco	208
<i>Pipistrellus nathusii</i>	296	<i>Squalius pyrenaicus</i>	18
Pito Negro	162	Suge berde-horia	200
Pitxartxar nabarra	260	<i>Sylvia cantillans</i>	274
<i>Platalea leucorodia</i>	58	<i>Sylvia conspicillata</i>	272
<i>Plecotus auritus</i>	98	<i>Sylvia hortensis</i>	276
<i>Plecotus austriacus</i>	86	<i>Tachybaptus ruficollis</i>	112

<i>Tadarida teniotis</i>	302	Uhalde-enara	76
Tarabilla Norteña	260	Uhandre alpetarra	108
Tarina	288	Uhandre piriniarra	188
Terrera Común	250	<i>Upupa epops</i>	72
<i>Tetrax tetrax</i>	68	Ur-benarriza	270
Torcecuello	244	Ur-zozoa	256
Tritón alpino	108	Uroilanda handia	146
Tritón pirenaico	188	Uroilanda pikarta	222
<i>Triturus alpestris</i>	108	Uroilanda txikia	224
<i>Turdus torquatus</i>	268	Vencejo Real	238
Turón	310	Visón europeo	40
Txaradi-sugandila	198	Zampullín Común	112
Txenada mokobeltza	154	Zampullín Cuellinegro	210
Txilinporta lepabeltza	210	Zankaluzea	230
Txilinporta txikia	112	Zaparda	18
Txinbo papargorritzta	274	Zapelaitz liztorjalea	128
Txio horia	168	Zata arrunta	236
Txirri arrunta	152	Zingira-berdantza	174
Txirritxo hankabeltza	148	Zingira-mirotza	132
Txirritxo txikia	70	Zingira-hontza	160
Txori zezen arrunta	212	Zozo paparzuria	268
Txoriandre arrunta	250	Zozo-txinboa	276
Ubarroi mottoduna	116	Zuhaitz-belatza	142
Ugatza	26		



*Galtzeko
arriskuan
dauden
espezieak*



Iparraldeko katxoa

Zaparda

Squalius pyrenaicus

Nahiz eta lehendik Euskal Autonomia Erkidegoko zapardak *Squalius cephalus* espeziekoak zirela uste izan, egin berri diren analisi genetikoek zehaztu dute *Squalius pyrenaicus* espeziekoa dela, oso espezie antzekoa, gaztelaniaz «cacho» izenez ezagutzen dena.

Itxura fusiformea duen arraina, gehienez 30 cm-koa. Bizkarra grisa edo arrexka du, eta espezie honen bereizgarriak dira zilar-koloreko ezkata handiak. Ezkaten ertzean dituen orban beltz txikiak gorputzari itxura erretikulatua ematen diote. Albo-lerroa nabarmena da, eta uzki-hegatsa gorputzerantz kurbatua duenez, arrainak forma biribila hartzen du.

Iberiar Penintsulan endemikoa, ekialdeko eta hegoalde erdialdeko arroetan aurki daiteke. Gure lurraldean Mediterraneoko isurialdeko ibaie-tan bakarrik behatu da, Ebro ibaian eta Baia ibaiadarrean, hain zuzen ere.

Batez ere ibaien beheko eta erdiko ibilguetan bizi da iparraldeko katxoa, korronte txikia daukaten gune sakonetan. Sardetan edo indibiduotalde txikietan bilduta bizi dira; zahartzen direnean, berriz, bakartiagoak izaten dira. Udaberriaren amaieran ugaltzen dira. Errunaldia korronte txikiko guneetan izaten da, harri eta landareen artean. Motel hazten dira eta laugarren urtera arte ez dute sexu-heldutasuna lortzen. Elikadurari dago-kionez, denetik jaten dute, besteak beste, lehorreko nahiz uretako harrapakinak. Landareak ere jaten dituzte, batez ere gazteenek, eta helduek beste arrainak eta anfibioen larbak ere bai.

Ez dakigu zehazki zenbatekoa den espezie honen populazioa, baina dirudienetz gutxi daude, oso gutxitan ikusten baitira. Azken ikerlanen arabera, gainera, kopuruak behera egin du, eta bere banaketa-area ere gero eta txikiagoa da. Bitxikeria bezala, esan beharra dago orain 40 urte Gasteizko azoketan saltzen zela.

Ur-poluzioa da espezie honentzako arrisku-faktorerik larriena. Horrez gain, eta hain larria ez bada ere, aipagarria da ibaien ibilguak eraldatzeak duen eragina, bai eta espezie exotiko harrapariak sartzea ere, lutxoa esaterako.

Beharrezko kontserbazio-neurriak hartu ahal izango dira populazioen egoera zein den eta banakoak etengabe desagertzea zerk eragiten duen jakitean.



Ibai-kabuxa

Fraile

Salaria fluviatilis

Arrain txikia da, 10 cm-tik beherakoa. Gorputza luzanga du, alde bietatik pittin bat zanpatua. Buruaren aurrealdea bat-batean amaitzen da. Begi bakoitzaren gainean tentakulu-itxurako apendizetxikia du. Ahoan hortz ugari ditu, eta horietako lau nahiko handiak dira. Uzki-hegatsa eta bizkar-hegatsa luzeak dira, eta bizkarrekoak zenbait erradio arantzatsu ditu. Ez dauka ezkatarik, eta gorputza muki nabarmen batez babesturik dauka. Arrexka da, eta orban ilun asko ditu.


Herrialde zirkunmediterraneoetan baino ageri ez den espeziea da. Gure lurraldean, Ebro ibaiaren arroko ibai arabarretan bizi da: Baia eta Omecillo ibaien beheko ibilguan, Ebro ibaian eta Zadorra ibaiaren azken tartean.

Betebehar ekologikoetarako zein ugaltzeko harriak dituzten ibai-hondoak behar ditu. Izan ere, harrien gainean bizi den arrain bakartia da eta harrien artean nekez bereiz daiteke. Udaberri amaieran erruten du harrien azpian egiten dituen habi txikietan. Arrak errunaldia zaintzen du, harraparietarrautzak jan ez ditzaten. Espezie honek ornogabeak jaten ditu: krustazeoak, intsektuak eta hauen larbak, etab. Beste espezieetako arrainkumeak ere jaten ditu: gertu izan arte zain egoten da, eta orduan, mugimendu azkar bat eginez harrapatzen ditu.

Arrain hau gutxitan ikusi da, eta dirudienez populazio-dentsitatea txikia da. Dena den, populazio batzuek indibiduo asko dituzte. Arrain honen banaketa-area ez da aldatu, eta azken laginketen arabera, badirudi onera egiten ari direla populazioak.

Iberiar Penintsulako beste populazioek behera egin dutela antzeman da. Atzerakada hori hainbat faktorek eragin dute: errunaldirako guneak eraldatzeak, agregakinak ateratzeak, eta karramarro gorri amerikarra sartzeak, karramarroak ibai-kabuxa helduak eta hauen arrautzak harrapatzen baititu.

Espezie hau kontserbatzeko neurriak arraina bizi den ingurunean hartu behar dira. Ebro ibaiaren ur-kalitatea hobetu, eta Arabako hego-erdialdeko ibaietatik agregakinak ateratzea erregulatu beharko litzateke. Halaber, ibilguak eraldatzeak arrain honen populazioen gainean duen eragina aztertu behar da.



Mazkar arantzaduna

Lamprehuela

Cobitis calderoni

Arrain luzanga eta meharra da; ia zirkulu-formako ebakidura du, eta orotara, 8 cm-koa da. Burua alboetan zanpatua da, eta ahoa behealdeko ertzean dago. Sei ukipen-bixar ditu, lau goiko ezpainean eta bi beheko ezpainean, ezpain-ertzetan, hain zuzen. Begi bakoitzaren aurrean, ezten ñimiño higikorra gordetzen duen hobi bat du. Gorputza krema argia edo zuri lohia da, eta sabelaldea argiagoa da. Bizkarraldean luzetara, albo-lerroaren gainean, orban ilun erregularrak ditu, banda-itxura hartzen dutenak.

Iberiar Penintsulan Ebro eta Duero ibaien arroetan bizi da, bai eta Tajo ibaiaren arroko Jarama, Lozoya eta Manzanares ibaien goiko aldeetan ere. Gure lurraldean, berezkoa da Mediterraneoko isurialdeko ibaietan, eta Ebro, Omecillo eta Baia ibaietan topatu izan da.

Aipatu ibaietako sakonera gutxiko guneeetan bizi da, erdiko eta beheko ibilguetan; korrante gehiegi ez eta hondoan uharri ugari duten inguruneetan. Oro har, animalia bakartia da, eta hondoan erdi lurperatuta egon ohi da; ia gauzez baino ez da ibiltzen. Udaberriaren amaiera aldera erruten du, eta ezaugarri bereziak ditu: emeak, buztankada handiak emanez, habia txikia industen du ibai-hondoko uharrien artean, arrautzak jartzen ditu, eta ondoren arrak ernaldutako ohi ditu. Prozesu honetan buztanaren higadura hain da handia, non, desagertzera hel daitekeen. Ornogabe txikiak jaten ditu, hala nola, krustazeo, errotifero edo kopepodoak. Harrapakinak, batez ere egunsentian harrapatzen ditu.

Arrain hau aurkitu den herri eta ibaietan erregularoki ageri da, nahiz eta beti dentsitate txikietan egon. Beraz, esan daiteke ohiko espeziea dela, baina ez oparoa. Dena den, berri ona da jakitea ibaietako goiko ibilguetara pittin bat hedatu dela.

Espeziearen beherakadaren eragile nagusia da honen habitata suntsitzea, batez ere agregakinak erauztean, baina baita ibai-ibilguak aldatzea eta espezie aloktono harrapariak barneratzea ere.

Egokia litzateke kontserbatzeko neurriak espezieak behar duen ingurura bideratzea. Arabako ipar-erdialdeko ibaietan agregakinen erauzketa kontrolatu eta ibai-ibilguneen aldaketen eraginak aztertu behar dira.



Hegoaldeko zuhaitz-igela

Ranita meridional

Hyla meridionalis

Anuru txiki liraina da, 6 cm-tik beherakoa. Gorputzadarrak luzeak eta finak dira, hatzak oinean palmatuak dira eta hatzen muturrean disko itsas-korrek ditu. Disko horien jariakinari esker igela gainazal leunetatik igo, edo jauzi egiterakoan edozein gainazalera itsats daiteke. Azala leuna eta distiratsua da. Bizkarra berdea du eta sabela zurixka, eta alboan, sudurzu-loa eta aurreko hanka batzen dituen marra iluna dauka.

Europako hegoaldean bizi da, eskualde zirkunmediterraneoan, bai eta Afrikako iparraldean ere. Gure lurraldean, Gipuzkoako Mendizorrotz mendian baino ez da behatu, 250 metro inguruko altueran.

Landare asko (sasitzak, esaterako) duten hezeguneetan bizi da, urmael, putzu iraunkor eta erreka txikietan. Oso lehortarra eta igokaria da, eta egunez jarduten du. Landareetara igo eta bertan geratzen da, gehienetan uraren inguruan. Oso trebea da, eta jauzi luze eta zehatzak egiten ditu. Izan ere, jauzi bat eginez harrapatzen ditu harrapakinak, batez ere intsektu eta araknidoak. Udaberrian, uretan sartzen da, eta han erruten du. Globo-antzeko masak dira, mila bat arrautzetakoak, eta urmael-hondoan jartzen ditu. Hiru hilabeteko larba-fasea pasa ondoren, igel txikiak, 2 cm-koak, ateratzen dira uretatik. Arren kantua dela eta, igel helduak erraz antzematen dira uretan.

Gutxitan ikusi denez, badirudi populazioa egoera kritikoan dagoela. Populazioaren eboluzioari buruz egindako azken txostenek agerian utzi dute populazioak eta banaketa-areak behera egin dutela. Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak Mendizorrotzen urmael berriak sortu eta espeziea berriz sartzeko programa abiarazi du, igela iraunarazteko asmoz.

Habitat egokiak desagertzen ari dira, eta basoetako suteek ur-masak eta ibaiei lotutako landaredia suntsitzen dute. Horiek dira, beraz, espezie honen arrisku larrienak.

Espezie hau kontserbatzeko komenigarria izango litzateke habitat egokiak babestea. Gainerako neurriak espezie honen arazo zehatzak aztertu ostean hartu beharko dira.



Ugatza

Quebrantahuesos

Gypaetus barbatus

Harrapari sarraskijale handia da, 120 cm-rainokoa. Burua arre argia da, ia laranja, eta orban beltza dauka begiaren eta mokoaren artean. Buztana luzanga da, erronbo-formakoa. Lepoa ilunagoa da, marraduna. Gorputzaren goialdea eta hegoak beltzak dira, eta ia antzematen ez diren marra argiak dituzte. Behealdea okrea da; eta mokia eta hankak grisak dira.

Mundu osoan hedatzen da, baina Europan oso arraroa da, eta Iberiar Penintsulan Pirinioetan bakarrik bizi da. Gure lurraldean batzuetan zenbait mendilerrotan ikus daiteke, eta Aralar mendizerran normalean ageri da.

Animalia hau bizi da urrun dauden mendialdeetako harkaitzetan, eta ungulatu-taldeak, basatiak nahiz etxeokak, bizi diren larreetan. Hegazti planeatzailea da, oso modu ikusgarrian egiten du hegan, eta bere lurraldean ibilbide luzeak egiten ditu. Erliebe handiko guneeetan egiten ditu habiak, erlaitz eta pitzaduretan, hain zuzen. Ileak eta artilea erabiliz estaltzen du habia barrutik. Urtean behin arrautza bat edo bi errun ohi ditu. Sarraskia edota etxeko animalien zein orkatza, oreina eta sarrioa bezalako animalia basatien hezur luzeen muina jaten du. Batzuetan, beste ornodun batzuk ere jaten ditu. Hezurak hausteko, atzaparrez eutsi eta erortzen uzten ditu «kraskalekuak» esaten zaien leku jakinetan.

Ez da harritzekoa ugatzen bat edo beste gure lurraldeko mendilerrotan agertzea, eta Aralar mendizerran hiru ale bizi dira. Dena den, XIX. mendetik aurrera erregresioan dago, herrialde batzuetan guztiz desagertu da eta beste batzuetan desagertzearen dago. Egun, populazio txiki eta bakartuak baino ez dira bizi. Azken urteetan gora egin du Pirinioetan bizi den bikote-kopuruak, baina hala ere, bere banaketa-areak ez da handitu.

Garai batean, ehizak eta pozoiek eragin zuten Europan espezie hau desagertzea. Egun, berriz, Pirinioetako populazioaren arrisku-faktore larrienak dira habitata eraldatzea (mendietako pista eta errepide berriak egitea), eta ugalketa-garaian gizakiak sortzen dituen eragozpenak. Pirinioetako populazioaren filopatria nabarmenak eremu berriak kolonizatzea zailtzen du.

Espezie hau kontserbatzeko, animaliak atsedean hartzeko eta habiak egiteko lekuak gizakiaren jardueretatik babestu behar dira, batez ere, mendi-pistak egitea, baso-lanak eta eskalada eragotzi beharko lirateke. Sare elektrikoak seinaleztatzea edo aldatzea ere komenigarria izango litzateke. Halaber, elikadura-gune osagarriak jartzea lagungarria litzateke, espeziea finkatzea bultzatzeko.



Bonelli arranoa

Águila-azor *Perdicera*

Hieraaetus fasciatus

Tamaina handiko harraparia da, 70 cm-tik gorakoa, krudel-itxura daukana. Bizkarra arre iluna da, eta orban zuri bereizgarria dauka. Buztana luzea, grisa eta marraduna du. Hegoen gainaldea iluna eta behealdea argia da eta marra beltz zabala dauka. Azpiko aldeak zurixkak eta ildaskatuak dira, eta orbanak ere baditu. Mokoia grisa da, zeromaduna. Hankak horiak dira.

Hegazti honen banaketa-area Europako hegoaldea, Afrikako iparraldea eta Asia dira. Gure lurraldean, Arabako hegoaldean bakarrik dago.

Mediterraneoko mendilerroetan bizi da, haitzetan eta zuhaitzik gabeko mendi-hegaletan, bertan nahiko untxi bizi delako, untxia baita bere harrapakin nagusia. Arrano honek bizkorki egiten du hegan. Azkar amiltzen da, eta altuera handietan planeatzen du, normalean binaka. Haitzetako erlaitzetan egiten ditu habiak, eta batzuetan, zuhaitzetan ere bai. Habia adarrez egin, eta barrualdea estaltzen du. Urtean behin bi arrautza erruten ditu. Askotan, zelatan egoten da, eta lurrean harrapatzen ditu harrapakinak. Ugaztunak jaten ditu, besteak beste, untxiak eta erbiak, eta hegazti ertainak (usoak, korbidoak, eperrak...).

Euskal Autonomia Erkidegoan, egun bikote bakarra bizi da. Bikote horrek Araban, eta batez ere inguruko lurraldeetan, dauden hainbat habia erabiltzen ditu. Urteak dira espezie hau erregresioan dagoela. Ez da sekulan ugaria izan gure lurraldean, Iberiar Penintsulan duen banaketaren iparraldeko muga baita, baina garai batean ugariagoa zen. Zoritxarrez, banaketa-area osoan gertatzen ari da aipatutako erregresioa.

Populazioa mugatzen duten faktoreen artean garrantzitsuena biogeografikoa da. Izan ere, ingurunearen ezaugarriak ez dira espeziearentzat egokienak. Halaber, ehizak eta elektrokuzioek ere populazioak behera egittea eragiten dute, gazte asko hiltzen baitira linea elektrikoetan. Bestalde, aipatzekoa da penintsulan, ugalketa-tasa baxuena duten hegaztien artean dagoela. Horren eragileak dira, gizakiak habien inguruan eragiten dituen eragozpenak, eta batez ere, arranoen harrapakin-eskasia. Izan ere, bere harrapakin nagusiak, untxiak, atzeraka egin du azkenaldian, hainbat faktorek eraginda: mixomatosiak, pneumonia hemorragiko birikoak, presio zinegetikoak eta lurraren erabilera aldatzeak.

Espezie hau kontserbatzeko, ezinbestekoa da hemen bizi den bikotea lasai uztea, alegia, inguruan mendiko pistarik ez egitea eta bertako jarduerak arautzea. Linea elektrikoei dagokienez, beharrezko konponketak eta seinaleak egin behar dira.



Benarriz gorritzta **Buscarla Unicolor** ***Locustella luscinioides***

Txori txikia da, 14 cm-rainokoa. Bizkarra eta goialdea arre-gorrixka du, eta burua ilunagoa. Lerro supertziliarra motza eta kokotsa zuria ditu. Hegoak arreak, goiko estal-lumak gorrixkagoak eta kanpoko luma primarioen ertzak zurixkak dira. Buztana zabala, arrea eta marraduna da. Behealdea argia da, eta alboak eta bularra pittin bat ilunagoak dira. Mokoa arrea da, eta hankak oliba arreak dira.


Europan zehar hedatzen da. Gure lurraldean, kostaldeko bi tokitan bakarrik behatu da. Udan migratzen duen hegaztia da.

Oso habitat berezian bizi da normalean: hezeguneetako lezkadietan, batez ere gizakiarengandik urrun daudenetan. Migrazioan zehar zuhaixkaguneetan ere ageri ohi da, uretatik urrun daudenetan ere. Etengabe mugitzen da zingiretako landareen artean. Beste benarrizek bezala, kantua luzea eta monotonoa dauka. Lezka artean egiten du habia, zurtoinen artean eutsita, uretik hurbil. Habiak kopa-itxura dauka, landareez egina da eta barrutik estalita dago. Urtean behin lauzpabost arrautza erruten ditu. Batez ere intsektuak jaten ditu.

Dirudienez, egun ez du habiarik egiten. Horrek agerian uzten du garai batetik gaur arte populazio honek atzera egin duela, garai batean behatu zen lekuetan egun desagertu baita. Europan, herrialdetik herrialdera espezie honen egoera desberdina da.

Populazio hauentzako arrisku larriena da oso sentikorrak direla gizakiak bere habitata eraldatzen duenean. Gainera, habitat horiek betidanik pairatu dituzte kalteak eta eraldaketak.

Espezie hau babesteko, itsasertzeko hezeguneak babestu eta hobetu egin behar dira, bai urriak direlako, bai berezitasun ekologiko eta zientifiko handiak dituztelako.



Benarriz arrunta **Carricerín Común** *Acrocephalus schoenobaenus*

Benarriz txikia da, 13 cm-rainokoa. Bizkarraldean oliba arrea da, eta il-daska ilunak ditu. Ipurtxuntxurra argiagoa da. Buztana eta hegoak arre ilunak dira. Buruan, pileoak marra ilunak ditu eta lerro superziliarra krema kolorekoa da. Behealdean zurixka da, eta bularra gorrixkagoa. Mokoan beltza eta hankak gris argiak dira.

Hegazti hau Europan bizi da, batez ere iparraldean. Gure lurraldean udakoa eta migratzailea da, eta umatze-garaian kostaldeko bi tokitan bakarrik behatu da.

Oso habitat berezian bizi da, hezeguneak inguratzen dituzten lezketan, hain zuzen ere. Migrazio-aldian zingiretako bestelako landareetan ere ikusi da, zuhaitz edo zuhaixkak dauden tokietan, uretatik urrun bada ere. Landare artean zein lurrian mugitzen da. Dena den, normalean ez da leku zabaletan ageri. Altuera gutxi hartzen du hegazterakoan, eta hegaldi motzak egiten ditu. Sasi eta belar altu eta zuhaixken artean egiten du habia, uretatik hurbil edo urrunxeago. Lurrian egiten du kopa-formako habia; landareez egin eta barrutik estaltzen du. Urtean behin bospasei arrautza erruten ditu. Batez ere intsektuak jaten ditu, bai eta beste artropodo txiki batzuk ere.

Hamabi bat bikotetik beherako populazioa dagoela uste da, eta kopurua jaisten ari da, lehen ikusi zen herrietan dagoeneko ez baitago. Hala ere, hegaztiaren egoera, oro har, egonkorra da Europan.

Zingiretako habitatetan gizakiak egindako eraldaketa eta kalteak eragin dute hegazti honen populazioak atzera egitea. Kalteak, batez ere umatze-garaian pairatzen ditu.

Espezia hau kontserbatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertze-ko hezeguneak babestu, mantendu eta hobetu egin behar dira.



Muturluze piriniarra

Desmán del Pirineo

Galemys pyrenaicus

Itxura mozkotea duen ugaztun primitiboa da. Nabarmena da buruan duen tronpa, bi bat zentimetroko luzera duena. Horren puntan hasten dira sudur-hobiak. Begi oso txikiak ditu, eta erdi ezkutatuta daude. Ez du belarrik eta entzumen-aparatua ileen artean gordeta dago. Hankak motzak dira eta hatzek azkazal gogorrak dituzte; atzeko hankek behatzen arteko mintza dute. Buztana luzea da, eta pittin bat zanpatua da erdialdetik puntaraino. Ilaje dentso, luze eta distiratsua dauka, bizkarraldean eta alboetan arre gorrixka dena. Sabelaldea zuria edo pixka bat horixka da. Irisazioak tintaroi-kolorekoak dira gorputz osoan. 35-80 gramoko pisua du.

Espezie hau Europan Penintsula Iberikoko ipar-erdialdean baino ez da ageri. Gure lurraldean Gipuzkoako ekialdeko mugan, Nafarroatik gertu, dauden bi ibaitan ikusi da soilik. Leku hauek segur aski animaliairen Pirinioetako banaketa-arearen ekialdeko muga izango dira. Arabako ibaietan ere ageri da.

Ibai laster eta oxigenatueta bizi da, putzu eta diametro ezberdineko harriak dituzten hondoetan. Kutsadura organiko arina duten ibaien goi-erdiko ibilguetan bizi daiteke ere. Urtarra eta aktibitate handiko espeziea da. Egunean bere pisuaren %30-50 besteko harrapakin-masa jan behar du. Atzeko hanken eta buztanaren laguntzaz egiten du igeri. Neguan ugalketa hasten da; emeak kumaldiko 2-5 kume izaten ditu. Normalean behin baka-riki erditu ohi da. Harriak eta legarrak mugitzen ditu elikagai bila. Elikadura oso espezializatua dauka, ur azkarreko hondoetan harrapatzen baititu ornogabe txikiak, batez ere triopteroak, efemeropteroak eta dipteroen larbak. Tronpak paper garrantzitsua dauka harrapakinak antzemateko, harrapakinaren edozein bibrazio nabaritzen duten sentsoreak baititu.

Dentsitate oso txikia dauka agertzen den ibaietan, ibai-kilometroko ale bat eta hiruren artean, populazio benetan urria. Ez dakigu populazioaren joera zein den, baina badirudi banaketa-area naturalari eutsi diola.

Populazio hauek kontserbatzeko arazo handienak daude ibaien ibilgu baxuenetan, han baitaude giza jarduera gehienak, eta hauek habitata alda dezakete.

Kontserbatzeko neurriak bizi den ingurura bideratu behar dira. Ageri den ibaietan habitata mantendu behar da eta isuri kutsatzaileak eta ibilguan egiten diren giza ekintzak saihestu behar dira, hala nola, minizentral hidroelektrikoak, eragin negatibo handia izan baitezakete.



Bechstein saguzarra

Murciélago de Bechstein

Myotis bechsteinii

Ugatzun txikia da, 8 eta 13 gramo bitartekoa. Besaurrea 39 eta 44 milimetro bitartekoa da. Bizkarraldea arre gorrixka da, eta sabelaldea zurixka. Belarriak nabarmenak dira: oso luzeak eta elkarrengandik bereizita daude.

Banaketa eurasiarra duen espeziea da, eta Iberiar Penintsulatik Kaukasoraino ageri da. Gure lurraldean, ipar-mendebaldeko muturreko —Bizkaiko— herri batean bakarrik aurkitu da. Inguruko herrietako populazioen jokaera ikusita, badirudi populazioak egoiliarrak direla.

Ondo kontserbatuta dauden baso hezeetan bizi da, batez ere haritz, erkametz eta arte zaharrak dauden tokietan. Babesleku bezala erabiltzen ditu leize, meazulo eta zuhaitzak, eta bertan osatzen ditu umatze- eta hibernazio-koloniak. Gauez aritzen da, eta izuti eta iheskorra da. Motel egiten du hegan zuhaitzen artean. Udazkenean ernaldutako kumeak udaberrian jaiotzen dira. Eme bakoitzak urtean kume bakarra izan ohi du. Gazteak bigarren urtean hasten dira ugaltzen. Espezie sedentarioa izan arren, 35 kilometrorainoko lekualdaketak ezagutzen dira. Landareen artean atzematen ditu harrapakinak; batez ere lepidopteroak, dipteroak eta koleopteroak jaten ditu.

Egun, populazioa oso urria da, eta litekeena da honezkero iraungita egotea.

Ez dira zehazki ezagutzen gure lurraldean populazioak desagerrarazi dituzten faktoreak, baina badirudi eragile nagusia dela zuhaitz zaharrak dituzten basorik ez egotea.

Espezie hau kontserbatzeko neurriak espezieak behar duen ingurunean hartu behar dira: batetik, egun erabiltzen dituen basoak zaindu —batez ere zuhaitz zaharrak—, eta bestetik, errutegi artifizialak jarri behar dira, animalia hau agertzea bultzatzeko. Horrez gain, ezinbestekoa da ekologia aztertutako espeziearen arazo zehatzak ezagutzea, horrela beharrezko neurriak hartu ahal izateko.



Ferra-saguzar mediterraniarra **Murciélago de herradura mediterráneo** *Rhinolophus euryale*

Ugatzun txikia da, 11 eta 17 gramo artekoa. Besaurrea 44-49 milimetrokoa da. Mintz-tolestura handia dauka sudurzuloaren gainean. Bizkarralde marroi gorrixka, eta sabela gorrixka argia dira.


Espezie honek banaketa zirkunmediterranea dauka, eta mugak Afrikako iparraldea eta Iran dira. Gure lurraldean, zona karstikoetan bizi da, itsasertzean zein barnealdean. Populazioak egoiliarak dira.

Barrunbe handiak dituzten altuera baxuetako gune karstikoetan bizi da, berozalea denez, altuera handiak eta hotza ez baititu gogoko. Gaueko animalia da. Udazkenean ugaltzen da, eta udaberrian jaiotzen dira kumeak; eme bakoitzak kume bakarra izan ohi du. Gazteak bigarren urtean hasten dira ugaltzen. Taldekoia eta haitzulozalea da saguzar hau, eta udan gizakiari lotuago dauden babeslekuak ere erabiltzen ditu. Badakigu 10-40 kilometroko lekualdatzeak egin dituela, inoiz 134 Km-rainokoak ere bai. Batez ere lepidopteroak eta koleopteroak jaten ditu.

Gutxi ikusi ohi dira, eta horrek adierazten du populazioa txikia dela. Populazioa erregresioan dago, kolonia asko desagertu omen dira eta.

Erregresio horren eragileak dira, batetik, babeslekuetan izaten dituzten eragozpenak; eta bestetik, zaharberritzen ari diren eraikinetan egurrari ematen zaizkion tratamenduek eragiten dizkieten kalteak.

Populazio hauek kontserbatzeko, umatze-koloniak eratzeko erabiltzen dituzten babesguneak babestu behar dira, eta giza jarduerak ekidin behar dira. Halaber, umatze-garaian berritze-lanak ekiditea komenigarria izango litzateke. Egurraren tratamenduak egiteko, koloniak kontuan hartu behar dira, eta ez lirateke erabili behar espezie hauentzako toxikoak diren kontserbatzaileak.



Bisoi europarra

Visión europeo

Mustela lutreola

Tamaina ertaina duen ugaztun honen gorputza 40 cm-koa izatera irits daiteke, eta isatsa 14 cm-koa. Gorpuzkera liraina dauka, eta hankak txikiak dira. Oinak erdi-palmatuak dira, igeri egiteko aproposak. Gaztaina-kolorekoa da, distiratsua, eta ukitu zuria du kokotsean eta goiko ezpainean.

Garai batean banaketa zabala zuen European, baina egun, populazio bananduak bakarrik geratzen dira European, Errusiatik Iberiar Penintsulara bere banaketa-arearen muga-bitartean. Erdialdeko European desagertu da jada. Gure lurraldean, berriz, ondo banatuta dago, arro gehiengotan ager baitaiteke.

Ur-inguruneari lotuta bizi da: ibaietan —gizakiaren eragina nabaria denetan ere bai—, errekaeto, urtegi eta paduretan. 5-30 metroko zabalera eta 25 cm-ko sakonera duten ibai-tarteak nahiago ditu, korronte txikia edo ertaina dutenak, eta urertzean landare asko dituztenak, lezkadia nahiz ibar-baso garatua izan. Hori dela eta, ibaien beheko eta erdiko tarteetan egoten da, poluzio organikoa eta kimikoa handia duten tokietan, hain zuzen. Ilunabarrez eta gauez aritzen da, eta igerilari eta murgilari ona da. Kumaldiak 4 eta 5 kume bitartekoak izan ohi dira, eta familia-taldean bizi dira elkarrekin uda igaro arte, orduan sakabanatu egiten baitira. Haragijale oportunistak honek marraskariak, hegaztiak, arrautzak eta arrainak jaten ditu, baita oilaskoak eta oilo eta ahateen arrautzak ere.

Populazioen tamaina zein den ez badakigu ere, argi dago Araban ugazitzen ari dela. Gipuzkoa eta Bizkaiko populazioen joera, ordea, ez dago batere argi.

Espezieak European duen erregresioaren eragileak dira habitata hondatzea, harrapakin kopurua urritzea, ehiza ez-selektiboa eta Bisoi Amerikarraren lehiakortasuna —larrugintzarako erabiltzen da, eta abeltegietatik ihes egiten dutenek bertako espezieari lekua kentzen diote—. Gizakiak eragindako heriotza ere, oraindik oso handia da.

Bisoiak kontserbatzeko espezieak erabiltzen dituen ibaiak babestu, ibaiertzak eta ertzetako landaredia zaindu, ur-kalitatea hobetu, eta Bisoi amerikarrak hazten dituzten granjak zorrozki kontrolatu beharko lirateke. Bestelako neurriak hartu beharko dira espeziearen egoera eta arazo zehatzak aztertu ondoren.



Igaraba arrunta

Nutria paleártica

Lutra lutra

Ugaztun nahiko handia da: arrak metro batetik gorakoak izan daitezke, eta buztana 45 cm-rainokoa da. Gorputz liraina dute. Nabarmena da buztana, luzea, lodia eta haragitsua, muturrerantz joan ahala estutzen dena, eta muturra puntaduna daukana. Hankak motzak eta sendoak dira, eta oinak palmatuak direnez, igerian oso trebea da. Bizkarraldeko ilajea marroi-gorrixka distiratsua da, eta sabelaldekoa zuria.

Palearktikokoan banaketa zabala duen espeziea da. Garai batean, Europa osoan zehar zabaltzen bazen ere, egun, leku askotan falta da, eta populazioa nukleotan barreiatuta dago. Gure lurraldean oso datu gutxi daude, eta adierazten dutenez, espezie hau oso urria da, eta Mediterraneoko isurialdeko ibai batzuetan bakarrik bizi da.

Ur biziak dituzten ibaietan bizi da, abeltzaintza eta basogintzarako erabiltzen diren guneeetan, betiere inguruan landare ugari dituzten lur-sailetan. Gauetan aritzen da, eta animalia bakartia da. Ibaian gora eta behera ibiltzen da janari bila, eta ibaiz ibai ere mugitzen da. Ez du gordelekurik egiten, beste ugaztunen gordelekuak, barrunbeak eta haitzetako hutsuneak erabiltzen baititu. Oso igerilari eta murgilari trebea da. Ez da garai zehatzean ugaltzen, baina urtean behin egiten du, eta bizpahiru kume izan ohi ditu. Arrainak jaten ditu, batez ere ziprinidoak.

Populazioa txikia da, eta populazioak oso egoera larrian daude. 70eko hamarkadan hasi zen ugaztun honen erregresioa. Izan ere, 1963an asko zeuden, baina 1976rako ia lurralde osoan desagertu zen. Iberiar Penintsula osoan gertatu zaio gauza bera. Hain zuzen ere, populazioaren %60 desagertu zen 1966 eta 1984 urteen artean. Ia Europa osoan erregresioa antzekoa izan da: herrialde batzuetan guztiz desagertu dira populazioak.

Egun, bi dira espezieak dituen arrisku nagusiak: batetik, populazioak elkarrengandik oso urrun daude, eta ale gutxiko populazioak dira; eta bestetik, habitatak hondatuta daude. Horrez gain, leku batzuetan giza presioa ere jasan behar izan dute, bai eta nekazaritzaren eragina ere. Izan ere, espezie hau oso sentikorra da habitataren eraldaketen aurrean. Ondoko faktoreek populazioak behera egitea eragiten dute: ibai nagusiak hondatzeak, ibai-tarte zabaletan habitata hondatzeak, ibai-ertzak okupatzeak eta kanalizazioak egiteak.

Espezie hau kontserbatzeko beharrezkoa da animaliak erabiltzen dituen ibaiak behar bezala babestea, ibaiertzak eta ibaiertzeko landaredia zainduz eta ur-kalitatea hobetuz, besteak beste. Gainerako neurriak, espeziearen egoera eta arazo zehatzak aztertu ostean hartu beharko dira.





Espezie
kalteberak



Barbo isatsgorria

Barbo de cola roja

Barbus haasi

Itxura fusiformea duen arraina da, 60cm-rainokoa. Ahoaren goiko ez-painea lau sentimen- edo ukipen- bixar ditu, bi ezpainaren gaineko aldean, eta ia ezpain-ertzetan beste bi. Bizkar-hegatsaren lehen erradioa hezur-tuta dauka, erabat gogortuta. Bizkarraldea oliba-kolorekoa da, alboetarantz joan ahala argiagoa, eta sabelaldea hori-zurixka da. Arrain honen bereizgarria da hegatsen oin gorrixka, muturrerantz joan ahala gero eta argiagoa dena. Isats-hegatsa, ordea, ez da gorria, nahiz eta arrain honen izen arruntak hori esan.

Iberiar Penintsulan bizi da, Ebro, Llobregat, Francolí, Mijares, Palancia eta Turia ibaietan, esaterako. Gure lurraldean, Arabako Ebro eta Puron ibaietan bakarrik behatu da.

Ibaietako erdiko eta goiko tarteetan bizi da, ur hotzak eta hondo harri-tsua dituzten indar handiko uretan. Ur bizietan batez ere ale gazteak bizi dira, eta ur sakonetan helduak, talde txikietan. Udaberri amaieran eta uda hasieran hasten dira ugaltzen. Helduak ur handietatik atera eta sakonera txikiko ur bizietara eta legarretara abiatzen dira errutera. Laugarren urtean hasten dira ugaltzen arrain hauek. Denetik jaten dute, bai eta landareak ere. Bere elikagai ohikoenak dira harrak, moluskuak eta intsektu-larbak; helduek beste arrainak ere jaten dituzte.

Espezie honetako ale gutxi ikusi dira, eta horrek adierazten du populazioa oso urria dela, batez ere Puron ibaian.

Gure lurraldean, datu zehatzen zain bagaude ere, esan daiteke arrain honen arazo larrienak industriako eta hiriko poluzioa direla, ibaietan presak eraikitzea eta ibaiak lehortzea.

Espezie hau kontserbatzeko neurriak espeziearen arazo zehatzak aztertu ostean hartu beharko dira.



Arrain hiruarantza

Espinoso

Gasterosteus aculeatus

Arrain fusiforme txikia da, 85 mm-tik beherakoa. Gorputza alboetan pittin bat zanpatuta dauka. Bizkar-hegatsaren aurrean hiru arantza nabarmen ditu. Ez du ezkatarik, hezur-plakak baizik. Isats-pedunkulua oso estua da. Kolorazio aldakorra dauka: aralditik kanpo, arre eta oliba koloreak dira nagusi; araldian, berriz, arraren sabela gorri bizia da, eta emearena arre-zurixka.


Europar banaketa zabala duen espeziea da, Norvegia eta Islandiatik Iberiar Penintsularaino, bai eta Mediterraneoko eta Itsaso Beltzeko herrialdeetaraino ere. Gure lurraldean, Bizkaia eta Gipuzkoako kostaldeko zenbait tokitan bakarrik behatu da: Bizkaian, Leioako urtegian, Gobelas, Galindo eta Udondo ibaietako arroan, eta Gipuzkoan, Jaizubiako errekaetan.

Animalia hau bizi da urtegietako ur bareetan eta uretako landareetan aberatsak diren ibaietako beheko ibilgu geldoetan. Animalia bakartia da, eta neguan bakarrik biltzen da taldetan, gazteak eta helduak ur sakonagoetara joaten direnean. Erdi ezkutatuta bizi da ibai-hondoan edo landareen artean, eta erasotzeko joera dauka normalean. Bizkarraldeko arantzak beste arrainak uxatu, nahiz harrapatu eta jateko erabiltzen ditu. Arrain jatuna da, denetik jaten du, batez ere ornogabeak. Ugaltzeko modu berezia du: udaberri amaieran arrek habia egiten dute, landareak erabiliz, sakonera txikia duten uretan, hondar-lurrean, hain zuzen ere. Bertaraino eramaten du emea, eta errutera behartzen du. Normalean, 100 arrautza inguru jartzen ditu emeak, eta arrak gero ernaldu egiten ditu. Hau hainbat emerekin egiten du, ehunka arrautza bildu arte. Arrautz hauek zaintzen ditu garapen osoan zehar, bai eta arrainkumeak ere lehenengo astean.

Datuek adierazten dute populazio batetik bestera dentsitatea oso desberdina dela. Izan ere, zenbait populazio nahiko ugariak dira, eta besteak, berriz, oso urriak. Areago, azken urteetan populazio batzuk desagertu dira; horrek agerian uzten du espezie hau, oro har, atzera egiten ari dela.

Atzerakadaren eragileak honako faktoreak direla aipatzen da: ur-poluzioa; urtegiak, padurak eta itsasertza lehortzea, eta populazioak egun duen mosaiko-erako banaketa, zatitua, eta populazioen arteko kontakturik ez duena.

Espeziea ez galtzeko, beharrezkoa da paduretako, itsasertzeko eta ibaietako beheko ibilguetako poluzioari aurre egitea, batez ere espeziea bizi den zatietan.



Apo lasterkaria Sapo corredor *Bufo calamita*

Tamaina ertaineko anurua da, 10 cm-tik beherakoa. Gorputz sendoa eta hanka motzak ditu, batez ere atzekoak. Hatzen arteko mintz mehe batek elkartzen ditu hatzak. Buruan, nabarmenak dira parotida-guruinak, begi-nini horizontalak dituzten begi irtenak, eta mutur biribila. Azala zimurtsua da, gorputz osoan guruinak baititu. Sabela ere pikortsua da. Bizkarraldea oliba grisa edo berde horikara da, pittin bat orbanduna, eta orno-marra hori edo gorrixka mehe batek zeharkatzen du. Sabelaldea horia edo zurixka da, eta erretikulatuta dago.

Espezie honek banaketa zirkunmediterranea du. Gure lurraldean Mediterraneoko isurialdean bizi da, eta itsasertzeko herri batzuetan gutxi batzuk ageri dira, hareatzetan, klima goxo eta ingurune oso faboragarrietan, hain zuzen ere. Batez ere altuera baxuetan eta muinoetan bizi da, baina Arabako barnealdeko mendilerroetako tontorretan ere ageri da.

Mediterraneoko hainbat habitatetan bizi da, bai eta eskualde subkantauriarreko mendizerretako larre menditarretan ere; ingurune lehor eta gazietan ongi moldatzen da. Soro-ertzetan eta ezpondetan ezkutatzen da, enbor eta harrien azpian, eta abar; askotan ere harkaitz zein uharriz eratutako lurretan. Espezie lehortarra da, ilunabarrean eta gauean aritzen dena, eta ugaltzeko baino ez dena uretan sartzen, udaberrian hain zuzen. Sakonera txikiko uretara hurbiltzen dira ar eta emeak, eta anplexua amaitzean 3.000 bat arrautzez eratutako lerro bat errun ohi du apoak. Larbak oso txikiak dira. Metamorfosiaren ondoren, bi hilabete beranduago, alegia, zentimetro eta erdikoak dira. Animalia oso jatuna da, batez ere intsektuak eta bereziki inurriak jaten badi-tu ere, hainbat harrapakin jan ditzake. Hanka motzak dituen, jauzika behar-rean oinez ibiltzen da, eta korrika egiteko era ikusgarria du.

Mediterraneoko eskualdean eta eskualde subkantauriar gehienguan ugaria da, Arabako Lautadan izan ezik, han gutxiagotan ikusten da. Kostaldeko populazioen egoera oso bestelakoa da. Izan ere, ekialdeko populazio bakarrak oso ale gutxi ditu. Oro har, populazioak egonkorak badirudite ere, Arabako barnealdekoak atzera egiten ari dira, eta kostaldeko populazioa egoera kritikoan dago.

Populazio hauentzat, anfibio guztientzat bezala, honako hauek dira populazioa gutxitzea eragiten duten faktoreak: istil, putzu eta urmaelak hondatzea eta desagertzea; eta horrek eragiten du umatze-habitata hondatzea eta banaketa-area murriztea.

Kontserbatzeko neurriak, ur-inguruneak, eta batez ere Txingudiko ingurua, kontserbatzera bideratu behar dira.



Baso-igel jauzkaria

Rana ágil

Rana dalmatina

Anuru handia da, mehea, 9 cm-rainokoa. Atzeko hankak oso luzeak direnez, jauzi luzeak egiten ditu. Hatzak mintz txiki batez lotuta ditu. Mutturra puntaduna, eta begiak irtenak dira. Azala leuna da, eta bizkarraldean luzeran guruin-tolestura bat dauka, gorputzaren alde bakoitzean. Bizkarraldea arrea edo grisaxka da; atzeko hanketan zeharkako marra ilunak dituzte. Buruan nabarmena da begitik aho-ertzeraino doan orban marroi iluna. Sabelaldea zurixka du, eta izterondoan orban horia edo berdaxka dauka.

Europako erdialdean eta hegoaldean bakarrik bizi da. Gure lurraldean, Araban bizi da, Mediterraneoko isurialdean, isurialdeen banalerroa eta Kantauriar Mendilerroko ipar-hegalaren artean. Leku faboragarrietan ageri denez, bere banaketa oso irregularra da.

Zuhaitz hostogalkorren baso atlantikoetan bizi da, oihanpea nahiko garatua duten harizti martzeszenteetan, alegia, oihanpean txilardia edo bestelako formazio belarkara-zuhaixkararen bat dutenetan eta ur geldoa dagoen tokietan. Lehorreko espeziea da, ilunabarrean eta gauean aritzen da, eta baso barruan bizi da. Izan ere, ugalketarako bakarrik sartzen da uretan, udaberriaren hasieran. Arrak eta emeak ur sakonetan biltzen dira, eta han errun ohi dute kono-formako arrautza-masa, 10-45 cm-ko sakoneran. Mila arrautza inguru erruten dituzte uretako landareen artean. Era guztietako intsektu, molusku, lur-zizare eta araknidoak jaten ditu.

Espezie honen ugaritasuna herritik herrira aldakorra da; hala ere, espezie hau ez da inon maiz ikusten, inon ere ez da ugaria, eta banaketa-arearen erdialdean oso bakana da. Gure lurraldean bizi den populazioa penintsulako populazioaren %70 izan daiteke, eta espeziearen banaketaren hegoaldeko muga da. Argi dago populazioa atzera egiten ari dela, Arabako Lautadan zenbait populazio desagertu baitira jada. Beste populazio batzuk, egonkorrak direla dirudi.

Atzerakadaren eragile nagusia ugalketarako erabiltzen dituzten istilak hondatzea edo desagertzea da. Horrez gain, lehorreko habitata murrizteak ere eragina izan du.

Espezie hau kontserbatzeko, bere habitata kontserbatzea bultzatu behar da, batez ere animalia bizi den basoei eta erruten duen ur-masari dagokienez. Lautadan geratzen diren basoak eta urmaelak zaintzea ezinbestekoa da, eta populazioen arteko komunikazioa errazteko korridore ekologikoak egitea komenigarria izango litzateke.



Dortoka korrontezalea

Galápago leproso

Mauremys leprosa

Tamaina ertaineko apoarmatua da; eskola 20 cm-rainokoa da. Gorputzadarrak oso garatuta ditu, ezkata gogorrez estaliak. Hatzak palmatuak dira, eta erpe gogor eta kurbatuak dituzte. Buruaren amaiera puntaduna da; barailak indartsuak eta zorrotzak dira. Oskolak atzean gila txikia dauka; gris oliba da, eta batzuetan ere orban argiak ditu. Bizkarreko ezkutuetan algek eragindako urradurak izan ohi ditu, eta batzuetan erori egiten dira. Horregatik hartzen du izen arrunt hori gaztelaniaz. Lepoan marra hori-laranjak dauzka.


Banaketa-area zirkunmediterraneoan du espezie honek, eta Afrikako iparraldean ere agertzen da. Gure lurraldean oso toki gutxitan behatu da.

Ur geldoetan nahiz ibaietan bizi da. Anfibioen antzera bizi da, eta batez ere egunez jarduten du. Eguzkitan berotzen da, ur ertzetan edo uretan dauden enbor edo beste objektuen gainean. Arriskua sumatu ahala azkar murgiltzen da; eta batzuetan, usain nazkagarria duen uzki-guruinaren likidoa askatzen du. Udaberriaren hasieran parekatzen dira, uretan nahiz lehorrean —gehienetan uretan—, gorteiatzea egin ondoren. Barne-ernalketa dauka. Errunaldia maiatza edo ekaina aldera izaten da. Lehorrean 5-10 arrautza errun ohi ditu, zuriak eta 3-4 cm-koak. Jaioberriek 4 gramoko pisua dute, eta 2-3 cm luze dira. Orojalea da, baina batez ere haragijalea. Sarraskiaz gain, arrainkumeak, anfibio-larbak, intsektuak, moluskuak, harrak eta zenbait landare jaten ditu.

Gutxitan behatu denez, pentsatu beharra dago populazioaren dentsitatea oso baxua dela. Ez dago, ordea, populazioaren joerari buruzko daturik.

Uretako espezie guztien kasuan bezala, ibaiak hondatu edo eraldatzea izaten da atzerakadaren eragile nagusia, baita harrapaketa eta aleak kontrolik gabe sartzeari ere. Beste eskualde geografikoetatik ekarritako aleak bertakotzeak eragin kaltegarriak ditu bertako populazioarengan eta gaineko faunarengan.

Espezie hau kontserbatzeko, beharrezkoa da beste tokietatik ekarritako aleak sartzeari uztea. Gainerako neurriak espezie honen arazo zehatzak aztertu ostean hartu beharko dira.



Dortoka istilzalea

Galápago europeo

Emys orbicularis

Tamaina erdiko apoarmatua da. Oskola 20 cm-rainokoa izan daiteke. Gorputzadarrak oso garatuta ditu, ezkata gogorrez estaliak. Behatzak palmatuak dira, eta erpe gogor eta kurbatuak dituzte. Buruaren amaiera puntaduna da; barailak indartsuak eta zorrotzak dira. Oskola iluna da, marroia edo beltza, eta orban eta marra horiak ditu, animalia honen bereizgarriak direnak. Burua ere iluna da, eta hor ere orban horiak ditu. Helduen oskolaren azpialdea grisa edo horixka da. Gazteena, berriz, beltza izaten da, eta orban horiak ditu. Gorputzadarrak eta isatsa ere beltzak dira, eta orban horiak dituzte.

Europar banaketa zabala duen espeziea da, Iberiar Penintsulatik Kaukasoraino; Europako ipar eta erdialdean, ordea, ez da ageri. Afrikako iparraldean ere bizi da. Gure lurraldean bakana da, bi tokitan bakarrik ageri baita, Araban eta Bizkaian, hain zuzen.

Emari handiko ibai batean agertu da, ibaiertzeko landaredia oso garatua duen ibai batean, hain zuzen, bai eta zingiretako landaredia daukaten ureztatze-putzu batzuetan ere. Anfibioen antzera bizi da, eta batez ere egunez aritzen da. Eguzkitan berotzen da, ur ertzean nahiz uretan flotatzen. Arriskua sumatu ahala, azkar murgildu edo hondoetako lokatzean ezkutatzen da. Udaberri hasieran ur-masen hondoan parekatzen dira, gorietatzea egin ondoren. Barne-ernalketa dauka. Errunaldia ekaina aldera izaten da. lehorrean jarri ohi ditu 5-15 arrautza, zuriak eta 3-4 cm-koak. Jaioberriek 6 gramoko pisua dute, eta 2-3 cm luze dira. Haragijalea da, eta sarraskia ere jaten du. Hankak erabiliz urratzen ditu harrapakinak. Bere dietan arrainkumeak, anfibio-larbak, intsektuak, moluskuak eta harrak jaten ditu, bai eta uretako hegaztiren baten kumeak ere.

Espezie bakana da, urria, eta dirudienez Bizkaian populazio txiki bat besterik ez dago. Ez dago, ordea, populazioaren joerari buruzko daturik eta, beraz, ez dakigu desagertzeaz dagoen ala ez.

Atzerakada eragiten duten bi faktore nagusi daude: ur-masak hondatu edo lehortzea, Europa osoan gertatzen ari dena; eta aleak harrapatzea. Beste tokietatik ekarritakoak sartzeak ere eragin negatiboa dauka.

Espezie hau kontserbatzeko, animalia hau bizi den tokiak babestu behar dira. Ur-kalitatea eta ertzetako landaredia zaindu eta hobetzea ere komenigarria izango litzateke; halaber, beharrezkoa da alerik ez harrapatzea, eta noski, ale berririk ez sartzea. Bestelako neurriak espezie honen arazo zehatzak aztertu ostean hartu beharko dira.



Mokozabal zuria

Espátula Común

Platalea leucorodia

Hegazti handia da, metro baterainokoa, zuria. Parekatze-garaian orban horiak izaten ditu bularrean, lepoan, aho-ertzean eta mokoan. Garai horretan ere motots ikusgarria izaten du zintzilik. Mokoa espezie honen bereizgarria da: luzea, zabala, eta punta koilara-formakoa da. Hankak eta mokoa beltzak dira.

Espezie hau Palearktikoan zehar kolonietan banatuta dago. Europako zenbait herrialdetan, populazio txikiak ageri dira. Gure lurraldean migratzailea da, eta inoiz ere negua igarotzera ageri da kostaldean, Gernikako itsasadarrean eta Txingudiko badian. Abran ere ageri da, bai eta Ulibarri eta Urkulu urtegietan ere, baina askoz gutxiagotan.

Habia egiteko, ur oso sakonak ez dituzten kostako lekuak nahiago ditu. Taldekoia da, eta batez ere egunsentian aritzen da. Zingiretako landareetan edo inguruko zuhaiztietan egiten du habia. Urtean behin hiru edo lau arrautza errun ohi ditu. Uretan jaten du: mokoa erabiliz hondoa eragin eta uretako ornogabe eta ornodun txikiak harrapatzen ditu. Batzuetan landareak ere jaten ditu.

Gure lurralderaino iristen direnak Holandan umatzen dira. Holandan 400-530 bikote daude. Txingudin 85 hegazti zenbatzera iritsi da. Mendebaldeko Europa osoan, azken urteetan kopuruak gora egin du, eta beraz, hegazti gehiagok zeharkatzen dute gure lurraldea. Beste herrialde batzuetan, ordea, populazioa erregresioan dago.

Atlantikoko kostaldetik egiten duten migrazioa egin ahal izateko, ezinbestekoa da espezie honentzat hezegune-sare zabala izatea. Zoritxarrez, beste edozertarako erabili ohi dira hezegune hauek. Halaber, poluzioak eta gizakiaren esku-hartzeak askotan inguru hauetan eragiten dute.

Kantauriko estuarioak kontserbatzea ezinbestekoa da Herbeheretako mokozabala iraungi ez dadin. Horrenbestez, migrazio-garaian gure lurraldeetan garrantzi handia daukaten guneak babestu behar dira. Halaber, beharrezkoa da habitat naturalak kontserbatzea, hauen azalera ez murriztea, eta ehiza eta gizakiaren esku-hartzea kontrolatzea.



Miru gorria

Milano Real

Milvus milvus

Tamaina ertaineko harraparia da, batzuetan 60 cm-tik gorakoa. Isatsa luzea da, urkila-formakoa. Buruan kolore argiak eta marra ilunak ditu; bizkarraldea eta lepoa arre gorrikarak dira. Isatsa gorrikara da, eta marra gutxi batzuk ditu. Hego lirainak ditu, eta azpialdean nabarmena da duen orban zuri handia, espezie hau bereizteko erabiltzen dena. Mokoa eta hankak beltzak dira.

Espezie hau ia European baino ez da bizi. Gure lurraldean, gehienak Araban bakarrik ageri dira, isurialdeen banalerroko ipar-hegaletan, hain zuzen ere. Halaber, Gasteizko Mendietan, Iturrieta-Entzia mendilerroetan eta Arabako Haranetako eta Arabako Mendialdeko zenbait tokitan ere bizi da. Urte osoan zehar ikus daiteke, baina neguan eta migrazio-garaian askoz ugariagoa da.

Inguruan gune zabalak dituzten basoetan bizi da, janaria gune horietan bilatzen baitu. Habitat gogokoenak erkameztiak eta pinudiak ditu, eta bereziki mendi-magaletako baso handiak atsegin ditu. Neguan, ordea, intentsiboki landutako lurrak nahiago ditu. Hegada dotorea dauka, eta luze planeatzen du. Neguan taldekoia da, eta talde txikietan migratzen du. Zuhaitzetan egiten ditu habiak, eta urtean bizpahiru arrautza erruten ditu. Denetik jaten du, eta leku zabaletan harrapatzen ditu harrapakinak: ugaztun txikiak, beste hegaztiak, eta batzuetan, arrainak ere bai. Hondakinez ere elikatzen da, saraski naturalez zein zabortegetan utzitakoez.

Hogeita hamar bat bikotek egiten dute habia, eta badirudi kopuruak gora egin duela azken urteetan. Hala ere, European, eta bereziki, Iberiar Penintsulan, erregresioan dago, hainbat herrialdetan oraindik egonkorra bada ere.

Populazioak murriztea eragiten duten giza faktoreen artean, tiroak, elektrokuzioak, harrapatzeak eta pozoitzeak daude, besteak beste. Dena den, ez dago batere argi zergatik den espezie urria edo bakana gure lurraldean eta bere banaketa-areako beste toki batzuetan.

Espezie hau kontserbatzeko neurriak espezie honen arazo zehatzak aztertuta osten hartu beharko dira, baina, jakina, lagungarria izango litzateke zuhaitzi zabalak zaintzea.



Sai zuria

Alimoche Común

Neophron percnopterus

Tamaina ertaineko sarraskijalea da, 70 cm-rainokoa. Helduek, burua eta lepoa zuri horixkak dituzte, lumarik gabeak. Gorputza zurixka da, eta arraun-lumak beltzak dira. Mokoa horia da, eta punta beltza dauka; hankak grisak dira. Gazteak, oro har ilunak dira.


Mundu osoan bizi da: Afrikan, Asian eta Europako zonalde mediterraneoan. Gure lurraldean, mendialdean bizi da, batez ere Durangaldean, Enkarterrietan, Arabako mendebaldean eta Arabako Mendietan. Udako espeziea da, eta udazkenean Afrikara migratzen du.

Harkaitzak dituzten eta oso handiak ez diren mendietan ugaltzen da. Planeatzaile ona da, binaka edo talde txikietan biltzen dira jateko, bai eta migratzeko ere. Harkaitzetan, eta inoiz zuhaitzetan ere, egiten du habia, makilak eta adaxkak erabiliz. Barrutik ilez eta lumatxoez estaltzen du. Urtean behin, bi arrautza errun ohi ditu. Sarraskia jaten du, beste sarraskijaleek —sai arreak, esaterako— utzitakoa, gehien bat. Halaber, honako hauek ere jaten ditu: artropodoak, narrastiak, anfibioak, ugaztun txikiak eta ibaiertzetan aurkitzen dituen eta hilzorian dauden arrainak.

Gure lurraldean 20-45 bikote ugaltzaile daudela uste da. 80ko hamarkadan bazirudien populazioa egonkorra zela; eta azkenaldian badirudi pixka bat gora egin duela, nahiz eta toki batzuetan beherakada nabarmenak egiaztatu diren. Iberiar Penintsulako populazioak, Europako zenbait herrialdetakoen antzera, atzeranzko joera du.

Erregresioa hainbat faktorek eragin dute: batetik, espeziearen eman-kortasuna txikia da, kanpoko kirolek eta jarduerak eragindako inpaktuaren eta habien inguruan gizakia ibiltzearen eraginez. Pozoia debekatuta badago ere, gehienetan mehatxu larriena da espeziearentzat. Linea elektrikoen eraginez ere asko hiltzen dira. Azkenik, habitata hondatzea aipa dezakegu atzerakadaren eragileen artean.

Espezie hau kontserbatzeko, beharrezkoa da gizakiak habien inguruan egiten dituen jarduerak erregulatzea, bai eta pozoiaren erabilera kontrolatzea ere, jakina.



Mirotz urdina

Aguilucho Cenizo

Circus pygargus

Tamaina ertaineko harraparia da, ia metro erdi luze dena. Hegalak luzeak eta punta zorrotzak dira. Isatsa ere luzea da. Arra grisa da. Hegoek ertza beltza eta zeharka marra beltzak dituzte. Isatsa grisa da, marraduna. Azpiko aldeak grisak dira, eta orban gorriak ditu. Moko beltza eta hanka horiak ditu. Emea, berriz, arrea da, eta marra ilunak ditu; hegaletan eta isatsan arrak baino marra gehiago ditu.

Espezie hau, ia European bakarrik bizi da. Gure lurraldean, Mediterraneoak da, Araban bakarrik bizi baita. Udako hegaztia da, eta Afrikan migratzen du udaldiaren amaieran.

Altuera txikietan dauden landutako lurretan bizi da, baita larre eta sas-traka artean ere. Labore-lurretan egiten du habia, eta batzuetan, andeatuta dauden harizti-erkameztietan eta txilardi-otadietan ere bai. Altuera txikian egiten du hegan, hegoak astinduz edo planeatuz, hego-muturrak altxatuta dituela. Lurrean nahiz pausalekuetan hartzen du atseden, eta talde txikietan migratzen du. Bakarka egiten du habia, populazio handiak direnean izan ezik, orduan koloniak osatzen baitituzte. Lurrean egiten du habia, landareen artean, adarrak eta gramineo-zurtoinak erabiliz. Urtean behin 3-5 arrautza errun ohi ditu. Lehorreko hainbat harrapakin jaten ditu: artropodoak, anfibioak, narrastiak, hegaztiak eta ugaztunak.

Araban 38 bikote ugaltzaile bizi dira. Bere banaketa-area txikitzen ari da, eta badirudi kopurua behera egiten ari dela, horren inguruko daturik izan ez arren. Izan ere, iberiar populazioak erregresio nabarmena pairatzen ari dira. Europako beste populazioen egoera antzekoa da, baina badirudi populazio handienak egonkorragoak direla.

Gure lurraldeko ezaugarri ekologikoek berez mugatzen dute populazioaren hazkundeak, eta gainera, soroetako lanak mekanizatuak ere espeziea kaltetzen du. Halaber, nekazaritza intentsiboak ere eragin kaltegarria du, ingurunea sinplifikatzen duelako.

Espezie hau kontserbatzeko, zerealen uzta jasotzeko garaian habiak hondatzea ekiditeko kanpainari eustea komenigarria litzateke. Sentsibilizazio-kanpaina horren bidez, espeziearen garrantziaz ohartarazi behar zaie nekazariari. Nekazaritza-inguruneak eta ingurune horien aniztasuna kontserbatzeko espezie honen biziraupena bermatuko du.



Arrano beltza

Águila Real

Aquila chrysaetos

Harrapari handia da, 90 cm-rainokoa. Bere sendotasuna eta dotorezia nabarmenak dira. Isatsa eta hegoak luzeak dira. Bizkarraldea arre iluna da; burua, garondoa eta hegoen azpialdea urre- edo krema-kolorekoak dira. Azpitik ikusita, iluna dela dirudi, hegaletako orban zuri bereziak salbu. Isatsean marra lausoak ditu zeharka. Mokoa beltza eta hankak horiak dira.

Banaketa holarktikoa duen espeziea da. Europan zehar hedatzen da. Gure lurraldean, sedentario gisa bizi da Araban eta Gipuzkoan.

Haitzak eta erlaitzak dituzten mendialdeetan bizi da, bertan habia egiten baitu. Toki zabaletan ehizatzen du. Bortizki egiten du hegan. Luze planeatzen du harrapakinen bila, eta horietako bat ikusten duenean, haren gainera trebeziak amildu eta harrapatu egiten du. Haitzetan eta amildegietan egiten du habia, eta batzuetan zuhaitzen gainean ere bai. Adarrak erabiliz habia handia egin eta barrutik estaltzen du. Habia hori urtetik urtera erabiltzen du, eta urtero zaharberritu eta egokitzen du. Urtean behin bi arrautza errun ohi ditu, eta ia emeak bakarrik egiten du txitaldia. Hegazti bakartia da. Ugaztun, hegazti, eta narrasti ertainak jaten ditu, bai eta sarraskia ere.

Hamaika bikote zenbatu dira gure lurraldean. Beste hiru bikote ere badaude, baina inguruko probintzietan egiten dute habia. Azken hamarkadetan gainbehera nabarmena pairatu arren (10 bikote desagertu dira 25 urtetan) 90eko hamarkadaz geroztik badirudi egonkorra dela, edo goraka egin duela, bi bikote gehiago baitaude. Iberiar Penintsulan eta Europako zenbait herrialdetan ere antzeko zerbait gertatu da: bikoteen %30 desagertzeri iritsi arren, egun, badirudi populazioak egonkorrak direla.

Populazioak hainbat faktorek kaltetzen dituzte, jazarpen zuzenetik hasita, hala nola, tiroak, pozoitzeak eta habien espoliazioak, habitata hondatu arte. Harrapakin-eskasia ere oso arazo handia da. Untxia, esaterako, urritu egin da hainbat gaixotasunek jota (mixomatosi eta pneumonia hemorragiko birikoa). Halaber, mendizaleen, argazkilarien eta eskalatzaileen presentzia ere oso kaltegarria izan daiteke, batez ere umatze-garaian, arranoak habia uztea eragin baitezake. Animaliak elektrokutatzeak eta linea elektrikoek kontra jotzeak ere espezie hau gutxitzea eragin dute.

Hori dela eta, linea elektrikoak ondo jartzeak zenbait banako hiltzea ekidingo du. Halaber, umatze-garaian bikoteak behar bezain lasai egotea bermatu behar da, eta horretarako beharrezkoa da aisialdirako jarduerak erregulatzeko eta mendi-pistak irekitzea ekiditea. Banakoak hiltzea eragiten duten faktoreak zorrotzasunez aztertu behar dira.



Basoilo txikia

Sisión Común

Tetrax tetrax

Tamaina ertaina duen hegazti lehortarra da, 40 cm-tik gorakoa. Sexu-dimorfismo nabarmena dauka: arraren bizkarralde arren-horixka da, ildaskatua, eta marra beltz finak ditu. Isatsaren estal-lumak zuriak dira, sare-itxurakoak, eta hegalepekoak zuri-beltzak. Arraun-lumak zuriak dira, eta mutur beltzak dituzte, hegan egiterakoan itxura argia ematen diotenak. Isatsa marraduna da, eta zeharkako marrak ditu. Lepoa beltza da, eta bi lepoko zuri fin ditu. Mokoak grisa da, eta punta beltza dauka. Hankak horixkak edo grisak dira. Behealde zuria da. Emea, berriz, orban gehiago ditu gainean eta gorrixkagoa da azpitik.

Asiako mendebaldean eta erdialdean, Afrikako iparraldean eta Europako hegoaldean bizi da, batez ere Iberiar Penintsulan. Gure lurraldean ez da bizi, baina migrazio-garaian ageri da, kostaldean nahiz barnealdean.

Hutsik dauden gunetan bizi da, zereal-soroetan eta estepetan, esaterako. Migrazio-garaian, ordea, itsasertzetik hurbil dauden larreetan ageri da. Taldekoia da, eta talde txiki eta ertainetan biltzen da. Arriskua sumatu ahala landareen artean ezkutatzen da. Azkar egiten du hegan, eta lurrean ere trebea da, azkar egiten baitu korrika. Lurrean egiten du habia, landare baxuak dauden lekuetan, sakonune txiki batean. Barrutik ez du ia estaltzen. Urtean behin 3-4 arrautza errun ohi ditu. Landareak, belarrak eta haizak jaten ditu, bai eta animalia txikiak, intsektuak, harrak eta moluskuak ere.

Espezie hau gure lurraldean oso gutxitan ikusi da, eta ikusi diren aleak populazio kontinentaletatik etorriak dira, segur aski Frantziatik. Han ere, Penintsulan bezala, erregresioan daude.

Ehiztariek oraindik ere basoilo txikiak hiltzen dituzte gure lurraldean. Nekazaritza-jarduerak areagotzeak eragin du bertan bizi diren populazioek atzera egitea.

Espezie hau kontserbatzeko, hegaztiak ugaltzen diren lekuak hobetzea bultzatu behar da.



Txirritxo txikia **Chorlitejo Chico** *Charadrius dubius*

Zangoluze txikia da, gehienetan 20 cm-tik beherakoa. Bizkarraldea arrea eta lur-kolorekoa da, bularraldean marra beltza dauka, sorbaldarantz joan ahala gero eta finagoa dena, eta lepoko zuria ere badauka. Kopetan eta mozorroan marra beltza daukate. Begi-eraztuna horia da. Hegoak arre-ak dira, eta estal-lumak zurixkak. Moko beltza eta hanka marroiak ditu.

Palearktikoan banaketa zabala duen espeziea da. Gure lurraldean, ordea, ale gutxi daude eta daudenak oso leku zehatzetan daude, udako migratzailea baita.

Ibaiaren erdialdeko edo behealdeko ibai-bazterretan bizi da, uharriak dituzten harrizetan. Halaber, urtegien ertzetan ageri da, landare gutxi dagoen lekuetan, bai eta gizakiari lotuta dauden inguruneetan ere: hezegune edo estuarioen inguruko legar-hobietan, esaterako. Migrazio-garaian estuario eta kostako inguruetan egoten da. Ibilera bereizgarria du, azkarra eta bizia dena. Banaka edo binaka bizi da, baina migratzerakoan talde txikietan biltzen da. Lurrean egiten du habia, legarreko sakonune txiki batean. Barrutik ez du ia estaltzen. Urtean behin, edo zenbaitetan bitan, lau arrautza errun ohi ditu. Artropodoak, moluskuak, harrak eta lokatzetan edo harrien artean harrapatzen dituen beste zenbait ornogabe txiki jaten ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoan bikote ugaltzaile gutxi daude, seguraski 25 baino gutxiago. Populazio honek gora-beherak izaten ditu habiak behin-behineko lekuetan egiten dituelako.

Batez ere ingurunea hondatzeak eragiten du espezieak behera egitea. Izan ere, habiak egiteko toki aproposak askotan galtzen dira, hezeguneak lehorte, ibaiak bideratu, ibaiertzak garbitu eta ibaiak dragatzen direlako.

Espezie hau kontserbatzeko, beharrezkoa da ibaietako legar-hobiak eta uharri-eremuak mantentzea, ibaietan ahalik eta gutxien esku-hartzea, eta txitaldian gune horietako jarduerak erregulatzea, ugaltzen ari diren bikoteei eragozpenik ez eragiteko.



Argi-oilarra

Abubilla

Upupa epops

Tamaina ertaina duen hegazia da, 25 cm-rainokoa. Luma-sorta zutikorra du buruan, gaztaina-kolorekoa, eta puntak zuri-beltzak dituena. Aurrealdea arrea da, eta atzealdean marra zuri-beltzak ditu. Hegoak eta buztana beltzak dira eta marra zuriak dituzte. Eztarria arrosa da, eta gorputzaren azpialdea arrea, baina pixkanaka kolorea galtzen du. Mokoia beltza, luzea eta kurbatua da. Hankak gris ilunak dira.

Banaketa mediterraneoan duen espeziea da. Gure lurraldean udakoa eta migratzailea da, eta batez ere eskualde subkantauriar eta mediterraneoan dago; Atlantikoko eskualdeetan, ordea, oso gutxitan ikusten da.

Mediterraneoko laborantza-lurretan bizi da, inguruan arte, erkametz eta karraska baso txikiak dituztenetan. Sastrakadietan, eta erliebe gutxi duten eremu zabaletan ere ageri da, betiere habiak egiteko zuhaitz zaharrak dauden tokietan. Lehortarra da, eta hegaldi laburrak egiten ditu, uhin-duak, eta bere hegadek tximeleta ekartzen dute burura. Hegaztiaren gogolaldearen arabera altxatzen zaio buruko luma-sorta. Bakartia da, baina familia-talde txikietan biltzen da. Zuhaitzetako zuloetan, eraikinetan eta eraikinen hondarretan egiten du habia, eta batzuetan pizidoen habia zaharrak ere erabiltzen ditu. Barrutik ez du ia estaltzen. Urtean behin edo bitan 5-8 arrautza errun ohi ditu. Batez ere lurrean edo zuhaitzetako zirrikietan harrapatzen dituen intsektuez elikatzen da, baina moluskuak, harrak eta beste ornogabe batzuk ere jaten ditu.

Gure lurraldean ez da oso ugaria, baina ikustea ere ez da oso arraroa, bereziki Mediterraneo aldean. Europako beste herrialde askotan bezala, hemengo populazioa erregresio nabarmena pairatzen ari da.

Pestiziden eragin kaltegarriak eta zuhaitz zaharrak mozteak dira erregresioa eragiten dutenak.

Espezie hau kontserbatzeko, hegazti honek erabiltzen duen ingurunea kontserbatu eta hobetu egin behar da, eta batez ere, zuhaitz zaharrak babestu behar dira.



Okil ertaina

Pico Mediano

Dendrocopos medius

Okil txikia da, 20 cm-rainokoa, okil handiarekin nahasi ohi dena. Buroa zuria da, eta txano gorria dauka. Sabelaldea arrosa da. Lepoan orban zuria dauka. Eztarria eta bularra zurixkak dira. Orban ilunak ditu sabelaldean. Bizkarraldea beltza da, eta sorbalda-lumak zuriak dira. Arraun-lumak beltzak dira eta marra zuriak dituzte. Isatsa beltza da, eta kanpoaldeko lumak zuriak dira. Mokoa eta hankak gris ilunak dira.

Banaketa europarra duen espeziea da. Gure lurraldean zenbait gunetan behatu da, baina talde handiena Araban bizi da.

Amezti zabaletan bizi da normalean, baina bestelako hariztietan eta zuhaitz zaharrak dauden basoetan ere ager daiteke. Hegazti bakartia da, iheskorra, batez ere zuhaiztarra. Trebetasunez egiten du gora enborretan, eta han moko-joka aritzen da janari bila. Uhin-formako hegaldia du. Zuhaitz lehor edo gaixoen zuloetan egiten du habia: sarrera biribila duen zuloa industen du, eta barrutik ez du estaltzen. Urtean behin 4-8 arrautza erruten ditu. Gehien bat intsektuak jaten ditu, bai eta fruitu eta hazi batzuk ere.

450 bikote ingurukoa da populazioa, ia iberiar populazioaren bostena. Europako mendebaldeko populazioa, penintsulakoa barne, erregresioan dago.

Populazioen atzerakada eragiten du egun egiten den baso-kudeaketak, habitata hondatu eta elikagaiak aurkitzeko eta habia egiteko leku posibleak murrizten baititu.

Espezie hau kontserbatzeko, basoa irizpide ekologikoak kontuan hartuz ustiatu beharko litzateke, horrela espezie honen eta beste hainbat baso-espezieren biziraupena bermatu ahal izateko.



Uhalde-enara **Avión Zapador** ***Riparia riparia***

Enaren familiako txori txikia da, 13 cm-rainokoa. Bizkarraldea arrea eta lur-kolorekoa da, eta azpialdea zuria, bularrean daukan marra marroia izan ezik. Isatsa ez da oso luzea, eta ez dauka oso urkilatua. Mokoia eta hankak arreak dira.


Palearktikoan banaketa zabala duen espeziea da. Gure lurraldean, eskualde subkantauriar eta mediterraneoetan hedatzen da, ibai nagusietan zehar. Saharaz bestaldera migratzen duen udako hegaztia da.

Kolonia zatatsiak osatzen ditu, eta habia egiten du ibai handi eta mantsoen ertzetako ezpondetan, baita bestelako ur-masa gezetako ertzetan ere. Taldekoia da, eta hegaldi azkarra eta bizkorra izanik, airean harrapatzen ditu harrapakinak, beste hirundinidoen antzera. Batzuetan, lurrean ere harrapatzen ditu. Talde txikiak osatzen ditu migratzeko. Habia egiteko metro bat luze den tunela industen du, barruan ganbera txikia egiten du, eta landare-puskak eta lumak eransten dizkio. Urtean bi aldiz 4-5 arrautza errun ohi ditu. Batez ere aireko intsektuak jaten ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoan ehunka bikote dagoela uste da. Iberiar Penintsulan eta, oro har, Europako hego-mendebalde osoan, espezie hau erregresioan dago.

Gizakiak ibaietan duen esku-hartzea da populazio hauentzako arrisku larriena: agregakinak atera, ibaiak dragatu, ibilguak eraldatu eta ibaiak bideratzeko lanek habiak egiteko beharrezkoa den habitata suntsitzen dute. Halaber, pestizidak erabiltzean, hegazti honek janari gutxiago dauka esku-ragarri, eta ondorioz, populazioaren gain eragiten du.

Espezie hau kontserbatzeko, ibaiertzak kontserbatu eta hobetu behar dira, eta ibilgu eta ertzetan materialen erauzketak arautu eta gizakiaren esku-hartzea ahalik eta gehien murriztu behar dira.



Buztangorri argia **Colirrojo Real** *Phoenicurus phoenicurus*

Hegazti txikia da, 14 cm-rainokoa eta kolore biziak dituena. Sexu-dimorfismo nabarmena dauka. Arrak kopeta zuria du, txanoa eta bizkarraldea grisak, eta estal-lumak eta ipurtxuntxurra gorrixkak dira. Hegalen gainaldea gris arrea da. Isatsaren erdialdea arrea eta lema-lumak gorriak dira. Eztarria eta aurpegia beltzak dira, bularra aldeetan gorrixka da, eta sabela eta beheko estal-lumak zurixkak dira. Emeeek, berriz, gainaldea gris arrea dute eta azpialdea gorrixka argia. Mokoak beltza eta hankak arre-beltezak dira.

Europar, Asian eta Afrikako ipar-mendebaldean banaketa zabala duen espeziea da. Gure lurraldean, eskualde subkantauriarrean eta Atlantikoko zenbait gunetan ageri da, betiere oso leku zehatzetan. Saharaz bestaldera migratzen duen udako hegazia da.

Zuhaizti zahar eta zabaletan bizi da, harizti, erkamezti eta artadietan, hain zuzen. Giza eraikinetatik hurbil ere ageri ohi da, parke eta landazabaletan. Zuhaitz batetik bestera etengabe dabil, eta isatsa eta hegoak oso maiz astintzen ditu. Habia egiten du zuhaitzetako zuloetan, eraikinetan, hormetan eta errutegi artifizialetan. Habia kopa-formakoa da, landareez egina eta barrutik ile eta lumatxaz estalia. Urtean bi aldiz 5-7 arrautza errun ohi ditu. Batez ere zuhaitzetan edo airean harrapatzen dituen artropodoak jaten ditu, bai eta harrak, moluskuak eta fruituak ere.

Populazioa 200 bikote ugaltzaitetik beherakoa dela uste da. Beheranzko joera dauka bai dentsitateak eta bai banaketa-areak. Europa osoan gertatzen ari da erregresio kezkarri hau.

Atzerakadaren eragileak honako hauek ditugu: zuhaitz zaharrak moztearen ondorioz habitata desagertzea, negua pasatzeko gunean, Sahel-en (Afrikan), lehorteak egotea, eta Saharaz bestaldeko toki batzuetan, batez ere Nigerian, labore-lurretan pestizidak erabiltzea.

Espezie hau kontserbatzeko, landazabalak eta basoetako zuhaitz zaharrak zaindu behar dira, batez ere eskualde subkantauriarrean.



Antzandobi handia

Alcaudón Real

Lanius meridionalis

Tamaina ertaina duen txoria da, 25 cm-rainokoa. Goiko aldea grisa da, eta sorbaldako lumak zuriak dira. Zerrenda superziliar mehea eta zuria dauka, eta mozorroa beltz ikusgarria. Eztarria eta sabela zurixkak dira. Hegalen gainaldea beltza da, luma sekundarioen ertzak zuriak dira, eta hegoen erdian orban argia daukate. Isatsa luzea eta beltza da, eta ertz zuriak ditu. Moko zorrotza eta hanka beltzak ditu.

Palearktikokoan banaketa zabala duen espeziea da, Europan nahiz Afrikako iparraldean. Gure lurraldean Mediterraneoko eskualdean bizi da, eta inoiz ere eskualde subkantauriarrean.

Sastrakaren bat eta zuhaitz gutxi duten landazabaletan bizi da, hazitako zuhaixkak dituzten larre xerofiloetan, lugorrietan, alfer lurretan eta inguruan hesi bizia duten laborantza-soroetan, esaterako. Zelatan egoten da ehizatzeo, eta denbora luzea ematen du geldirik pausalekuetan, telefono-linearen gainean, adibidez, harrapakina ikusi arte. Orduan haren gainera oldartu, eta harrapakina hartu ostean, zuhaixka baten arantzan kordatzen du; horrela, jaki-gordailu bereziak egiten ditu. Hegazti bakartia da. Zuhaitz edo zuhaixketan egiten du habia, kopa-formakoa, landareez egina eta barrualdea beste gai fina-goekin estaltzen du. Urtean behin 5-7 arrautza errun ohi ditu. Artropodoak ez ezik, narrastiak eta hegazti eta ugaztun txikiak ere jaten ditu.

Populazioa 250 bikote ugaltzailek eratzen dutela uste da. Azken 30 urteetan behera egin du ale-kopuruak, eta eskualde atlantikoan, esaterako, desagertu egin da.

Erregresioaren eragileak dira landazabalak desagertzea —nekazaritza areagotu delako—, sastrakak kentzea, abeltzaintza estentsiboa desagertzea, eta pestizidak kontrolik gabe erabiltzea, eskura daitekeen jaki-kopurua murrizten dute eta.

Espezie hau kontserbatzeko nekazaritza-habitatak zaintzea bultzatu behar da. Horretarako, ezinbestekoa da teknika ez-oldarkorrak erabiltzea eta zuhaitz eta zuhaixkak dituzten hesi biziak babestea.

Oharra: Katalogoan azaltzen den izen zientifikoa *Lanius excubitor* izan arren, taxonomia-irizpide berrienek (*Atlas de las aves reproductoras de España*, 2003) diote Euskal Autonomia Erkidegoan gehien agertzen den espeziea *Lanius meridionalis*-a dela.



Antzandobi kaskagorria

Alcaudón Común

Lanius senator

Hegazti txikia da, halere 18 cm luze ere izan daiteke. Kopeta eta mo-zorroa beltzak dira. Pileo ikusgarria du, eta lepoaren atzealdea gaztainkara edo gorrixka da. Eztarria, bularra eta sabela zuriak dira. Bizkarraldea eta hegoak arre-beltzekak dira. Luma primarioen oinaldean orban zuria du. Sorbaldak eta ipurtxuntxurra zuriak dira. Isatsa beltza da, eta ertz zuriak ditu. Mooka eta hankak beltzak dira. Gazteak gris jaspeztatuak dira.

Europar, Asiako mendebaldean eta Afrikako iparraldean bizi den espeziea da. Gure lurraldean Mediterraneoaren eragina duten eskualdeetan bizi da, bai eta zenbait eskualde subkantauriar eta atlantikoetan ere, batez ere kostaldean.

Baso zabaletan bizi da. Mediterraneoako eskualdean, olibondo- eta al-mendra-sailetan, nahiz karraskaren bat duten sastrakadietan bizi da. Atlantikoan fruta-arbolak dituzten landazabal eta harizti txikietan ageri da. Zelatan egoten da ehizatzeke, eta denbora luzea ematen du agerian dauden pausalekuetan geldirik, harrapakina ikusi arte. Orduan, horren gainera oldartu, eta harrapakina hartu ostean, beste antzandobien antzera, zuhaixka baten arantzan kordutzen du. Hegazti bakartia da. Zuhaitz edo zuhaixketan egiten du habia, landareez eginga eta barrutik estalia dena. Urtean behin edo bitan 5-7 arrautza errun ohi ditu. Artropodoak, narrasti eta hegazti txikiak jaten ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoan 300 bikote inguru bizi direla uste da. Badirudi azken urteetan erregresioan dagoela eskualde atlantikoan. Europa eta Iberiar Penintsulan gainbeherak antzeman dira, bai banako-kopuruari eta bai banaketa-areari dagokionez.

Erregresioaren eragile nagusiak haien habitatak hondatzea eta paisaia sinplifikatzea dira. Izan ere, sasi eta zuhaitzak kendu dituzte, Mediterraneo-ko zenbait landaketa txiki ezabatu dute eta Atlantikoko landazabalak oihaneztatu dituzte.

Espezie hau kontserbatzeko, alde mediterraneoan espezieak behar duen paisai anitza zaindu behar da, populazioak aurrera egin ahal izateko. Isurialde atlantikoan landazabalen heterogeneotasuna bultzatzea lagungarria litzateke.



Baso-saguzarra

Murciélago de bosque

Barbastella barbastellus

Zortzi eta hamahiru gramoko pisua eta 37-42 mm-ko besaurrea duen tamaina txikiko ugaztuna da. Azala oso iluna du, ia beltza. Ilea arrea da, oso iluna bizkarraldean eta atzeko erdialdean orban zuriak ditu; sabelaldea argiagoa da. Belarri laburrak ditu, eta buruaren erdian batuta daude. Murtarra oso laburra da.

Europako iparraldeko eremuan izan ezik, kontinente gehienez agertzen da. Kaukasoraino, Iberiar Penintsularaino eta Afrikako iparralderaino heltzen da. Gure lurraldean bere agerpenari buruzko erreferentziak daude, baina egun ez da egiaztatu.

Berez basoko espeziea da, eta zuhaitz-eremu menditsuetan bizi da. Udan zuhaitzen zuloetan bilatzen du babeslekua, eta umatze-koloniak eratzen ditu; neguan, ordea, utzitako eraikin eta kobazuloetan sartzen da. Gazez dabilen espezie koloniala da; ehunka emez osatutako taldeak eratzen ditu umatze-kolonietan; neguan bakarka edo talde txikietan ageri da. Udazkenean parekatu, eta maiatza eta ekaina aldera erditu ohi dira. Eme bakoitzak kume bakarra izaten du, inoiz ere bi erditu ohi ditu. 18 urtez bizi izan den ale baten datuak daude, baina normalean bizitza askoz laburragoa dute. Noizean behineko migratzailea da, 300 km-ko lekualdaketak ezagutzen dira negu-toki eta umatze-babeslekuen artean. Uraren gainetik hegari dabilenean harrapatzen dituen intsektu hegalaria txikiez elikatzen da, hala nola, lepidoptero, diptero eta koleopteroz.

Gure lurraldean populazio egoiliarra minimoa izan behar du, eta inondik ere ez dakigu populazioaren joera zein den. Europako populazioak erregresioan daude.

Populazioen erregresioaren eragile garrantzitsua da zuhaitzetako babeslekuak desagertzea, zuhaitz helduak galarazten dituzten egungo baso-ustiapenak direla eta. Bigarren mailakoa litzateke pestizidak erabiltzea, elikagai-eskuragarritasuna gutxitu eta pozoitzeko aukerak areagotzen baititu.

Espeziea kontserbatzeko komenigarria litzateke basoetan zuhaitz zaharrak mantentzea eta habia artifizialak jartzea, koloniak mantentzen edo finkatzen lagunduko bailukete, batez ere zuhaitz-landaketa gazteen kasuan. Bestelako neurriak hartu ahal izango dira populazioen egoera eta arazoak ezagutzean.



Saguzar hego-belarrihandia

Murciélago orejudo meridional

Plecotus austriacus

Bost eta hamabost gramo arteko pisua eta 38-43 mm-ko besaurrea duen tamaina txikiko ugaztuna da. Bizkarralde gris iluna du eta sabelaldea argiagoa da. Belarriak oso luzeak dira eta oinarrian batuta daude.

Banaketa eurasiatikoa duen espeziea da, Afrikako iparraldera heltzen dena, baina iparraldeko guneeetan ez da ageri. Gure lurraldean kostaldean zehar eta barrualdeko zenbait mendigunetan bizi da. Populazioak egoiliarak dira.

Itsas maila eta 600 metro artean bizi da, eta ohikoagoa da estai muino-tarreen eremu baxuetan baino. Babeslekutzat hartzen dituen baseliza eta utzitako eraikinetan bizi da. Gauzez ibiltzen da. Umatze-kolonietan emeak arrendandik bereizi eta talde txikiak eratzen dituzte. Udazkenean parekatu eta ekaina eta uztaila artean erditu ohi dira. Urtean umaldi bakarra izaten dute emeek, kume bakarrekoa, eta inoiz, baita bikoa ere. Gazteak bigarren urtean hasten dira ugaltzen. Sedentarioa da, baina 20 km-tik beherako lekualdatzeak ezagutzen dira negu-toki eta umatze-babeslekuen artean; ezagutzen den lekualdatzerik handiena 62 km-koa da. Harrapakinik gogokoenak lepidoptero noktuidoak dira, baina airean harrapatzen dituen beste intsektu batzuk jaten ditu ere, hala nola, diptero, neuroptero, himenoptero, hemiptero, trikoptero eta koleopteroak.

Gure lurraldean ez dugu espeziearen egoera ez eta joera ere ezagutzen.

Beste lurralde batzuetan, atzerakadaren eragileak dira umatze-koloniak ezartzeko erabiltzen dituen eraikinetan giza ekintzek eragindako eragozpen eta heriotzak, bai eta eraikinak berreraikitzeke eta egurra tratatzeko erabiltzen dire produktu kimikoak ere.

Populazioak kontserbatzeko beharrezkoa da umatze-koloniak eratzeko erabiltzen dituzten babeslekuak zaindu eta gizakien eragozpenak saihestea. Gainera, ugalketa-garaian berritze-lanak ekiditea komenigarria da. Egurraren tratamenduari dagokionez, kolonien jarduerak kontuan hartuz egin behar da, eta ez lirateke erabili behar espezie hauentzat toxikoak diren substantziak dituzten kontserbagarriak. Bestelako neurriak hartu ahal izango dira populazioen egoera eta arazoak ezagutzean.



Saguzar arratoi-belarrihandia

Murciélago ratonero grande

Myotis myotis

Tamaina txikiko ugaztuna da, 15-33 gramo bitartekoa; 57-67 mm arteko besaurrea du. Bizkarralde marroi-gorrixka eta sabelalde zuri grisaxka da. Belarri luzeak ditu.

Banaketa zabala dauka, Europako hego-erdialdean eta Asia Txikian bizi da. Gure lurraldean bai mendialde eta bai zonalde baxuetan behatu da. Populazioak egoiliarak dira.

Lurpeko babesleku ugari dituzten zonalde karstikoetan bizi da. Gauez aritzen da. Espezie koloniala da eta umatze-kolonietan ehunka eme bil daitezke; neguan, ordea, bakarka edo talde txikitan banatuta ibiltzen da. Udazkenean ernaldtu eta udaberriaren amaieran erditu ohi dira; eme bakoitzak normalean kume bakarra izaten du, baina inoiz bi ere izan ditzake. Migrazioak egiten ditu negu-toki eta umatze-babeslekuen artean. Iberiar penintsulan ezagutzen den mugimendu luzeena 390 km-koa da. Karabidoak eta beste koleopteroak jaten ditu, batez ere hegalaria ez direnak.

Ezer gutxi dakigu espezie honen populazioen egoerari buruz; hala ere, aski ezaguna da gure lurraldeaz kanpoko erregresioa.

Gure lurraldeaz kanpoko espeziearen beherakadaren eragileak dira umatze-koloniak asaldatzea, babeslekuak suntsitzea eta zuraren tratamenduen eragin kaltegarriak.

Espeziearen arazo zehatzak ezagutu ostean hartu beharko dira babesneurriak.



Ferra-saguzar handia

Murciélago grande de herradura

Rhinolophus ferrumequinum

Saguzar handi samarra da, 13 eta 43 gramo bitartekoa. Besaurrea 51 eta 60 milimetro bitartekoa da. Sudurzuloaren gainean mintzezko tolestura txikia du. Bizkarralde marroi argia da, eta sabelalde gris-arrosa. Burua gris argia da.

Mundu osoan banaketa zabala duen espeziea da: Europan, Asian eta Afrikako iparraldean ageri da. Gure lurraldean, ale ugari daude mendialde guztietan eta, oro har, lurralde osoan zehar. Populazioak egoiliarak dira.

Mendigune karstikoetan da nagusi, itsas maila eta estai menditarraren artean. Dena den, urriagoa da altuera handitu ahala; izan ere, isurialdeen banalerroko gune altuetan ez dago. Basoguneak ditu gogoko, baina gutxi bisitatzen diren eliza eta baselizetan ere bilatzen du babes. Leizeetan hibernatzen du. Umatze-koloniak eratzen ditu leizeetan edota gizakiak erabiltzen ez dituen eliza eta etxeetan. Gauez aritzen da. Umatze-garaian, emeek koloniak osatzen dituzte. Udazkenean ernalduta kumeak udaberrian jaiotzen dira. Eme bakoitzak urtean kume bakarra izan ohi du, eta hori dela eta, espezie oso zaugarria da. Gazteak bigarren urtean hasten dira ugaltzen. 15 urte inguru bizi dira, baina Pirinioetan 23 urteko ale batzuk behatu dira. Neguko babeslekutik udako babeslekuraino 20-30 kilometro egiten ditu. Europan ezagutzen den ibilbide luzeena 180 kilometrokoa da. Batez ere koleopteroak eta diptero handiak jaten ditu.

Oraindik ere espezie hau ikustea erraza izan arren, desagertzen ari da. Zenbait leize eta elizatako koloniak berriki desagertu dira.

Populaziak urritzen ari dira eraikinetan eta leizeetan pairatzen dituzten eragozpenen ondorioz. Izan ere, gizakiaren aurrean oso sentikorra den espeziea da. Halaber, egurra kontserbatzeko erabiltzen diren tratamenduek ere erregresioa eragiten dute, saguzarrak pozoitzen baitituzte.

Espezie hau kontserbatzeko hibernazio- eta umatze-kolonien babeslekuak zaindu eta kontserbatzea bultzatu behar da, pertsonak sartzea debekatuz edo murriztuz. Horrez gain, eraikinak zaharberritzean saguzarren fenologia kontuan hartu beharko litzateke, batez ere udan, umatze-koloniak osatzen dituzten garaia baita. Zaharberritze-lanetan ez litzateke inoiz homeotermentzako toxikoak diren substantzia kontserbatzailerik erabili behar.



Ferra-saguzar txikia **Murciélago pequeño de herradura** *Rhinolophus hipposideros*

Ugaztun txikia da, 3,5 eta 9 gramo bitartekoa. Besaurrea 36 eta 38 milimetro bitartekoa da. Sudurzuloaren gainean mintzezko tolestura ertaina du. Bizkarraldea marroi argia da, eta sabelaldea gris-arrosa.

Europa, Asia eta Afrikako iparraldean hedatzen da. Gure lurraldean mendialdean bizi da. Populazioak egoiliarak dira.

Harizti, artadi eta pagadietan bizi da, itsas maila eta 1.000 metroko altuera bitartean. Umatze-kolonia txikiak eratzen ditu gizakiak erabiltzen ez dituen eraikin eta elizetan. Neguan tunel eta leizeetan hibernatzen du. Gaez aritzen da. Udazkenean ernaldu eta kumeak udaberrian jaiotzen dira. Urtean behin kume bakarra izan ohi du, eta hori dela eta, espeziea oso zaurgarria da. Gazteak bigarren urtean hasten dira ugaltzen. 13 urtera irits daitezke, baina batez beste, bizitza askoz ere motzagoa dute. Umatze-babeslekutik hibernazio-babeslekuraino 5-10 kilometro egiten ditu, baina Europan ezagutzen den ibilbide luzeena 153 kilometrokoa da. Batez ere diptero nematozeoak, lepidopteroak, neuropteroak eta araknidoak jaten ditu, sarritan zuhaitz eta zuhaixken adarretan harrapatzen dituenak.

Oraindik ere espezie hau ikustea erraza izan arren, populazioak erregresioan daude. Zenbait leizetako koloniak berriki desagertu dira.

Populazioak behera egiten ari dira, gizakia etengabe ari baita erabiltzen dituen babeslekuetatik atera nahian.

Espezie hau kontserbatzeko beharrezkoa da saguzarrak koloniak eratzeko erabiltzen dituen tokiak babestea, gizakiaren esku-hartzea ekidinez. Horrez gain, umatze-garaian zaharberritze-lanak saihestu behar dira. Eguerraren kontserbazio-tratamenduak egiteko ere kolonia hauen jarduera kontuan hartu behar da.



Geoffroy saguzarra

Murciélago de oreja partida

Myotis emarginata

Ugaztun txikia da, 7 eta 12 gramo bitartekoa. Besaurrea 36 eta 42 milimetro bitartekoa da. Bizkarraldea arre gorrixka da, eta sabelaldea argiagoa. Belarri luzeak ditu, eta atzealdean arraila nabarmena dute.

Europako hegoaldean bizi da, Iran eta Afrikako iparralderaino, hain zuzen. Gure lurraldean, batez ere isurialde atlantikoko mendialdean eta kostalde osoan bizi da. Populazioak egoiliarak dira.

Itsasoaren maila eta 1.000 metroko altuera bitartean bizi da, eta leize epeletan eratzen ditu umatze-koloniak. Gauez aritzen da. Udazkenean ernalduta kumeak udaberrian jaiotzen dira. Eme bakoitzak kume bakarra izan ohi du. Bi urte pasa behar dira gazteak ugaltzen hasi arte. Espezie koloniala da eta 200 eme biltzera iristen dira umatze-kolonietan. Sedentarioa bada ere, 40 kilometrotik beherako lekualdaketak egiten dituztela ikusi da; ezagutzen den lekualdaketa luzeena 106 km-koa da. Hegan egiten ez duten intsektu eta artropodoak jaten ditu, batez ere araknidoak eta lepidopteroen larbak, bai eta egunez aritzen diren beste intsektu batzuk ere. Horrek esan nahi du landareen artean atzematen dituela harrapakinak.

Badirudi gure lurraldean populazioa oso txikia dela, eta erregresioan dagoela.

Atzerakadaren eragileak dira umatze-koloniak pairatzen dituzten eragozpenak, batez ere leizeak bisitatzen dituztenek eragindakoak. Halaber, egurra kontserbatzeko tratamenduak oso kaltegarriak dira eraikinetan bizi diren kolonientzat.

Espezie hau kontserbatzeko beharrezkoa da saguzarrak koloniak osatzeko erabiltzen dituen leizeak babestea, batez ere umatze-garaian, bisitarien sarrera erregulatuz. Halaber, populazioen bilakaera eta baldintza ekologikoak aztertu behar dira, arazo zehatzak ezagutu ostean babes-neurri berriak hartu ahal izateko.



Saguzar arratoi-belarri txikia

Murciélago ratonero mediano

Myotis blythii

Ugaztun txikia da, 12 eta 30 gramo bitartekoa. Besaurrea 54 eta 60 milimetro bitartekoa da. Bizkarraldea marroi-gorrixka da, eta sabelaldea zuri grisaxka. Belarri luzeak ditu.

Banaketa zabala duen espeziea da, Europan zirkunmediterraneoan da, eta Asia eta Afrikako iparralderaino iristen da. Gure lurraldean animalia honen hezurak bakarrik aurkitu dira Gorbeian eta Aizkorrin, hain zuzen ere. Inguruko lurraldeetako datuen arabera, egoiliarrak dira populazioak.

Animalia hau Mediterraneoaren eragina duten edo egutera dauden lekuetan bizi da. Babeslekuak dituzte giza kokalekuetan edo kare-harrizko guneeetan. Gauez aritzen da eta koloniak eratzen ditu. Izan ere, ehunka eme biltzen dira umatze-kolonietan. Neguan, aldiz, talde txikietan edo bakarka bizi dira. Udazkenean ernaldutako kumeak udaberrian jaiotzen dira. Eme bakoitzak kume bakarra izan ohi du. Espezie migratzailea da, eta 600 kilometrorainoko tokialdaketak ezaizuten dira Iberiar Penintsulan. Batez ere koleopteroak eta ortoopteroak jaten ditu.

Badirudi gure lurraldeko populazioa oso txikia dela. Ez dakigu zein den populazioaren joera, baina beste toki batzuetan erregresio nabarmena aipatu da.

Beste lurraldeetako populazioen atzerakadaren eragile nagusiak dira animalia honek babeslekuetan pairatzen dituen eragozpenak.

Espezie hau kontserbatzeko neurriak espeziearen egoera eta arazo zehatzak ezaizutu ostean hartu behar dira.



Saguzar ipar-belarrihandia

Murciélago orejudo dorado

Plecotus auritus

Ugaztun txikia da, 5 eta 15 gramo bitartekoa. Besaurrea 34 eta 41 milimetro bitartekoa da. Bizkarraldea arre grisaxka da, eta sabelaldea zurixka. Belarri luzeak ditu eta oinaldean elkarri lotuta daude.

Asian eta Europan banaketa zabala duen espeziea da. Europako penintsuletako hegoaldean eta iparraldeko eskualdeetan, ordea, ez dago. Gure lurraldean, mendialdean eta kostaldean bizi da. Populazioak egoiliarak dira.

Basoko espeziea da, itsasoko maila eta 1.000 metroko altuera bitartean bizi dena, batez ere zuhaitz hostogalkorren artean. Zuhaitzetako zuloetan eratzen ditu koloniak. Gauez aritzen da. Umatze-kolonietan, emeak arren-gandik banandu eta talde txikiak osatzen dituzte. Udazkenean ernaltzen dira eta kumeak ekaina edo uztaila aldera jaiotzen dira. Eme bakoitzak kume bakarra izaten du, eta inoiz ere bi izan ohi ditu. Gazteak bigarren edo hirugarren urtean hasten dira ugaltzen. Bost edo sei urte bizi dira. Espezie sedentarioa izan arren, batzuetan kilometro gutxi batzuk egiten ditu umatze-koloniatik hibernazio-babeslekuraino. Europan ezagutzen den tokialdaketa luzeena 42 km-koa da. Lurrean edo adarretan atzematen dituen lepidoptero, diptero eta koleopteroak jaten ditu. Sarritan harrapakina eko-lokalizatu behar izan gabe atzematen du, hark igorritako soinuari jarraitzen baitio.

Jasotako datuen arabera, badirudi gutxi daudela gure lurraldean, eta ez dakigu zein den populazioaren joera.

Atzerakadaren eragileen artean, azpimarratzekoa da egurra kontserbatzeko eta basoetako izurrien kontrako tratamenduetan erabiltzen diren produktu kimikoen eta pestiziden eragin kaltegarria. Halaber, aipagarria da zuhaitzetan ez dela ia babeslekurik geratzen, hau da, zuhaitz zahar gutxi geratzen direla.

Espezie hau kontserbatzeko komenigarria izango litzateke zuhaitz zaharrak ez kentzea, eta errutegi artifizialak jartzea koloniak bertan geratzeko edo bertara joatea bultzatzeko, batez ere zuhaitz-landaketa gazteetan. Bestelako babes-neurriak hartzeko, alde zehatzetik populazioen egoera eta arazo zehatzak ezagutu behar dira.



Schreibers saguzarra

Murciélago de cueva

Miniopterus schreibersii

Ugaztun txikia da, 12 eta 25 gramo bitartekoa. Besaurrea 42 eta 48 milimetro bitartekoa da. Bizkarralde arren-grisa da, eta sabelaldea argiagoa. Nabarmena da daukan buru konkortua, eta horri esker, ez dago beste batekin nahasterik. Hego luze eta meheak ditu. Belarriak oso motzak dira.

Mundu osoan banaketa zabala duen espeziea da: Europan, Afrikako iparraldean, Asian, Japonian, Ginea Berrian eta Australian bizi da. Gure lurraldean, altuera gutxiko eskualde karstikoetan bizi da. Migratzailea da.

Leize handietan bizi da, eragin ozeanikoak klima-ezaugarriak leuntzen dituen tokietan. Gauez aritzen da, eta koloniak osatzen ditu ugaltzeko nahiz hibernatzeko garaian. Gazteak taldeka elkartzen dira emeengandik bereizita, eta dirudienez, edozein emek elikatzen ditu. Udazkenean paretatzen dira, eta kumeak udaberri amaieran jaiotzen dira. Eme bakoitzak urtean kume bakarra izan ohi du. 14 urtera iritsi den kasu bat ezagutzen da, baina batez beste bizitza askoz laburragoa da. Jarduera-gunea leizea izanik, 100 km-erainoko hegadak egin ditzake jaki bila. Lepidopteroak, dipteroak eta koleopteroak jaten ditu, bere hegaldi azkarrean atzematen dituenak.

Populazioen tamaina zein den ez badakigu ere, argi dago urritzen ari dela, garai batean ageri zen zenbait leizetatik desagertu egin baita.

Populazioen erregresioaren eragileak dira gizakiak kolonietan eta babeslekuetan eragindako eragozpenak, umatze- zein hibernazio-garaian, saguzarrek babesleku horiek uztea eragiten baitute.

Espezie hau kontserbatzeko beharrezkoa da saguzarrak koloniak osatzeko erabiltzen dituen leizeak babestea, bisitarien sarrera erregulatuz, batez ere umatze-garaian. Halaber, populazioen bilakaera eta baldintza ekologikoak aztertu behar dira, arazo zehatzak ezagutu ostean babes-neurri egokiak hartu ahal izateko.



Muxar grisa

Lirón gris

Glis glis

Ugaztun txikia da, gorputza 19 cm-rainokoa eta buztana 15 cm-rainokoa izan dezake. Begi irten handiak ditu, eta inguruan marra beltz mehea dauka. Buztana ile luze ugarik trinkoki estaltzen dute. Bizkarraldea grisa du, eta sabelaldea zuria.

Banaketa palearktikoaren duen espeziea da. European, banaketa zabala dauka, eta Iberiar Penintsularen iparralderaino iristen da. Gure lurraldean, zuhaitz hostogalkorren banaketa-arearekin bat egiten du; beraz, ez da ageri ez Mediterraneo aldean, eta ez laborantza-zona baxuetan eta bestelako ustiapenetan.

Batez ere zuhaitz hostogalkorren basoetan bizi da, harizti eta pagadietan, batik bat. Haitzetan eta baso barruan dauden bordetan ere bizi da. Gauzez aritzen da eta ia bakarrik arborikola da. Zuhaitzen enborretako edo haitzetako zirrikituetan egiten du neguko loaldia, belarrez edo goroldioz eginiko habian, eta horretarako gorputzean gantz ugari metatzen du. Uztaillean ernaltzen dira, eta emeak bi eta bederatzi kume bitartean izaten ditu irailean. Ezkurak, pagatzak, hurrak eta beste fruitu batzuk jaten ditu, bai eta artropodoak ere.

Ez dakigu populazioaren tamaina zein den, baina ale-kopurua aldakorra da, eskuragarri dauden baso-fruituen arabera. Halaber, pagadi batzuetako populazioek ale-kopuru mugatua izan dezakete babesleku egokirik ez dutelako. Litekeena da azken urteetan zenbait basotako populazioek ere behera egin izatea.

Egungo baso-ustiapena da erregresioaren eragile nagusia, sistema horrek bultzatzen baitu basoetako espezie laguntzaileak kendu eta begi gutxi eta enbor zuzena duten zuhaitzak haztea. Ondorioz, Muxar grisa baso-uztarik gabeko urteetan fruitu osagarriarik eta gordelekurik gabe geratzen da.

Espezie hau kontserbatzeko, beharrezkoa da leku batzuetan zurgintzarako balio ez duten baso-espezie batzuk eta zenbait zuhaitz zahar errespetatuko dituen baso-ustiapena egitea.





Espezie
bakanak



Kolaka

Sábaló

Alosa alosa

Arrain fusiformea da, 40 cm-rainokoa. Bizkarraldean, berde-urdinxka dena, hegats bakarra du. Sabelaldea zilar-kolorekoa da, eta ez da antzematen alboko marrarik. Operkuluaren gainean 1-5 orban biribil ilun ditu, eta ezaugarri horrek espeziea bereizteko balio du.


Kostalde atlantikoan zehar ageri da, Norvegiatik Marokoraino, Britainia Handia eta mendebaldeko Mediterraneoa barne. Gure lurraldean, Gipuzkoako ipar-ekialdean bakarrik ikusi da, Bidasoa ibaian.

Espezie hau itsasoan bizi da, eta ibaietan gora joaten da ugaltzera, ur gezatan ugaltzen baita. Helduak udaberrian sartzen dira: ibaian gora joaten dira ibaiaren erdialderaino, eta uharriak eta hareak dagoen lekuetan erruten dute. Ibaiaren erdialdeko edo behealdeko putzu eta urloetan denbora-tarte laburrean egon daitezke. Udazkenean, arrainkumeek itsasora migratzen dute, eta han bizi dira hirugarren urtera arte, hau da, sexu-heldutasuna lortu arte. Orduan, berriro ekingo diote ugalketa-zikloari. Itsasoa bizi diren bitartean ornogabeak jaten dituzte, batez ere krustazeoak. Ibaian, ordea, ez dute ezer jaten, eta metatutako erreserbez baliatzen dira.

Bidasoan ohiko animalia da, baina ez da oso ugaria. Urtero ageri dira helduak ibaian, eta ez da populazioaren gainbeherarik antzeman; areago, badirudi azkeneko urteetan gora egin duela. Dena den, dirudienek behiala oso ugaria izan zen gure kostaldeetako ibai guztietan, eta, egun, murriztu egin da espezie honen banaketa-areak. Badirudi uren kutsadurak eragin zuela hain beherakada handia.

Espezie honentzako arrisku-faktore larrienak honako hauek dira: izokin-bide gutxi dago presetatik gora joateko; eta horrez gain, erruteko tokiak hondatzen ari dira, urak kutsatzeaz gain, agregakinak atera eta ibaiertzak eraldatzen direlako. Bestalde, Bidasoan Atlantikoko izokinaren populazioa hobetzeko programari ekin diote; eta programa horrek kolakari ere mesede egiten dio.

Etorkizunean Bidasoaren eta beste hainbat ibaien behealdeko uraren kalitatea hobetu, ibaiertzak zaindu, eta presetan eskailera egokiak egiten dituztenean, arrain honen egoerak hobera egingo du.



Uhandre alpetarra

Tritón alpino

Triturus alpestris

Tamaina ertaina duen urodeloa da, 10 cm-rainokoa. Isatsa, gorputza —burua barne— bezain luzea da. Isatsa aldeetatik zanpatua da. Uretan bizi den garaian azala leuna dauka, eta lehorrean bizi denean, berriz, pikortsua eta zakarra. Esku eta hanketako hatzak aske ditu. Bizkarraldea gris urdinxka da. Araldian arrek gandor hori argi txikia dute, orban urdinak dituen; eta gorputzaren bi aldeetan beltzez erretikulatuta eta zero-urdinez inguratuta dagoen marra zuri-horixka daukate. Sabelaldea laranja da.

Espezie europarra da, eta populazio bakartuetan bizi da Erdialdeko Europako eta Iberiar Penintsulako iparraldeko mendikate handien gailurrean. Gure lurraldean, erdialdean eremu zabalean ageri da: Ordunteko mendietan, Salbada mendilerroan, Gorbeian, Durangaldean eta Urkilla, Aralar eta Izkiz mendilerroetan. Ia mendialdean bakarrik bizi da, eta mendilerroetako populazioen artean ez dago segidarik.

Espezie menditarra denez, pagadi eta larre menditarretan bizi da, korronte txikia duten ibaietako putzu txikietan edo ur bareetan, landaredia dutenetan edo ez dutenetan, azaleko uretan nahiz ur sakonetan. Substratu harritsua nahiago du. Gauez aritzen da, eta batez ere urtarra da. Udaberrian urmaeletara joaten da ugaltzera. Eztei-geldialdiak egiten ditu, eta arrak espermatoforoa egotzi ostean, emeak arrautzak ernaldu eta uretako landareen zurtoinei eta hosto txikiei bakarka itsatsita erruten ditu. Larbak hiru hilabetez izaten dira uretan, eta metamorfosia egin ondoren lehorreara ateratzen da. Orduan 4-5 cm-koa da. Helduak ur-harrapakinak jaten ditu: krustazeoak, intsektu-larbak, zapaburu txikiak etab. Lehorreko harrapakinak ere atzematen dituzte, lur-zizareak eta moluskuak, adibidez. Larbek, krustazeoak eta moluskuak jaten dituzte.

Lurralde batetik bestera aldatzen da populazioen egoera. Batzuek ale gutxi dituzte, eta beste batzuk, ordea, ugariak dira. Badirudi egoera egonkorra dela, baina menditik gero eta ur gehiago hartzen da, eta horrek habitat egokiak hondatzen ditu, eta populazioak kaltetzea eragin dezake.

Espezie honen arrisku-faktoreen artean aipagarria da putzu eta istil asko makinak erabiliz garbitzen eta suntsitzen ari direla. Horrek ugaltzeko habitat egokiak suntsitu eta populazioen banaketa-area murrizten du.

Espezie hau kontserbatzeko mendialdeko urmael eta istil txikiak babestu behar dira, ondorio kaltegarriak eragin baititzake umatze-garaian garbitzeak edo lehorteak. Isurketak eta kutsadura ere ekidin behar dira. Zenbaitetan ardien parasitoak hiltzeko erabiltzen diren produktuak isurtzen dira.



Apo pintatua

Sapillo pintojo ibérico

Discoglossus galganoi

Zazpi cm luze izatera irits daitekeen anuroa. Mehea denez, igelaren antza du. Burua txikia eta muturra zorrotza. Begi irtenak ditu, guruin parotidarik gabekoak. Eskuko hatzak askeak dira, eta hankakoak mintz mehe batez lotuta izaten ditu, arren kasuan bakarrik. Azala leuna eta distiratsua, sabelaldean pittin bat erretikulatua. Kolore desberdinetakoak daude, tartean pikardatuak, marradunak. Dena den, hori, marroi eta oliba-kolorekoak izaten dira hegien batez.

Europan bizi da, batez ere Frantzian eta Iberiar Penintsulan. Gure lurraldean, isurki mediterraneoan aurki daiteke. Dena den, nahiko sakabana-tuta dago.

Basoko pinudietan, sorobelardietan, laborantzetan, lugorrian edota sastrakan bizi da, uretatik hurbil beti. Lehortarra izan arren, ez da uretatik gehiegi urruntzen. Hori dela eta, urtegi, errekatxo eta erreten ertzetan egoten da. Ilunabarrean eta gauean aritzen da. Udaberrian ugaltzen da, eta emeek bi aldiz errun dezakete (300 eta 1.000 arrautza bitarteko errunaldiak). Arrautzak sakabanatuta uzten dituzte. Bi hilabeteren buruan gauzaten da larben metamorfosia. Apo gazteek zentimetro bat besterik ez dute neurtzen uretatik ateratzen direnean. Denetik jaten dute: helduek lur-ziza-reak, moluskuak, araknidoak eta intsektuak; larbek, berriz, landareak.

Ale gutxi ikusi direla eta, badirudi populazioak txikiak direla. Daturik ez dagoenez, zaila da esatea egoera egonkorra den ala ez.

Egoera zehatza ezagutzen ez bada ere, esan beharra dago apo honek erabiltzen dituen ur-masak hondatu eta desagerrarazteak bere banaketa-zona murrizten duela. Ingurunearen kalitatea ere hondatzen ari da, hezeguneak desagertzearen eta baliabide trofikoaren murrizketaren eraginez, eta honek espeziearen atzerakada eragiten du penintsulako beste zona batzuetan.

Apo honek okupatzen dituen ur-masetan gutxieneko emaria bermatu behar da, bai eta ertzetako landaredia ere. Halaber, pestizida isuriak ekidin behar dira. Espeziearen egoera eta problematika zehatza ezagutu ostean hartu beharko dira bestelako babes neurriak.



Txilinporta txikia **Zampullín Común** *Tachybaptus ruficollis*

Ur-hegazti txikia da, 25 eta 29 cm bitartekoa. Potxolo samarra da, eta ez zaio isatsa ia ikusten. Eztei-garaian arre ilunak dira; eta nabarmenak dira aurpegia eta lepoa, gaztaina-kolorekoak direnak. Gorputzaren alboak argiagoak dira. Mokoaren oinaldean orban horixka du. Neguan kolore motelagoa izaten du, kolore arre hitsak dira nagusi, eta eztarria eta popa zu-riak nabarmentzen dira bakarrik.

Gure lurraldean, Arabako hezegune gehienetan bizi da, bai urtegi eta ureztatze-urmaeletan, eta bai hezegune naturaletan; neurri txikiago batean, ibaiaren ur geldietan ageri da. Isurialde atlantikoan, ordea, oso urria da. Bi tokitan bakarrik behatu dira eskualde horretan. Hegazti egoiliarra da, eta neguan Europako aleak etortzen dira, eta itsasertzean ere ikus daitezke.

Ur geldi eta ez oso sakonetan bizi da, zingiretako landareak eta landa-
rerik gabeko aldeak dituzten urloetan, naturalak nahiz artifizialak izan. Hala ere, ez da lezka eta ihi gehiegi dagoen lekuetan ageri. Txitaldi-garai-
tik kanpo, badia eta estuarioetan ere egoten da. Igerilari eta murgilari ona da; izan ere, zenbait minututako murgilaldiak egin ditzake. Hegaldi luzeak ere egiten ditu. Ur-ertzetako landareen artean egiten du habia, uretako lan-
dareak erabiliz, ur-gaineko plataforma balitz bezala. Errunaldiak hiru eta bost arrautza bitartekoak dira, eta urtean behin edo bitan jartzen ditu; gu-
raso biek berotzen dituzte arrautzak. Urpean elikatzen da, eta arrainak, an-
fibioak, anfibio-larbak, artropodoak, krustazeoak, moluskuak eta zenbait landare jaten ditu.

Arabian, azken urteetan 35 bikote inguruk egiten dute habia, baina ko-
purua aldakorra da; isurialde atlantikoan populazioa sei bikotetik behera-
koa da. Ez dakigu zein den populazioaren joera, baina badirudi ugaltzera-
koan gora-behera handiak pairatzen dituela umatze-toki eskuragarrien eta
ur-mailaren aldaketen arabera.

Esan beharra dago espezie hau umatze-garaian oso sentikorra dela gi-
zakiak eragindako eragozpenen aurrean eta bat-bateko ur-mailen aldake-
ten aurrean. Halaber, bestelako faktore mugatzaileak dira lehorketak, dra-
gatzeak edota landareak erretzeak, habitata hondatu eta eraldatzen baitute.

Espezie hau kontserbatzeko, oro har, hezegune guztiak babestu behar
dira, batez ere umatze-areak, eta hezegune artifizialetan finka daitezen
neurri egokiak hartu behar dira.



Ekaitz-txori txikia

Paíño Europeo

Hydrobates pelagicus

Itsas hegazti txikia da, 20 cm-tik beherakoa. Iluna da, ia beltza. Ipur-txuntxurra zuri nabarmena dauka. Hegoen azpialdean orban argia du, eta gainaldean barra zurixka mehe eta lausotua dauka. Hankak eta oinak beltzak dira. Isatsa nahiko laukia da.

Banaketa atlantikoa duen hegaztia da, Islandiatik Kanariar Uhartetara bitartean bizi dena. Gure lurraldean bost kolonia ezagutzen dira, guztiak Bizkaiko kostaldean. Espeziea egoiliarra da.

Gehien bat itsaso zabalean bizi da, plataforma kontinentalean, eta habia egiteko bakarrik hurbiltzen da lehorra. Orduan, itsaslabarretako edo irla txikietako horma, zulo eta zirrikietan egoten da, harrapariak ezin heldu diren lekuetan, hain zuzen. Koloniak osatzen ditu. Hegada zuzena du, uraren arrasean egiten du, eta bizkor astintzen ditu hegoak. Igerilari ona da. Arrautza bakarra errun ohi du. Krustazeoak, zefalopodoak eta arrain txikiak jaten ditu, ur-azalean harrapatzen dituenak. Arrantza-ontzien atzetik joaten da, ontzitik botatzen dituzten janari-hondarren bila.

Uste denez, ehun bikote ugaltzaile inguru daude, eta guztira, populazioa 200 ale ingurukoa da. Dena den, ez dago datu zehatzik joera zein den jakiteko. Duela gutxi egiaztatu da populazio honen habiak egitearen inguruko informazioa.

Atzerakada hainbat faktorek eragin dute: jaki-eskasiak bikote ugaltzaileen kopurua murrizten du. Halaber, arratoi eta kaioen harrapaketa-presio handiak, eta poluitzaile kimikoen edo hondakin toxikoen eraginak ere populazioa murrizten dute. Bestalde, espezie honen filopatria-maila handiak —kolonia ugaltzailea toki jakin batean finkatzen dute— hegaztia hedatzea oztopatzen du, eta kolonia txikien kasuan, gurea esaterako, animalia desagertzea errazagoa da.

Beharrezkoa da populazioaren egoera eta bilakaera ezagutzea, ondoren, babes-neurri egokiak hartzeko. Dena den, komenigarria litzateke mugatzea umatze-guneetan bisitariak sartzea, bai eta inguruan ontziak amarratzea ere. Beharrezkoa da ere uretako hondakinekin bukatzea.



Ubarroi mottoduna Cormorán Moñudo *Phalacrocorax aristotelis*

Hegazti handia da, 80 cm-rainokoa. Gorputz liraina du, beltza da eta irisazio eta isla oliba edo purpurak ditu. Eztei-garaian gandor txikia du. Moko beltza du, oinaldean horia dena.

Banaketa atlantikoa duen hegaztia da: Islandian, Britainia Handian eta Norvegiako itsasertzeetan bizi da, bai eta Iberiar Penintsulako kostatikoan ere. Gure lurraldean, Bizkaiko kostaldeko sei zonaldetan egiten ditu habiak.

Itsasertz harritsueta bizi da, eta ez da inoiz estuarioetan edota babes-turik dauden tokietan ageri, ezta ur gazikara edo gezatan ere. Igerilari eta murgilari bikaina da, eta zuzen eta altuera txikian egiten du hegana. Haitzetako pausalekuetan, zuhaitzetan eta hondartzetan hartu ohi du atseden, normalean hegoak zabalik dituela, agian lumak lehortzeko. Itsaslabarretan egiten du habia, koloniak osatuz, erlaintzetan eta zirrikitueta, baita leizeetan ere. Algak eta adarrak erabiltzen ditu habia egiteko. Urtean behin 1-6 arrautza —gehienetan hiru— erruten ditu, guraso biek berotzen dituztenak. Bakarka nahiz talde txikietan elikatzen da, gehien bat arrainez. Dena den, moluskuak eta krustazeoak ere jaten ditu.

Uste denez, populazio ugaltzailea 108 bikote ingurukoa da. Badirudi azken urteetan izan ezik, populazioak erregresio-joera izan duela. Gipuzkoan, esaterako, habiak egiten zituzten behiala. Egun, ordea, populazioa handitzen eta hedatzen ari da. Horren lekuko dira, orain bi urte finkatutako bi kolonia berriak.

Espezie honen arrisku handienak dira txitaldia egiteko garaian topatzen dituen eragozpenak eta tresmailaren bidez ustekabeen harrapatzen dituztela.

Espezie hau kontserbatzeko umatze-koloniek behar duten lasaitasuna bermatu behar da. Horretarako, bisitariak sartzea eta toki horiek erabiltzea ekidin behar da. Halaber, populazio ugaltzaileen jarraipena egin behar da bestelako neurriak hartu ahal izateko.



Amiltxori txikia

Avetorillo Común

Ixobrychus minutus

Ardeido ertaina da, 40 cm-tik beherakoa. Ar helduen kolorazioa benetan ikusgarria da: beltza da, lepoa eta sabelaldea izan ezik, arre argiak direnak. Estal-lumak zurixkak dira, eta orban handia daukate. Moko hori berdexka da, eta hankak berdeak dira. Emearen jantzia ez da hain ikusgarria.

Mundu osoan banaketa zabala duen hegaztia da: Eurasian, Afrikan eta Australian bizi da. Gure lurraldean ezaugarri ekologiko egokiak dituen edozein lekutan ager daiteke, migratzailea baita. Umatze-garaian, berriz, datu gutxi jaso dira, baina Arabako hego eta erdialdeko ibaietan ikusi da gehien bat. Bertan, udako hegaztia da, ez du ia migratzen eta habia gutxitan egiten du.

Oro har, hezeguneetan eta ibaiertzetan bizi da, lezka bezalako makrofito ugari dagoen tokietan, batez ere zuhaitz eta zuhaixkak daudenean. Hegazti bakartia da, iheskorra; landareen artean ezkutatzen da, eta trebetasun handiz ibil daiteke bertatik. Ilunabarrean aritzen da. Urbazterraren inguruan egiten du habia, zuhaitz edo lezka artean. 4-6 arrautza erruten ditu. Denetik jaten du: arrainak, anfibioak, moluskuak, artropodoak eta abar. Lehorrean nahiz ur ez oso sakonetan harrapatzen du jakia.

Kasurik onenean, Araban bikote ugaltzaile barreiatu bat edo beste dago. Ez dakigu zein den populazioaren joera, baina ezaguna da populazioa mendebaldeko Palearktiko osoan, Iberiar Penintsula barne, pairatzen ari den erregresio nabarmena.

Bere banaketa mugatzen duten faktore nagusiak biogeografikoak dira. Gure lurraldean, berez hezegune gutxi izatea eta ibai nagusietako bazterrak dauden bezain hondatuta egotea ez dira batere lagungarriak espeziea bertan finkatzeko. European, ezagutzen diren populazioak ere urritzen ari dira, honako faktore hauen eraginez: hezeguneak hondatzea, ur-kutsadura eta migrazioan zehar eta negualdietarako guneeetan izaten den heriotza-tasa handia.

Populazioaren egoera aztertu ostean babes-neurri egokiak hartu ahal izango dira. Dena den, hegazti honek erabiltzen duen ingurunea babestu behar da, ibai nagusien urbazterretako habitata eta ur-kalitatea hobetu behar dira, alegia.



Amiltxori arrunta

Martinete Común

Nycticorax nycticorax

Hegazti handia, 70 cm-rainokoa. Pileoa, garondoa eta bizkarraldea beltzak dira. Hegoak, ipurtxuntxurra eta isatsa gris-urdinxkak dira. Gorputzaren gainerako zatiak zurixkak dira. Mokoa beltza eta motza da. Hankak horixkak dira. Gazteen lumajea arrea da, eta orban zuri asko ditu.

Espezie kosmopolita da, eta umatze-garaian gure lurraldera etortzen da. Batez ere Ebro ibaian ageri da, baina lurraldeko beste zenbait tokitako datu bakan batzuk ere badaude. Udako espeziea da, oso gutxitan migrazen du, eta litekeena da gure lurraldean habia egitea.

Inguruan zuhaitz edo zuhaixkak dituzten ur kontinentaletan egoten da. Taldekoia da, eta ilunabarrean aritzen da. Hegalari eta igerilari ona da, eta trebea da lurrean nahiz landareen artean. Koloniak osatzen ditu habia egiteko. Zingiretako landare ugari dagoen lekuetan egiten du habia, landare eta adarrak erabiliz. Urtean behin 3-5 arrautza errun ohi ditu. Batzuetan taldeka elikatzen da, beste batzuetan bakarka. Ur-animaliak jaten ditu gehien bat, besteak beste, arrainak, anfibioak, artropodoak edo moluskuak. Batzuetan espezie lehortarrak ere harrapatzen ditu, ugaztun txikiak, esaterako.

Gure lurraldean ale bakan batzuk ikusten dira hainbat hezegune-motetan: urtegi, urmael eta urbazterretan; baina batez ere Ebro ibaian eta Arabako Errioxan. Ez dakigu hemen ugaltzen diren, baina hori horrela izanez gero, gutxi dira habia egiten dutenak. Ez dago populazioaren joerari buruzko daturik, baina kolonia hurbilena, Nafarroakoa, gora egiten ari da modu nabarmenean. Europako beste populazio batzuk, ordea, urritzen ari dira.

Populazio hauentzako arrisku-faktore handia da Ebro ibaiak Araban dituen ibaiertzak hondatuta egotea, bertan espezie honek nekez egingo baitu habia. Europa mailan, berriz, kalte handiena eragiten die umatzeko eta janaria bilatzeko lekuak hondatzeak.

Populazioen egoera ezagutu ostean hartu ahal izango dira beharrezko babes-neurriak; hala ere, badakigu hegazti honek behar duen ingurunea zaindu egin behar dela, bereziki ibai nagusien ibaiertzeko habitatak eta uren kalitatea.



Lertxun gorria

Garza Imperial

Ardea purpurea

Hegazti handia da, ia metro batekoa. Lepoa eta burua gaztaina-kolorekoak dira. Txanoan eta lepoan bi zerrenda beltz ditu, gandor esekia balitz bezala luzatzen direnak. Arbel-kolorekoak dira estal-lumak, bai eta bizkarraldea ere; sorbaldako lumak gaztaina-kolorekoak dira. Hegalak oso ilunak dira azpialdetik. Gorputzaren azpialdea gaztain-kolore iluna da. Moko horikara du, eta hanka arreak ditu.

Hegazti hau Europako hegoaldean bizi da, eta udakoa eta migratzailea da, Saharaz bestaldeko Afrikan negutzen duena. Gure lurraldean kostaldeguruan, Arabako urtegiengan eta Arabako Errioxan ageri dira migrazio-garaian. Hain zuzen ere, Ebro ibaian eta Guardiako hezeguneetan ikusten da. Duela gutxi egiaztatu da bikote batek Araban egiten duela habia.

Migratzen ari denean, ezaugarri desberdinetako hezeguneetan ager daiteke, baina umatze-garaian habitat zehatzagoak behar ditu hegazti honek: hezegune epel edo beroetan egiten ditu habiak, ur gezatan gehien bat, lezka ugari hazten den ur ez oso sakonetan. Iheskorra da, eta ez da toki zabaletan gehiegi ageri, zingiretako landaredi trinkoa nahiago duelako. Ilunabarrean aritzen da. Habia egiteko koloniak eratzen ditu, eta lezka arruntan eta zuhaitzen artean jartzen du ur landarez eta adarrez eginiko habia. Urtean behin lau eta sei arrautza bitartean erruten ditu. Ur-espezieak jaten ditu, arrainak batez ere. Zelatan egoten da edo ibitik ibiltzen da harrapakinak atzemateko.

Azken urteetan gainbehera orokorra izan du Europako populazioak, baina Iberiar Penintsulan egoera leku batetik bestera aldatzen da. Nafarroan, esaterako, izugarri hazi da populazioa.

Habia egiteko ia toki egokirik ez dagoenez, zaila da hegaztiarentzat hemen finkatzea. Atzerakadaren eragile nagusiak dira umatzeko nahiz negua pasatzeko guneak galdu eta hondatzea. Horrez gain, ugaltzeko toki egokiak izango liratekeen lekuetan ez dago egon beharko litzatekeen la-saitasuna.

Espezie hau kontserbatu eta hobetzeko komenigarria izango litzateke Guardiako El Prado aintzira Biotopo Babestuan sartzen den bisitari-kopurua erregulatzea, espezieari bertan finkatzen eta umatzen laguntzeko.



Amiamoko beltza

Cigüeña Negra

Ciconia nigra

Hegazti handia da, metro baterainokoa. Beltza da eta isla purpurak ditu; azpialdea, berriz, zuria da. Mokoa, luzea eta ikusgarria, gorria da, bai eta hankak ere.

Mundu osoan banaketa zabala duen espeziea da, gehien bat Eurasian eta Afrikan. Gure lurraldean ikusten direnak Erdialdeko Europatik datozen migratzaileak dira. Kostaldean zehar eta Arabako urtegietan ageri da.

Migratzerakoan, urtegiak, ureztatze-putzuak, ibaiak edota istil txikiak erabiltzen ditu atseden hartzeko eta elikatzeko. Umatze-garaian, belardi hezeen edo area zingiratsuen inguruko baso helduetan egiten du habia. Hegazti bakartia bada ere, migrazioan talde txikiak eratzen ditu edo atseden-lekuetan biltzen dira. Nahiko herabea da gizakiaren aurrean, eta Amiamoko zuria baino zuhurragoa da. Urtean behin 2-5 arrautza erruten ditu. Habia handia egiten dute haitzetan edo zuhaitzetan, eta urtetik urtera habia bera erabiltzen dute. Denetik jaten du, besteak beste, animalia urtarrak eta lehortarrak.

Oso gutxi dira gure lurraldea zeharkatzen dutenak, edo indarrak hartzeko hemen gelditzen direnak. Inoiz edo behin berrogeita hamar ale inguru ikusi dira. Europan, kopurua pixkanaka goraka doa, baina oraindik gutxi dira.

Ez dirudi gure lurraldean migratzaile hauek egoteko arazorik egon daitekeenik. Erdialdeko Europan eta Iberian, berriz, badaude arrisku-faktoreak; umatzeko, elikatzeko eta elkartzeko guneetako habitatek pairatzen dituzten aldaketa eta eragozpenak dira, hain zuzen ere. Honez gain, Afrikan ehiza da arrisku handiena negua pasatzeko guneetan. Halaber, linea elektrikoen kontra jo eta hil egiten dira ale asko, eta beste asko kutsatu egiten dira, pestizidak dituzten harrapakinak jatean.



Amiamoko zuria

Cigüeña Blanca

Ciconia ciconia

Hegazti hau oso ezaguna da, eta ez du ia aurkezpenik behar. Handia da, metro batetik gorakoa. Zuria da, hegoen muturra izan ezik, luma primario eta sekundarioak beltzak baitituzte. Moko luzea eta hankak gorriak dira.

Palearktikoan zehar hedatzen den hegaztia da, udakoa eta migratzaileria. Saharaz bestaldeko Afrikan igarotzen du negua, bai eta Iberiar Penintsulako hainbat toki egokitan ere. Gure lurraldean, isurialde mediterraneoan ageri da, urtegitan, Zadorra eta Ebro ibaietan eta Guardiako aintziretan. Isurialde kantauriarrean, ostera, bikote bakarra ezagutzen da, Bizkaiko Orduña herrian, hain zuzen. Duela gutxi, Araban, beste bost bikote negutzen hasi dira.

Toki zabaletan bizi da, ibaiertz handietako soro eta larreetan, baratza eta sail ureztatueta, ez baititu gogoko zuhaitz gehiegi dituzten edo lehorregiak diren lekuak. Taldekoia da, elikatzeko nahiz habia egiteko, baina bikote bakartiak ere ikusi ohi dira. Denbora luzea igarotzen du geldirik, hanka baten gainean bada ere. Ibilera dotorea eta mantsoa dauka. Habia egiten du kanpandorreetan edo gailentzen den edozein eraikinetan, bai eta zuhaitz handietan ere, eta solasean entzuten zaio beti. Adarrez egina dagoen habia handia hainbat urtetan erabiltzen du. Urtean behin 2-7 arrautza erruten ditu. Denetik jaten du, besteak beste, harrapakin urtar eta lehortarrak.

Euskal Autonomia Erkidegoan 13 bikote ugaltzaile zenbatu dira orain arte. Iberiar populazioak guztira 16.000 bikote dauzka. Arabako populazioak erregresio bortitza izan zuen: 1948an 30 bikote zeuden eta 80ko hamarkadan habia bakar bat geratzen zen. Dena den, egun populazioa suspertzen ari da, iberiar populazio osoa bezala.

Herrialde askotan esan izan denez, populazioen erregresioa eragin dute umatze-guneak hondatu eta suntsitzeak. Horrez gain, migratzen eta negutzen duten bitartean asko ehizatzen dira, eta beste asko linea elektrikoaren kontra jotzean hiltzen dira.

Espezia berreskuratzea bultzatzeko, alde batetik nekazaritza-guneetako paisaiaren dibertsitatea gorde behar da, batez ere bazterretako eta heze-guneetako guneetan; eta bestetik, hegaztiak salbatzeko seinaleztapen-baliazak jarri behar dira linea elektrikoetan, eta habien inguruan edo hegaztiak biltzen diren lekuetan dauden zutoin arriskutsuak kendu behar dira.



Zapelaitz liztorjalea

Abejero Europeo

Pernis apivorus

Tamaina ertaina duen harraparia da, 60 cm-rainokoa. Lumak, banako batetik bestera kolore desberdinekoak dira. Arre kolorea da nagusi, bai eta kolore ilunak ere. Sabelaldean eta hegoen azpialdean, berriz, argiagoak dira lumak, eta zeharkako marrak dituzte. Lepoa eta burua grisaxkak eta nahiko irtenak dira. Aipatutako ezaugarriek, eta hegan egiterakoan hartzten duen itxurak, zapelaitz arruntarengandik bereizteko balio dute, Liztorjalearen isatsa luzeagoa baita. Irisa eta hankak horiak dira.

Europa osoan banaketa zabala duen espeziea da; izan ere, bere banaketa-area gehiena kontinente horretan dago. Gure lurraldean ere nahiko ugaria da, Arabako Errioxan izan ezik. Gehien bat isurialdeen banalerroko mendialdeetan eta eskualde subkantauriarrean bizi da. Udako espeziea da, udazkenean hegoalderantz migratzen duena.

Basoko espeziea da, baina basoak eta toki zabalak dituzten lekuak aukeratzen ditu. Zuhaitz hostozabalak dituzten basoak nahiago ditu, pagadiak eta hariztiak, hain zuzen. Hegalari eta planeatzaile ona da, eta lurrean ere nahiko trebea da. Zuhaitzetan egiten du habia, adarrak erabiliz. Urtean behin 1-3 arrautza errun ohi ditu. Hainbat harrapakin atzematen ditu, baina batez ere erleak eta liztorrak jaten ditu: eztia, larbak eta helduak, basotik kanpoko larreetan atzematen dituenak. Artropodo, ugaztun txiki, anfibio eta narrastiak ere jaten ditu.

Datu gutxi daude, baina badirudi Arabako iparraldean 35-40 bikote daudela.

Datu hauek estrapolatuz gero, pentsa liteke lurralde osoan 75-100 bikote daudela. Ez da erregresioan dagoen espezieztat hartzen, Europan egonkorra da, herrialde batzuetan behera egin badu ere.

Gure lurraldean ez dauka arrisku handirik, pestizidek ez baitute eragin handia izaten hegazti honen harrapakinengan. Baina habitat egokirik ez egoteak espezie hau ugariagoa izatea eragozten du. Alde batetik, espezie honentzat lehorregiak dira karraska nagusi den Arabako eskualdeak; eta bestetik, konifero-landaketek azalera handiak betetzen dituzte, eta horrek hegazia finkatzea oztopatzen du.

Espezie hau kontserbatzeko neurriak hartu behar dira hegaztiak behar duen ingurunean, eta horretarako habitat naturalak zaindu eta hobetu behar dira.



Arrano sugezalea

Culebrera Europea

Circaetus gallicus

Tamaina ertaineko harraparia da, 70 cm-rainokoa. Bizkarraldea arre iluna da; sabelaldea argiagoa da, eta tantoak eta marra arreak ditu. Isatsaren gainaldea arrea da, eta zeharkako marrak ditu; azpialdea ilunagoa da, eta marrak ere baditu. Eztarria eta bularra ilunak dira. Batzuek sabelaldea argiagoa dute. Burua handia da, eta limoi-koloreko begiak nabarmenak dira.

Espezie hau Indian eta Afrikan bizi da, eta Europan eskualde kontinentalean eta mediterraneoan baino ez da bizi. Gure lurraldean, Mediterraneoan isurialdean ageri da, baina mendialde subkantauriarak nahiago ditu, eta Kantabriako Mendikatean eta Kodesen ere nahiko arrunta da. Isurialde kantauriarrean, berriz, kostaldeko mendietan ikus daiteke, eta inoiz barnealdean ere bai. Udako migratzailea da, udazkenean Afrikarantz abiatzen dena.

Isurialde mediterraneoan, zuhaitzak eta gune zabalak txandaka dituzten eguterako mendialdeetan bizi da, eta oso arraroa da soro handietan agertzea. Halaber, arte eta pinu gorrien basoetan bizi da, betiere gune zabalak dituztenetan. Isurialde atlantikoan, berriz, otadiak landatu diren guneak eta baso zabalak txandaka dituzten lekuetan egoten da. Planeatzaile ona da. Izan ere, haizearen kontra geldirik egoten da harrapakinen gainean oldartzeko. Inoiz ere zelatan ehizatzen du. Animalia bakartia bada ere, migratzeko talde txikiak osatzen ditu. Zuhaitzen gainean egiten du habia adarrak erabiliz, eta barrutik estali egiten du. Urtean behin arrautza bakkarra erruten du. Gehien bat narrastiez elikatzen da, batez ere sugeez, baina ugaztun eta hegazti txikiak ere jaten ditu.

Uste denez, 50-60 bikote ugaltzaile inguru daude, eta badirudi ale-kopuruak pittin bat gora egin duela azken urteetan, batez ere Araban. Populazio nagusiak, iberiarra esaterako, egonkorak izan arren, espeziea erregresio handia pairatzen ari da Europan.

Atzerakadaren eragile nagusia lurzoruaren erabilera aldatzea da, hau da, sastrakak kentzea, pestizidak erabiltzea, monolaborantza egitea, basoberritzeak etab. Izan ere, aldaketa hauen ondorioz gero eta eremu txikiagoa dauka ehizatzeke. Basoak zeharkatzen dituzten errepideak eta mendietako pistek ere ondorio kaltegarriak eragiten dituzte umatze-guneetan, asaldatu egiten dituzte eta. Halaber, jazarpena eta linea elektrikoek eragindako heriotzak aipa daitezke arriskuen artean.

Espezie hau kontserbatzeko komenigarria izango litzateke hegazti honen habitat naturalak zaindu eta linea elektrikoak behar bezala seinaleztatzea.



Zingira-mirotza

Aguilucho Lagunero Occidental

Circus aeruginosus

Tamaina ertaineko harraparia da, metro erditik gorakoa. Arraren goialdea arrea da eta hegoak grisak ditu. Hegoen muturrak beltzak dira, eta barneko ertzak horixka argiak. Isatsa luzanga da, grisa, eta marra arre lausotu asko ditu. Sabelaldea arre-gorrixka da, eta ildaska ilunak ditu. Hegoak argiagoak dira, eta isatsa grisa da. Moko beltza eta hanka horiak ditu. Emeak, berriez, arreak dira, ilunagoak. Pileoa, eztarria, eta hegala barneko ertza krema-kolorekoak dira.

Mundu osoan banaketa zabala duen espeziea da, besteak beste Txinako ipar-mendebaldean, eta neguan Indian eta Afrikan. Gure lurraldean hegazti migratzailea da, baina batzuetan negua ere igarotzen du hemen. Talde txikitan sakabanatuta ikus daiteke Ulibarriko aintziran eta Txingudin.

Habia egiten du makrofitoak dituzten hezegune ez oso sakonetan. Altuera txikian egiten du hegan, hegoak astinduz edo planeatuz. Uretan edo lurrean harrapakina ikusten duenean, bizkorki erortzen zaio gainera. Zelatan ere egoten da harrapakinaren zain. Hegazti bakartia da, baina talde txikietan elkartzen da migratzerakoan. Lezkadi eta ihitokietan egiten du habia, landareez egina, lurrean edo uretik altuera txikira. Urtean behin lau edo bost arrautza errun ohi ditu. Denetik jaten du: artropodoak, anfibioak, narrastiak, hegaztiak eta txitoak; eta batzuetan sarraskia eta hildako arrainak ere bai.

Migrazio-garaian oso gutxi ikusten dira, eta ikusten direnak talde txikitan elkaturik daude. Duela gutxi egiaztatu zen Araban bost bat hegaztik igarotzen dutela negua. Badirudi gero eta gehiago direla migrazioan gure lurraldea zeharkatzen dutenak. Honek bat egiten du Europako populazioaren eboluzioarekin; izan ere, garai batean izan zuen gainbehera gainditu, eta azkeneko urteetan ugaritzen ari da.

Habitat egoki asko ez daudenez, migratzaile hauek ez dute denbora luzea igarotzen hemen. Espeziearen arrisku-faktore larrienak dira habiak egiteko habitatak hondatu eta suntsitzea, legez kanpo ehizatzea eta produktu fitosanitarioek eta metal astunek eragindako kutsadura; baita giza eragozpenak ere.

Espezie hau kontserbatzeko onuragarria izango da ingurunea zaintzea, batez ere hezeguneetako landareak kontserbatzea. Halaber, garrantzitsua da gizakiak eragiten dituen eragozpenak ekiditea, hegaztia finka dadin.



Aztorea

Azor Común

Accipiter gentilis

Harrapari ertaina da, 60 cm-tik gorakoa. Hegoak zabalak eta motzak dira, eta isatsa luzea da. Arraren bizkarralde grisaxka da, eta zerrenda superziliar zuria dauka. Sabelalde zurixka da, eta marra ugari ditu. Hegoak argiak dira, eta marra ilunak dituzte. Moko beltza dauka, eta hankak horiak dira. Emea arreagoa da, kolorea ez du hain kontrastatua.

Mundu osoan banaketa zabala duen espeziea da, European, Asian eta Ipar Amerikan. Gure lurraldean isurialdeen banalerroko mendizerretan bizi da: Salbada, Gorbeia, Urkiola eta Elgea-Urkila, eta Arabako eskualde subkantauriarrean. Kantauriko isurialdean ez da ia ageri, ez kostaldean ezta barnealdean ere.

Baso zabaletan bizi da, behar bezain lasaiak direnetan. Hala ere, nahiago ditu pagadiak, pinu gorriaren pinudiak eta harizti-ameztiak. Oso bizkorra da hegan egiten, batez ere basoan. Basotik kanpo, planeatze motzak egiten ditu. Zuhaitzen gainean egiten du habia, adarrez, eta batzuetan ere beste espezie batzuen habia erabiltzen du. Urtean behin 2-4 arrautza errun ohi ditu. Airean egiten du ehiza, harrapakinen atzetik ibiliz edota landareen artean ustekabeaz atzemanez. Gehien bat hegaztiak jaten ditu, eta inoiz ere ugaztunak.

Araban, habitat bikainak dauden lekuetan kalkulatu den dentsitatea da 75 bikote/100 Km²-ko. Beste eskualdetan askoz txikiagoa da. Ez dakigu zein den populazioaren joera, baina ez dirudi galbidean dagoenik. Europako beste herrialde batzuetan, ordea, urritzen ari da.

Espezie hau oso sentikorra da gizakiaren eragozpenen aurrean. Erregresioa eragiten duten faktore nagusiak dira basoen degradazioa, jazarpen zuzena, pestiziden kutsadura eta elikagai-ekaskia. Horrez gain, legez kanpo harrapatzen ditu gizakiak ehiza-hegazti bezala erabiltzeko.

Zuhaizti zabalak eta baso helduak babestea espeziearentzat mesedegarria izango da. Halaber, komenigarria izango litzateke egiten den mendipisten kopurua kontrolatzea, banako asko hiltzen dituzten linea elektrikoak behar bezala seinaleztatzea, eta legez kanpoko harrapaketarekin amaitzea.



Arrano txikia

Aguililla Calzada

Hieraaetus pennatus

Harrapari ertaina da, 50 cm-tik gorakoa. Nabarmena da daukan isatsa, nahiko luzea dena. Bi kolorazio-fase ditu: argia eta iluna. Burua, kopeta eta lepoa arre ilunak eta pittin bat zerrendatuak dira; bizkarraldea, estal-lumak eta isatsa arreak dira, eta sorbaldako lumak zurixkak. Fase argian, sabelaldea nahiko argia da, ilunak diren luma arraunlariak izan ezik; lepoan eta bularrean zerrenda ildaskatua dauka. Isatsa argia da. Mokoak beltza da, eta oinaldea urdinxka dauka; lumaz estalita ditu hankak, eta behatzak horiak dira.

Espezie honen banaketa oso zabala da, ia Palearktiko osoan ageri baita. Gure lurraldean, isurialdeen banalerroko mendizerretan eta Arabako eskualde subkantauriarrean bizi da. Udako hegaztia da, hau da, udaberrian iristen da ugaltzeko, eta uda amaieran hegoalderantz migratzen du, Afrika tropikalerantz hain zuzen.

Basoko espeziea da, basoak baitira bere habitat optimoak, eta basomota guztietan bizi daiteke, zenbait eremu ireki —otalurrak eta belardiak— dituztenetan. Hegada bizkorra du, eta zuhur amiltzen da sarritan. Zuhaitzen artean trebetasunez aritzen da. Planeatu egiten du, airean zirkuluak osatuz. Bakartia da. Habia egiten du zuhaitzen gainean edo haitzetan, eta habia landarez egina eta barrutik estalia da. Urtean behin bi arrautza errun ohi ditu. Gehien bat basoko hegaztiak eta narrastiak jaten ditu, baita ugaztunak eta artropodoak ere. Zelatan egoten da harrapakinen zain, eta haien gainera oldartzen da, lurrean nahiz zuhaitzetan egon.

Oro har, espezie bakana da; Arabako ipar-erdialdean 30 bat bikote daude. Zenbait lekutan erregresio txikian egon arren, badirudi poliki-poliki ugartzen ari dela.

Gure lurraldean ez dago arrisku-faktore handirik, baina Iberiar Penintsulan ehiza eta linea elektrikoak dira hegazti hauen heriotza eragiten dutenak. Horrez gain, ingurunea eraldatzeak populazioak kaltetzen ditu.

Ingurunea babestu behar da, batez ere baso naturalak, populazioek hobera egin dezaten. Halaber, komenigarria litzateke linea elektrikoak behar bezala seinaleztatzea.



Arrano arrantzalea

Águila Pescadora

Pandion haliaetus

Harrapari handia da, 70 cm-tik gorakoa. Burua zurixka da, pileoan ildo beltzak ditu, eta garondorantz luzatzen den begi-zerrenda beltza dauka. Bizkarraldea arre iluna da, zenbaitetan beltzezka, eta bularrean marra ildaskatu argia dauka. Hegoen gainaldea iluna da, eta azpialdea argiagoa. Horrez gain, hegoek orban ilun txikiak dituzte, eta aurreko angeluan orban bat daukate. Isatsak zerrenda arreak ditu. Mokoa beltza eta hankak grisak ditu.

Europako iparraldean banaketa zabala duen hegaztia da. Mediterraneoko eskualdean populazio txikiak daude sakabanatuta. Gure lurraldean ale bakan batzuk ikus daitezke migrazio-garaian, batez ere Gernikako itsasadarrean eta Arabako aintziretan. Batez ere espezie migratzailea da, eta Afrikarako bidean gure lurraldea zeharkatzen du. Berriki, negua Araban igarotzen duen ale bat badagoela ikusi da.

Hainbat hezegune-motetan bizi da, baina ur-masa zabal eta garbiak behar ditu arrantza egiteko. Ur geza duten lakuak edo ibaiak aukeratzen ditu habia egiteko, baina itsasaldean ere egiten du habia. Gehien bat animalia bakartia da. Haizetan edo zuhaitz handietan egiten du habia handia, hainbat urtetan erabiltzen duena. Urtean behin 2-4 arrautza errun ohi ditu. Modu ikusgarrian amildu eta ur-azalean atzaparrekin atzematen dituen arrainak jaten ditu.

Hainbat urtetan espezie honek gainbehera handia izan zuen, Mediterraneoko eta Erdialdeko Europako populazioak iraungitzea edo galtzeko arrisku bizian egotea eragin zuena. Egun, ordea, migrazioan zenbait ale ikus daitezke, baina, neguan, ordea, bakar bat bizi da. Hau da azken urteetan nagusi den joera. Hegaztiaren banaketa-arearen iparraldean egonkortu dela esan daiteke.

Ehiza eta habiak hondatzea izan ziren atzerakadaren eragile nagusiak. Egun, berriz, bestelako arriskuak dituzte: habitatak hondatzea, pestizida organokloratu- eta merkurio- isuriek eragindako kutsadurak, habiak hondatzea eta linea elektrikoetan hiltzea.

Babes-neurriak umatze-guneetan hartu behar dira, bertan eraginkorra-goak baitira.



Belatz txikia

Esmerejón

Falco columbarius

Harrapari txikia da, 30 cm ingurukoa. Sexu-diformismo nabarmena dauka. Arraren bizkarraldea gris urdinxka da, eta ildaska beltzak ditu. Garondoa gorria da. Sabelaldea herdoil-kolorekoa da, eta zerrendak ditu, batez ere alboetan. Isatsak marra ilun meheak ditu. Harrapari gehienetan gertatzen den bezala, emea arra baino askoz handiagoa da. Emearen bizkarraldea arrea da, bibotea dauka, eta sabelaldea argiagoa eta ildaskatua da. Moko beltza eta hanka horiak ditu.

Holarktikokoan banaketa zabala duen espeziea da. Gure lurraldean ohiko migratzailea da, gutxi egon arren; eta inoiz, negutarra ere bada.

Umatze-garaian toki zabaletan bizi da, inguru lehor nahiz zingiratsuetan, inguruan basorik ez dagoen eremuetan, mendixka txikiak eta lautadak gertu dituztenetan. Gure lurraldean kostaldean eta nekazaritza-guneetan bizi da. Hegaldi bizkorra duen hegaztia da. Airean atzematen ditu harrapakinak; haien gainera amildu eta lurretik gertu dagoenean harrapatzen ditu. Animalia bakartia bada ere, migratzerakoan talde txikiak eratzen ditu. Zelatan egoten da ehizatzeke, harrapakinak pausalekueetatik ikusten ditu. Lurrean zein erlaitzetan edo zuhaitzen gainean egiten du habia, oso sinplea eta barrutik ia estaltzen ez duena. Urtean behin bost edo sei arrautza errun ohi ditu. Hegazti txikiak jaten ditu gehien bat, eta batzuetan artropodoak eta ugaztun txikiak ere bai.

Ale gutxi ikusten dira migrazio-garaian, eta are eta gutxiago neguan. Europako populazioa duela zenbait hamarkada izandako erregresio handiaren ondoren, pixkanaka hazten ari da.

Populazioen atzerakadaren eragileen artean aipa daitezke legez kanpoko ehiza eta habitat naturalak galtzea.

Babes-neurriak umatze-guneetan hartu behar dira, bertan eraginkorragoak baitira populazio guztiarentzat.



Zuhaitz-belatza

Alcotán Europeo

Falco subbuteo

Harrapari txikia da, 35 cm-rainokoa. Hego luze eta zorrotzak nabarmentzen zaizkio hegan egiten duenean. Bizkarraldea arbel-grisa da. Bibote mehea dauka, eta belarrien inguruko lumak ilunak dira. Bularra, sabelaldea eta alboak argiak dira, baina urrunetik iluna dirudite, marra asko dituztelako. Isatsa grisa da eta azpialdea marratua dauka. Hegalen azpialdea argia da, eta zenbait marra ilun ditu. Izterrak eta isatsaren azpiko estal-lumak gorriak dira. Moko beltz urdinxka eta hanka horiak ditu.

Europar eta Asian banaketa zabala duen espeziea da. Asiako hegoaldean eta Afrika tropikalean igarotzen du negua. Gure lurraldean, udako hegazia da. Udaberrian iristen da, baina oso ale gutxi iristen dira.

Basoetan bizi da, inguruan toki zabalak dituzten baso eta ibarbasoetan, hain zuzen ere, toki zabaletan ehizatzen baitu. Oso bizkorra eta azkarra da, eta hegan dagoela atzematen ditu harrapakinak. Oso azkar amiltzen da. Gaua heldu bitartean aritzen da. Zuhaitzen gainean egiten du habia, eta beste harrapari edo korbidoen habiak erabiltzen ditu. Urtean behin bizpahiru arrautza errun ohi ditu. Hegaztiak eta aireko intsektuak harrapatu eta hegan dagoela jaten ditu.

Uste denez, gure lurraldean habia egiten duen populazioa hogeita hamar bat bikotek eratzen dute, eta populazioaren joera zein den ez badakigu ere, ez dirudi urritzen ari denik. Herrialde askotan erregresioan dago, baina beste batzuetan pixka bat ugartu da.

Erregresioaren eragileak, habia egiteko garaian jasaten dituzten eragozpenak, habiak espoliatzea eta legez kanpoko ehiza dira. Dena den, litekeena da biozidak izatea espezie honen atzerakadaren eragile nagusia.

Espezie hau kontserbatzeko habitatak babestu eta hobetu egin behar dira, habia egiten duten tokiak ere babestu, eta basogintzan edota nekazaritzarako pestizidak erabiltzea kontrolatu behar da.



Belatz handia

Halcón Peregrino

Falco peregrinus

Harrapari ertaina da, metro erdikoa izatera irits daitekeena. Tamainari dagokionez, sexu-dimorfismoa dauka, emea arra baino askoz handiagoa baita. Buru iluna eta bibote zabala dauzka. Bizkarraldea gris urdinxka da. Tantoak dituen eztarri zuria dauka. Sabelaldea argia da, eta zerrenda ilunak ditu. Isatsa gris urdinxka eta marratua da. Moko beltza eta hanka horiak ditu. Emeak arrak baino ilunagoak izan ohi dira.

Palearktikoan hedatzen den espezie hau gure lurraldean ere bizi da. Neguan ale gehiago iristen dira Europatik, eta hemen igarotzen dute garai zakarrena.

Itsaslabarretan eta barnealdeko haitzetan egiten du habia, batzuetan baita hirietako eraikinetan ere, lasaitasuna nagusi den tokietan, hain zuzen. Gune zabalak behar ditu elikatzeko, soroak esaterako. Sarritan kostaldean edo hezeguneetan ere jaten du. Hegaldi bizkorra duenez, airean atzematen ditu harrapakinak. Nahiko altuera handian ere planeatzen du. Pausalekuak erabiltzen ditu. Harrapakina atzeman ostean, airean beti, leku jakin batera eramaten du zatikatzeko. Egiten duen habia zulo txiki bat baino ez da. Urtean behin hiruzpalau arrautza errun ohi ditu. Hegaztiak jaten ditu gehien bat. Hiri-inguruetan bizi diren belatzen elikagai nagusia usoak dira.

Laurogeita hamar bat bikote ugaltzaile daude, eta azken urteetan kopuruak pittin bat gora egin du, Araban behintzat. Europako beste herrialdeetan ere antzekoa da populazioen egoera, hau da, hainbat urtetan atzera egin ostean, egonkortzen hasi da.

40ko hamarkadaz geroztik, eta erabiltzea debekatu zen arte, pestizidak izan ziren populazioen erregresioa eragin zutenak. Egun, berriz, espezie honen arrisku handienak egiten dioten jazarpen zuzena eta arrautzak espoliatzea dira.

Espezie hau kontserbatzeko pestiziden erabilera, ehiza eta ehiza-hegazti bezala erabiltzea kontrolatu behar dira. Halaber, hegazti honek habia egiten duen tokietan eskalada egitea erregulatu behar da, batez ere inkubazio- eta txitaldi-garaian.



Uroilanda handia

Rascón Europeo

Rallus aquaticus

Uretako hegazti txikia da, 30 cm-rainokoa. Arrea da, eta bizkarraldean ildo ilunak ditu. Sabelaldea grisa da, eta alboetan zerrendak ditu. Hegalak eta isatsa arreak dira. Moko luzea, gorrixka eta pittin bat okertuta dauka. Hankak ere arreak dira.

Europar banaketa zabala duen espeziea da. Gure lurraldean, eskualde atlantikoko kostako herri batzuetan bizi da, eta Mediterraneoko eskualdean ere ageri da. Populazioa egoiliarra da, eta migratzaileak eta negutarrak ere iristen dira honaino.

Hezeguneetan, gehien bat aintzira eta estuarioetan, lezkadi edo uretako beste landareak dauden lekuetan bizi da, eta neurri txikiago batean legar-hobi, urgeldi, ureztatze-putzu eta urtegietan. Animalia bakarti eta iheskorra da. Landareen artean bizi da, eta oso gutxitan ageri da toki zabaletan. Oihu bereziak egiten ditu, eta oihuei esker salatzen du bertan dagoela. Igokari trebea, adarren artean mugitzen da. Egunez nahiz gauez aritzen da. Habia uretik hurbil egiten du, zingiretako landareen artean edota zuhaitzen adarretan. Landareekin egiten du habia, barrutik estaltzen duena. Urtean gehienez bi aldiz errun ohi ditu 7-10 arrautza. Denetik jaten du, lokatzetan, landareen artean edo uretan atzematen dituen harrapakinak: intsektuak, intsektu-larbak, krustazeoak eta harrak. Landareak ere jaten ditu.

Gehienak itsasertzeko lezkadietan kokatzen dira; barnealdeko populazioa urriagoa da. Urdaibain ehun bikote inguru bizi direla uste da, ia Euskal Autonomia Erkidegoko populazioaren erdia. Dena den, erregresioan dagoela esan beharra dago, kostaldean gero eta lezkadi gutxiago daudela-ko. Hala ere, badakigu ezpezie honek aldizka gora-beherak izaten dituela.

Habitata hondatzea dugu atzerakadaren eragile nagusia, batez ere itsasertzeko lezkadiak hondatzea eta Mediterraneoko eskualdeko urbilduetako eta urtegietako landaredia hondatzea. Negu hotzek eta umatze-garaian gertatzen diren ur-mailaren aldaketek ere eragin kaltegarria dute.

Habitata zaindu eta hobetzera bideratu behar dira babes-neurriak. Lehenik eta behin, barnealdeko hezeguneetako zingiretako landaredia eta estuarioetako lezkadiak babestu behar dira.



Txirritxo hankabeltza **Chorlitejo Patinegro** ***Charadrius alexandrinus***

Zangoluze txikia da, 16 cm-rainokoa. Bizkarraldea arrea da. Bularra-
ren alde bakoitzean orban iluna dauka. Lepoko zuria dauka. Kopetan eta
mozorroan marra beltza dauka. Begi-eraztuna horia da. Hegoak arreak
dira, eta marra zuri mehea daukate. Isatsaren ertzak ere zuriak dira. Mo-
koa eta hankak beltzak dira.

Palearktikoan banaketa zabala duen espeziea da. Gure lurraldean, soi-
lik kostaldean ageri da, oso gutxitan gainera. Udako migratzailea da, eta
inoiz ere negutarra.

Itsasertzean bizi da, hondartza hareatsu eta lohitsueta, padura eta ga-
tzagetan. Batzuetan barnealdeko ur gazikaretan ere ageri da. Migrazio-bi-
dean estuarioetan eta kostaldeko lekuetan egoten da. Normalean oinez
ibiltzen da, eta ibilera bereizgarria dauka, bizkorra eta trebea. Bakartia da,
baina migratzerakoan talde txikiak eratzen ditu. Lurrean egiten du habia,
barrutik ia estali gabe, dunetan edo lurrean egindako sakonune batean, le-
gar- edo uharri-eremueta. Urtean behin edo bitan lau arrautza erruten
ditu. Artropodoak, moluskuak, harrak eta beste ornogabe batzuk jaten
ditu, hanean edo lokatzetan harrapatzen dituenak.

Negua pasatzera ale gutxi etortzen dira, hamabi bat gehienez ere. Ibe-
riar Penintsulako neguko populazioa oso handia da, Europako mende-
baldeko populazioaren %85, hain zuzen ere. Espeziea erregresio handia
pairatzen ari da Europan. Penintsulan, berriz, badirudi egoera egonkorra
dela, salbuespenak salbuespen.

Atzerakadaren eragile nagusiak dira umatze-garaian populazioek pai-
ratzen dituzten eragozpenak. Horrez gain, habitatak hondatzeak ere espe-
ziearen erregresioa eragiten du, azalera handiak galdu eta ezaugarri ekolo-
gikoak aldatu baitira.

Espezie hau kontserbatzeko beharrezkoa da zangoluze honek erabil-
tzen dituen habitatak zaintzea, eta, batez ere, habia egiteko lekuetan behar
duten lasaitasuna bermatzea. Gure lurraldean, ezinbestekoa da estuarioak
babestea, garai desfavoragarrietan, espeziearen babeslekua bermatu ahal
izateko.



Kuliska txikia

Andarríos Chico

Actitis hypoleucos

Zangoluze txikia da, 20 cm-rainokoa. Bizkarraldea arre oliba da, eta hegaletan marra zuri bereizgarria du. Isatsa arrea da, argia, eta ertzak zu-riak ditu; zerrenda ilunak ere baditu. Sabelaldea zuria da, marra ilunak di-tuen bularra izan ezik. Mokoa beltza, eta hankak berde argiak edo horika-rak dira.

Holarktikokoan banaketa zabala duen espeziea da. Gure lurraldean zonal-de mediterraneoko leku batzuetan egiten du habia. Udako migratzailea da.

Uharriak dauden eremuetan eta urtegi edo ibaiertzetako hondartza ha-reatsu-lohitsuetan egiten du habia. Bakarka edo migrazio-talde txikietan bizi da. Ur-gainean espezie honen bereizgarriak diren hegaldi laburrak egiten ditu, hego makurrak bizkor astinduz. Burua eta isatsa gora eta be-hera mugitzen ditu etengabe. Hezeguneetako urertzetik ibiltzen da. Habia egiten du, barrutik ia estali gabe, harrien artean edo landareren baten on-doan, sakonuneren batean. Urtean behin lau arrautza errun ohi ditu. Heze-gune edo ibilguen ertzean elikatzen da, ur azaletan edo lehorrean jaten ditu uretako intsektuak, krustazeoak, moluskuak, harrak eta landare ba-tzuk ere bai.

Gure lurraldean ugaltzaile gutxi daude, eta gainera badirudi erregresio gogorrean daudela. Dena den, kopuruak gora egiten du migrazio-garaian. Europako populazioak ere antzeko egoeran daude.

Populazioen erregresioaren eragile nagusiak dira habitatak hondatzea, ura kutsatzea, eta ibaiak dragatzea, kanalizatzea edo ubideak zuzentzea.

Babes-neurriak hartu behar dira zangoluze honek erabiltzen dituen in-gurunean; izan ere, ingurunea babestu eta hobetzea bultzatu behar da. Ba-tez ere ibaietan eta ibaiertzetan eragin kaltegarriak izan ditzaketen jardue-rak ekidin behar dira.



Txirri arrunta

Correlimos Común

Calidris alpina

Zangoluze txikia da, 18 cm-rainokoa. Neguan bizkarraldea gris zikina da, eta sabelaldea argia. Udan, berriz, bizkarraldea arre gaztaina da, eta marra ilun ugari ditu. Burua eta bizkarraldea arre beltzak dira, eta lumen ertz nahiko zabala zuria da; lerro supertziliarra argia da. Hegaletan marra zuria du, hegan egiterakoan nabarmentzen dena. Isatsa arrea da, alboetan grisa. Eztarria eta bularra zurixkak dira, eta zerrenda arreak dituzte. Sabelaldea zuria da, eta orban beltza dauka. Mokoa eta hankak beltzak dira.

Udaberrian banaketa zirkunpolarra du, eta neguan Eurasia, Afrika eta Ipar Amerikako erdiko latitude eta latitude tropikaletara jaisten da. Gure lurraldean migratzailea eta negutarra da. Itsasertzean bizi da normalean, baina barnealdean ere ageri da.

Iparraldeko latitudeetako tundra eta zohikaztegietan egiten du habia. Umatze-garaitik kanpo estuario handietako lokatzetan bizi da. Gure lurraldean estuarioetan bizi da, baina migratzen ari denean barnealdeko urtegi eta urmaeletan ere ageri da. Hegazti taldekoia da, eta hondartza eta padu-retan ikus daitezke taldeko kide guztiak olatuekin batera mugitzen, bai olatuak lehertzeaz daudenean urruntzeko, eta bai hegan hasteko. Hegada bizkor eta zuzena du. Mareen araberakoa da hegazti honen erritmoa. Migrazio-garaian gauez lekualdatzen da. Sasi baten gainean egiten du habia, barrutik estalia dena. Urtean behin lau arrautza errun ohi ditu. Intsektuak, krustazeoak, moluskuak eta beste ornogabe batzuk jaten ditu, itsasbeheran hondartzan edo lokatzetan agerian gelditu bezain laster.

Populazio negutarraren tamaina aldakorra da, baina gehienez ere 2.000 ale ingurukoa izan daiteke. Gernikako itsasadarrean 50 eta 1.000 ale artekoa da populazioa, Txingudin 200 ingurukoa, Zumaian 30 alekoa eta Abran 2 eta 10 bitartekoa. Iberiar Penintsulako populazio negutarra egonkorra dela dirudi, baina Europan erregresio gogorrean dago espezie hau.

Atzerakadaren eragileak dira estuarioetako lokaztegiak kutsatzea eta hondatzea, habitat-mota hau desagertzea eta gizakiak eragindako eragozpenak.

Zangoluze hau bizi den tokietan hartu behar dira babes-neurriak, eta ingurunea babestu eta hobetzea izan behar dute helburu.



Txenada mokobeltza

Pagaza Piconegra

Gelochelidon nilotica

Itsas hegazti sendoa da, tamaina ertainekoa, 40 cm-rainokoa. Moko sendo eta beltza dauka. Txanoa beltza da, eta bizkarraldea errauts-grisa da. Hegoak gris argiak dira. Gorputzaren gainerako zatiak zuriak dira. Neguan bizkarraldea argiagoa da, txanoa ere argitu egiten da eta belarrien inguruak bakarrik jarraitzen du iluna izaten. Isatsa luzea, urkila-itxurakoa eta grisa da. Hanka beltzak ditu.

Mundu osoan zehar banaketa zabala duen espeziea da. Besteak beste, Mediterraneoan eta Itsaso Beltzean eratzen ditu koloniak, eta Afrikako kostaldean pasatzen dute negua. Gure lurraldean kostaldean bizi da, batez ere Abran. Migratzaile bakana da, inoiz negutarra ere bai.

Delta, estuario, padura eta urmaeletan bizi da, eta umatze-garaitik kanpo bestelako habitatetan ere bai. Gure lurraldean, kostaldean eta estuarioetan ageri da. Hegada bizkor eta zuzena duela erakusten du harrapakinak hegan zein lurrean korrika atzematen baititu. Normalean ez da uretan murgiltzen. Taldekoia da, eta kolonia txikiak eratzen ditu habia egiteko. Hain zuzen ere, lur hareatsuetan, toki zabaletan edo landare gutxi dagoen lekuetan egiten du habia, sakonune batean eta barrutik ia estali gabe. Urtean behin 2-4 arrautza errun ohi ditu. Lurrean eta airean atzematen dituen intsektuak jaten ditu. Halaber, harrak, krustazeoak, arrain txikiak, zapaburuak, sugandilak eta hegazti eta ugaztun txikiak harrapatzen ditu.

Nahiko txenada mokobeltz gutxi ikusi ohi dira. Europa osoan behera egiten ari da ale-kopurua bai eta kolonia-kopurua ere, eta Iberiar Penintsulan ere erregresioa hasi da.

Populazioaren erregresioaren eragile nagusiak honako hauek dira: habitatak galtzea, pestiziden eta harraparien eragina, eta umatze-guneetan gizakiak eragindako eragozpenak.

Espezie hau kontserbatzeko babes-neurriak bideratu behar dira habia egiteko tokiak zaintzera.



Itsas enara beltza

Fumarel Común

Chlidonias niger

Itsas hegazti txikia da, 25 cm-rainokoa. Arrak buru beltza dauka, eta bizkarraldea gris iluna. Hegoak eta isatsa gris urdinxkak dira. Sabelaldea grisa da, isatseko estal-lumak zuriak dira eta hegoen azpialdea gris argia da. Emea argiagoa da, eta gris hitsa du eztarria. Neguan, aldiz, antzeko kolorazioa daukate arrek eta emeek: bizkarraldea grisa etaabelaldea zuria daukate. Burua eta lepoa zuriak dira, eta txanoa beltza da. Mokoabeltza da, eta hankak gorri ilunak dira.

Mundu osoan zehar banaketa zabala duen espeziea da. Europako populazioek Afrikako kostaldean pasatzen dute negua. Gure lurraldera migrazio-bidean soilik iristen dira, udazkenean. Orduan itsasertzean nahiz barnealdean ikus daitezke.

Hegazti honek umatzen du ur ez oso sakonak eta urgaineko landare ugari dauzkaten hezeguneetan. Gure lurraldean barnealdeko hezeguneetan, estuarioetan eta kostaldean ageri da. Hegada bizkor eta trebea du, eta uretara amiltzen da, baina ez da murgiltzera iristen. Hegan atzematen ditu harrapakinak. Taldekoia da, eta talde txikiak osatzen ditu, batez ere elikadura-guneetan, eta habiak egiteko ere kolonia handi samarretan biltzen dira. Toki putzutueta egiten du zingiretako landarez eginiko habia, ur gainean. Barrutik estali egiten du habia, material finagoak erabiliz. Urtean behin 2-4 arrautza errun ohi ditu. Intsektuak, zapaburuak, harrak eta arrain txikiak jaten ditu.

Animalia honen agerpena irregularra da, eta gutxitan ikusi da. Europako populazioak erregresio gogorrean daude, Ekialdeko Europakoak izan ezik; han, dirudenez, populazioa oraindik egonkorra da.

Atzerakadaren eragileak hainbat faktore dira: poluzioaren eta aldaketen eraginez habitatak hondatzea, suntsitzea eta galtzea, eta gizakiaren eragozpenak, ugalketa kaltetzen du.

Espezie hau kontserbatzeko neurriak habia egiten duten tokietan hartu behar dira; izan ere, leku hauek behar bezala babestu behar dira.



Hontza handia

Búho Real

Bubo bubo

Gaueko harrapari handia da, 70 cm-tik gorakoa. Belarrietan motots nahiko bereizgarriak ditu. Bizkarraldea okre argia, arre iluna eta grisa da. Hegoak arre ilunak dira, eta zeharka marra okreak ditu. Isatsa gris arrea da, nahiko motza. Lepoa eta bularra horikarak eta ilunak dira, eta luzeran orbanak dituzte. Sabelaldea argiagoa da, ia orbanik gabea. Moko beltza dauka, eta hankak, lumaz estalita daudenak, arreak dira. Begiak laranjak dira.

Palearktikokoan banaketa zabala duen espeziea da: Europan, Asian eta Afrikako iparraldean ageri da, hain zuzen ere. Hala ere, ez da ageri Europako ipar-mendebaldeko hainbat herrialdetan. Gure lurraldean Araban eta Bizkaiko mendebaldean bizi da, erliebe handia dagoen lekuetan.

Haitzak dituzten eremu menditsuetan bizi da, basoetan nahiz toki zabalagoetan. Ilunabar eta gauez aritzen da. Hegada bortitz eta bizkorra du, baita isila ere. Zelatan egoten da pausalekuetan, harrapakinen zain. Bakarria da. Ulu ozen bereizgarria du, eta gehienetan horri esker antzematen da. Landare gutxi batzuk dituzten leize txikietan edo haitzetako zirrikituetan egiten du habia, inoiz zuhaitzen zulo edota beste hegaztien habietan ere bai. Habia oso sinplea da, estali gabea; zenbaitetan lurrean egindako sako-nune bat besterik ez da. Urtean behin 2-4 arrautza errun ohi ditu. Era askotako harrapakinak jaten ditu: ornodun ertainak, besteak beste, hegaztiak eta ugaztunak, bai eta arrainak ere.

Gure lurraldean 15 bikote baino ez dira bizi, eta badirudi populazio hau egonkorra dela, azken hamarkadetan behera egin badu ere. Iberiar Penintsulako hegoaldean ugaritzen ari dela dirudi. Europako populazioen egoera desberdina da herrialdetik herrialdera.

Gure lurraldean populazio hauen arrisku-faktore larrienak dira ehiza, habiak espoliatzea, eta harrapakin-eza, besteak beste, untxien populazioak egoera kaskarra pairatzen ari direlako. Elektrokuzioen eta alanbre-hesien kontrako talken ondorioz ere hainbat banako hiltzen dira.

Espezie hau kontserbatzeko jazarpen zuzena ekidin eta arriskutsuak diren linea elektrikoak kendu edo zuzendu behar dira.



Zingira-hontza Búho Campestre *Asio flammeus*

Gaueko harrapari ertaina da, 40 cm ingurukoa. Aurpegian disko hori-kara nabarmena dauka, eta orban ilunak ditu begien bi aldeetan. Belarrietan motots txikiak ditu, ia ikusezinak direnak. Gorputza arre horia da, eta bizkarraldean orbanak eta sabelaldean zerrendak ditu. Hegoak arre gorri-ka argiak dira, zerrenda beltzak, orban zuriak eta puntak beltzak dituzte. Azpitik ikusita argiagoak dira. Tartsoa eta behatzak lumaz estalita ditu, eta zuri horiak dira. Moko grisa dauka, ia beltza.

Eurasian eta Amerikan banaketa zabala duen espeziea da. Europako populazioek Europakoa hegoaldean eta mendebaldean igarotzen dute negua. Gure lurraldetik pasatzen da migrazio-garaian, eta negutarra ere bada.

Umatze-guneak ditu paduretako gune zabaletan, dunetan eta eremu lehor zabaletan. Txitaldi-garaitik kanpo, ordea, hezegune eta soroetan bizi da. Gure lurraldean landazabal, estuario eta ibaiertzetan ageri da. Egunez aritzen da, beste estrigiformeak baino gehiago. Hegada isil eta motela du; altuera txikian egiten du hegan, eta sarritan, planeatu ere egiten du. Hegazti bakartia da, baina taldetan ere ibiltzen da, batez ere migrazio-garaian. Lurrean egiten du habia, landaredi baxuaren babesean, txilardi edo zingiretako landareen artean. Sakonune txiki batean egiten du habia. Urtean behin lau eta zortzi arrautza bitartean errun ohi ditu. Ugaztun txikiak, hegaztiak eta intsektuak jaten ditu.

Espezie hau ez da batere ugaria, urria baizik. Europako populazioek gora-beherak izaten dituzte harrapakin-dentsitatearen arabera. Iberiar Penintsulan pittin bat emendatzen ari da, baina Europako herri gehienetan, ordea, gainbeheran dago.

Populazioek dituzten arrisku handienak dira ehiza, ibilgailuek harrapaztea eta linea elektrikoen kontra talka egitea. European, ordea, umatze-habitata hondatzea eta galtzea da atzerakadaren eragile nagusia.

Espezie hau kontserbatzeko hegazti honen habitat naturalak babestu eta hobetu behar dira.



Okil beltza

Pito Negro

Dryocopus martius

Tamaina ertaineko okila da, 50 cm-tik beherakoa. Erabat beltza da, eta urrunetik ikusita korbido baten antza dauka. Arrak txano gorria du; emeak, berriz, garondoan bakarrik ditu luma gorriak. Moko zuriak, punta gris dauka, eta hankak grisak dira.

Palearktikoan banaketa zabala duen espeziea da. Gure lurraldean oso bakana da, bi tokitan bakarrik behatu baita.

Baso menditarretan, zuhaitz zaharrak dituzten pagadi eta harizti handietan bizi da, zuhaitz zaharretan egiten baitu habia eta bilatzen baititu elikagaiak. Hegada zuzena dauka, eta zuhaitzetara igotzeko trebetasun handia du. Animalia bakartia da, gizakiarekiko zaputza. Batzuetan binaka ageri dira eta, asko jota, familia-talde txikietan elkarturik, udazkenean batez ere. Zuhaitz handietan eta altuera jakinean egiten du habia: sarrera estua duen zuloa industen du. Egur-hondarrekin egiten du habia, eta barrutik ez du ia estaltzen. Urtean behin 4-6 arrautza errun ohi ditu. Enborraren azalean —azalak dituen zartaduretan edo duen moko gogorrarekin egindako zuloetan— aurkitzen dituen intsektu xilofagoak jaten ditu bere mihi luze lingirdatsuaz harrapatu ondoren. Beste intsektu batzuk ere jaten ditu, inurriak, bereziki. Halaber, fruitu eta zuhaitzen izerdiaz elikatzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko populazioa oso urria da, hamar bat bikotetik beherakoa baino ez baita. Badirudi populazioa egonkorra dela, baina ez dira urtero hemen ugaltzen. Beraz, kopuruak gora-beherak izan ditzake.

Populazioek dituzten arrisku handienak dira ehiza, pestizidek eragindako elikagai-eskasia, eta egiten den baso-ustiaketa, zuhaitz zaharrak kentzea ahalbidetzen baitu.

Espezie hau kontserbatzeko baso-ustiapena irizpide ekologikoak kon-tuan hartuz egin behar da, espezie hau eta basoko beste hainbat espeziek ere bizirik irautea bermatu ahal izateko.



Lezkari arrunta

Carricero Común

Acrocephalus scirpaceus

Lezkari txikia da, 13 cm-rainokoa. Animalia, oro har, ez da gehiegi nabarmentzen. Bizkarraldea oliba arrea da, eta gorriagoa du ipurtxuntxurra. Sabelaldea zurixka da, okreak diren bularra eta saiheitsak izan ezik. Hegoak arreak dira, eta ertzak argiagoak dituzte; isatsa arrea da. Mokoa arre iluna da, eta hankak arre argiagoak dira.

Europar banaketa duen espeziea da. Gure lurraldean, itsasertzeko hezeguneetan, eta inoiz barnealdekoetan ere, ageri da. Udako hegatzia da, migratzailea, eta Afrikan igarotzen du negua.

Padura eta estuarioetako lezkadietan bizi da, eta barnealdeko lezkadietan ez da oso arrunta. Hala ere, migrazioan uretatik oso urrun ez dauden zuhaixketan ere ageri ohi da. Landareen artean trebetasunez ibiltzen da, sasi batetik bestera altuera txikian hegan eginez. Banako asko baldin badi-ra ia koloniala izatera irits daiteke. Hosto lehorrak erabiliz kopa-formako habia egiten du lezken artean, nahiko goian, urak busti ez dezan, kanabe-rei tinko eutsita. Urtean bi aldiz errun ohi ditu lauzpabost arrautza. Artropodoak eta moluskuak jaten ditu, bai eta udazkenean fruituak ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan populazio ugaltzailea 200 bikotetik beherakoa dela uste da. Azken urteetan, ordea, populazioa atzeraka hasi da, batez ere, habitatak hondatu direlako. Europan, berriz, hainbat herrialde-tan egonkorra da.

Atzerakadaren eragile nagusia dugu animalia honek behar dituen ha-bitatak hondatzea eta galtzea.

Espezie hau kontserbatzeko itsasertzeko hezeguneak eta hauei lotuta-ko zingiretako landaredia babestu, kontserbatu eta hobetu behar dira.



Lezkari karratxina

Carricero Tordal

Acrocephalus arundinaceus

Hemeretzi cm-rainoko lezkaria da. Gainaldea arre-gorrixka argia da; hegoak marroi-olibak dira, eta zenbait lumek ertz argiak dituzte. Isatsa arrea da. Zerrenda superziliar nabarmena zurixka edo motela da, baita ez-tarria ere. Bularra eta saiheitsak arre argiak dira; sabelaldea argia da. Moko arre iluna du, eta hankak grisak dira.

Europar banaketa duen espeziea da, baina iparraldeko latitudeetan ez da ageri. Gure lurraldean, barnealdeko eta kostaldeko hezeguneetan bizi da. Udakoa eta migratzailea da, eta Saharaz bestaldeko Afrikara abiatzen da negua igarotzera.

Lezkadietan bizi da, istil, urtegi eta urgeldien inguruko lezkadi txikietan, bai eta ur-masa handiagoen inguruan ere, barnealdekoak zein ur gazikara duten kostaldeko hezeguneak izan. Oso maiz mugitzen da landareen artean, eta ez da beste lezkariak bezain zaputza. Txorrotxio kirrinkari eta ozena dauka, oso bereizgarria. Hegada laburra du, eta altuera txikian egiten du. Koloniala izan ohi da. Zingiretako landareen artean egiten du habia, zurtoinei eutsita, landare eta hosto lehorrez egina. Kopa-formakoa da eta barrutik estalita dago. Gehienez urtean bi aldiz erruten ditu lau eta sei arrautza bitartean. Artropodoak jaten ditu, eta udazkenean fruitu eta ha-ziak ere bai.

Euskal Autonomia Erkidegoan 120 bikote ugaltzaile inguru bizi direla uste da. Azken urteetan, ordea, litekeena da kopuruak behera egin izatea, batez ere, espeziearen habitata hondatu delako. Europako herrialde askotan ere gainbeheran dago espeziea.

Populazioen erregresioaren eragile nagusia da hezeguneak nahiko hondatuta daudela, gizakiaren esku-hartzearen aurrean oso sentikorrak baitira.

Espeziea kontserbatu ahal izateko hezeguneak zaindu, babestu eta hobetu behar dira. Ezinbestekoa da lezkadiak ez kentzea.



Txio horia

Mosquitero Musical

Phylloscopus trochilus

Hamaika cm-tik beherako txori txikia da. Bizkarraldea, hegoak eta buztana berde olibak dira. Zerrenda superziliarra argia da, horixka. Behealdean, zintzurra eta bularra horixka argiak ditu, eta gainerakoa zurixka da. Moko arrea dauka. Oso ugaria den txio arruntaren itxura bera izan arren, txio horiak haragi-koloreko hanka argiakoak, kolore horixkagoak eta hego-sistemako zenbait ñabardura desberdin ditu.

Palearktikoan banaketa zabala duen espeziea da, nahiz eta alderdi zirkunmediterraneoan ez den ageri. Gure lurraldean gunetik atlantiko mugatuetan baino ez da ageri. Migratzailea eta udakoa da, eta negua igarotzeko Saharaz bestaldeko Afrikara jotzen du.

Animalia hau bizi da, sastrakadi, elordi, hurritz eta birsortzen ari diren hariztiak dituzten ingurune irekietan, baita ibaiertzeko basoetan ere. Landareen artean sarri mugitzen da. Txio Horiaren hegaldia hain laburra denez, saltoka dabilela dirudi. Talde txikiak era ditzake, baina bakarrik ibiltzeko ohitura du. Lurrean, muluren baten oinean egiten du habia esferiko tapizatua, landareak erabiliz. Gehienez urtean bitan sei-zazpi arrautza erruten ditu. Bere elikagai nagusiak dira artropodoak, intsektuak, araknidoak eta zenbait fruitu.

Euskal Autonomia Erkidegoan populazio ugaltzailea 50 bikotetik beherakoa dela balioetsi da, eta populazioa egonkorra da.

Populazio hauen dentsitatea eta banaketa mugatzen duen faktorea da espeziearen beharrak asetzeko egokiak diren gunetik ekologiko nahikorik ez egotea.

Espezie hau kontserbatzeko espeziearen habitata zaindu behar da, populazioen iraupena bermatzeko.



Euli-txori beltza

Papamoscas Cerrojillo

Ficedula hypoleuca

Hamahiru cm-rainoko txori txikia da. Udaberrian zehar sexu-dimorfismoa dauka. Arraren eztei-lumajearen gainaldea beltza da eta zuria zintzur, bular eta sabelaldea; buztana beltza da, eta kanpoko lema-lumak zuriak ditu. Emeak bizkarraldea arre grisaxka dauka eta orban zuriak ditu buztan eta hegoetan, arrarenak baino txikiagoak direnak. Azpialde argiak ditu. Mooka eta hankak beltzak dira. Uztaileko mudaren ostean, arrak emeak bezalako neguko lumajea izaten du, eta ia bereiztezinak dira garai horretan.

Palearktikoan banaketa zabala duen espeziea da. Gure lurraldean zenbait gune sakabanatuetan ale bakanak baino ez dira ageri. Espezie hau udakoa eta migratzailea da, eta Saharaz bestaldeko Afrikan ematen du negua.

Nahiko irekiak diren basoetan bizi da, zuhaitz helduak dituzten hariztietan, eta baita zuhaixka eta zuhaitz zaharrak dauden nekazaritza-inguruetan ere. Hegaldi laburreko txoria da, eta azkar abiatzen da pausagunetik aireko intsektuak harrapatzera. Lurretik ere usu mugitzen da harripakinak ehizatzen. Eztei-ondoko migrazioetan, abuztu eta irailean, oso ugaria da, eta parke eta hirietako lorategietan ere ikusten da. Basoetako soilgune, zuhaitzetako hutsune eta eraikuntzetan egiten du habia. Landa-reak erabiltzen ditu kopa-formako habia egiteko, eta barrualdea estaltzen du. Urtean behin lau eta zazpi arrautza bitartean errun ohi ditu. Artropodoak jaten ditu, bai eta harrak, moluskuak eta fruituak ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan, populazio ugaltzailea ehun bikotetik beherakoa dela uste da, eta populazioa egonkorra dela dirudi. Europako populazioek oso egoera desberdinak dituzte: herrialde batzuetan erregresioan dago, eta besteetan, aldiz, goraka egiten ari da.

Euli-txori beltzen erregresioaren eragilea zuhaitz zaharrak kentzea da, espezieak habiak behar bezala egiteko hutsunerik gabe geratzen baitira.

Espezie hau kontserbatzeko ezinbestekoa da baso eta lorategietan zuhaitz zaharrak gordetzea, eta baso eta landatutako sail berrietan habiakutxak jartzea, espeziea bertara joan dadin.



Basoetako gerri-txoria

Agateador Norteño

Certhia familiaris

Hamahiru cm inguruko txori xume eta fina da. Gainaldea gaztaina gorrixka da eta luzetara marra okre edo zurixkak ditu. Ipurtxuntxurra gaztainakara edo gorrixka da. Burua marraduna eta lerro supertziliarra zuria da. Hegoak arreak dira, eta banda okreak dituzte. Buztana arre gorrixka da, eta luma irmoak ditu, enborren gainean jartzeko balio dutenak. Azpialdea zuria da. Mokoa eta hankak arreak dira. Gerri-txori arruntetik bereiztea zaila da, ahotsa eta zenbait xehetasun morfologikorengatik ez bada.

Banaketa palearktikoaren duen espeziea da. Euskal Autonomia Erkidegoan, zonalde menditsu bakar batean baino ez da ageri, baso heldu batean, hain zuzen ere.

Pagadi helduetan eta konifero-basoetan bizi da. Igokaria da, eta zuhaitzak goitik behera espiralean igo eta jaisten ditu etengabe. Hegaldi ondulatu eta laburra dauka. Bakartia da, baina udazken eta neguan beste baso-paseriformeekin biltzen da talde mistoetan. Landareez egiten du habia, barrualdetik ondo tapizatua eta kopa-formakoa da. Zuhaitzetako arrakala edo enbor-azalen artean egiten ditu habiak. Urtean bitan bost eta zazpi arrautza bitartean errun ohi ditu. Batez ere zuhaitzak miatzean aurkitutako artropodoez elikatzen da.

Gure lurraldeko populazioa oso urria da. Europako populazioen joerak ezberdinak dira: goraka alde batzuetan, erregresioan beste batzuetan.

Banaketa-arearen mugan dago espeziea. Hortaz, ezaugarri ekologikoak espezieak aurrera egitea eragozten duten faktore naturalak dira. Atzerakadaren eragilea da ere zuhaitz zaharrak dituzte baso helduen eskasia.

Espezie hau kontserbatzeko beharrezkoa da baso helduak zaindu eta baso-ustiapienak planifikatzeko orduan irizpide ekologikoak kontuan hartzea.



Zingira-berdantza

Escribano Palustre

Emberiza schoeniclus

Hamabost cm-rainoko txori txikia da. Burua, zintzurra eta bularra beltzak dira, eta bibote fin zuria dauka. Bizkarraldea arre-gorrixka da, eta marra beltzak ditu; ipurtxuntxurra grisa da. Hegoak arre, beltz eta okreak dira. Buztana arrea eta iluna da, eta lema-lumak zuriak dira. Azpialdea zurixka da, eta saiheitsak marradunak dira. Mokoa arre beltzezka da eta hankak arre ilunak dira. Emeak ez du arrak duen txano beltza. Neguko lumajea dutenean, arra emearengandik bereiztea zaila da.

Palearktikoan bizi den espeziea da. Gure lurraldean kostata eta barrualdeko inguru zingiratsu bakan batzuetara mugatzen da. Udakoa eta migrazioaile partziala da.

Inguru zingiratsuetako espeziea da, eta lezkadietan egiten du habia. Taldekoia da neguan, eta etzaleku berean zingira-berdantza ugari biltzen dira. Zingiretako landareen goiko aldeetan higitzen da normalean. Hegaldi uhinkaria dauka, eta altuera txikian egiten du. Habia landareen artean —lurretik oso gertu— zein lurrian egiten du. Kopa-formako habia eraiki ohi du landareekin, eta material fin eta ilez estaltzen du, bai eta barrualdea tapizatu ere. Urtean bizpahiru aldiz lau edo bost arrautza errun ohi ditu. Batez ere haziz elikatzen da, baina dietaren osagarri dira artropodo, molusku eta harrak.

Euskal Autonomia Erkidegoan populazio ugaltzailea berrogeita hamar bikote ingurukoa dela uste da. Badirudi Europako populazioak, oro har, egonkorak direla.

Zingira-berdantzaren erregresioaren edo progresioa mugatzen duen eragilea da behar duen ingurua hondatzea, bereziki, hezeguneetako lezka-diak desagertzea edo hondatzea.

Espezie hau kontserbatzeko beharrezkoa da hezeguneak babestea, eta horretarako zingiretako landaredia ahal den neurrian zaindu eta hobetu behar da.



Gau saguzar handia

Nóctulo mayor

Nyctalus lasiopterus

Europako saguzar handiena da, 25 eta 60 gramo bitarteko pisua duena. Ilaje trinkoa du, gehien bat gaztain-kolorekoa edo gorrixka dena, eta zertxobait argiagoa dena sabelaldean. Belarriak motzak eta borobilduak dira; hegoak, luzeak eta estilizatu samarrak dira. Tamainarengatik saguzar buztanluzearekin nahas daiteke, horrek tonu grisaxkak dauzkan arren; edo bere kidea den gau saguzar ertainarekin ere nahas daiteke, nahiz eta azken hori zertxobait txikiagoa izan.

Nahiz eta bere banaketa-area guttiz zehaztuta ez egon, gutxienez Europako mendebaldetik Asia erdiraino hedatzen da. Espainian ezagutzen diren zitek ez dute banaketa-eredurik adierazten, behaketa bakanak baitira. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Kantabriar Mendilerroan bakarrik egiaztatu da bere presentzia. Hala ere, frogatu gabeko beste zita batzuk ere badaude.

Saguzar hau europar faunako espezie ezezagunenetakoa da. Zuhaitz hostogalkorren baso helduak ditu gogokoen. Zuhaitzetako zulo eta pitza-duretan bilatzen du babesa, eta inoiz eraikinetan eta arroketako arrakale-tan ere bai. Kolonia txikiak eratzen ditu. Gazteak heldutasuna lortzen dutenean bereizten dira. Lekualdatzeko trebea da, hegalaria ona baita; hortaz, bere larreratze guneak zabalak dira; egunero mugitzen da babeslekuaren eta jateko lekuen artean, eta hamarreko hainbat kilometro egiten ditu.

Aireko ehiztaria da. Bere dieta koleoptero handiek eta txori txikiek osatzen dute. Izan ere, migrazio-paseetan hegaztiak sarri jaten dituela egiaztatu da. Ezaugarri hori duen latitude epeletako kiroptero bakarra da. Hegaldi arina eta zuzena du.

Populazioen egoera zein den ez dakigu. Ez dago ugaritasunari edo joe-rei buruzko informaziorik; baina bistan denez, espezie urria da. Bere baso-izaera kontuan izanik, faktore mugatzaileak ondokoak lirateke: baso-ustiapenetan zuhaitz zaharrak kentzeak babeslekuak galtzea eragiten du, eta intsektuen aurkako tratamendu masiboak erabiltzea ere.



Natterer saguzarra **Murciélago de patagio aserrado** *Myotis nattereri*

Ugaztun txikia da, bost-hamar gramo bitartekoa pisua duena; 37-42 mm-ko besaurrea du. Bizkarraldea arre grisaxka da eta sabelaldea argiagoa. Belarri luzeak, finak eta zeharrargiak dira, eta atzeko ertzean gutxi markatutako arraila daukate.

Europar, Asian eta Afrikako iparraldean banaketa zabala duen espeziea da. Gure lurraldean mendialde nagusietan eta kostaldean bizi da. Populazioak egoiliarak dira.

Espezie hau batez ere haitzulotarra da eta arroketako arrakaletan biltzen du babesia. Hala ere, hainbat habitatetan bizi da; zuhaitzen zuloetan ere koloniak eratzen ditu. Uda aldera, umatze-koloniak eratzen ditu, eta neguan bakartiagoa da edo talde txikietan biltzen da. Udazkenean ernaltu eta ekainean erditu ohi dira, eme bakoitzak urtean kume bakarra izaten du. Gazteak bigarren urtean hasten dira ugaltzen. Sedentarioa den arren, negu-toki eta umatze-babeslekuen artean lekualdatzen da, beti 90 km-tik beherako distantziak egiten ditu. Nagusiki dipteroz elikatzen da, eta maiz harrapatzen ditu ere adar eta hostoetako araknidoak, himenopteroak eta trikopteroak.

Oso ale gutxi ikusi direnez, badirudi saguzar hau nahiko urria dela. Hala ere, ez dakigu zein den populazioen joera. Europar erregresioan dago.

Erregresioaren eragileak dira babeslekuak galdu izana, zuhaitzetako hutsunerik ez egotea eta zuhaitzi zaharrak galtzea. Halaber, zaharberritzen ari diren eraikinetan zurari egiten zaizkion tratamenduek ere badute eragina.

Espezie hau kontserbatzeko beharrezkoa da zuhaitz zaharrak zaintzea, hauen hutsune eta arrakalek saguzar honi eta besteei babesia eman diezaieten. Babes-neurri berriak hartzea posible izango da populazioen garapena behatu, eta espezie honen beharrian ekologikoak eta arazoak aztertzen direnean.



Saguzar biboteduna

Murciélago bigotudo

Myotis mystacinus

Saguzar txikia da, 4 eta 10 gramo bitarteko pisua duena. Ezaugarri morfologiko esanguratsuenak goiko ezpainean bibote gisa antolatutako bi-brisa ugariak dira. Aurpegia, belarriak eta hegala-mintzaren kolorea arrebelzkara da, sabelaldean ordea kremak argi tonuetara hurbiltzen da gehiago.

Mundu-banaketak Palearktiko zati gehiena hartzen du, Europan mendebaldeko muturretik Pazifikoko Asiar kostalderaino. Espainiako zita eskasak erdi iparreko gunen menditsuetan aurkitzen dira gehien bat. Euskal Autonomia Erkidegoan, atlantiko-mediterraneo uren banalerroko mendi-kateetan eta beste zenbait mendi-gunetan egon badaudela egiaztatzen da.

Mendiko espezieetatik hartzen da batik bat, hostozabalen basoetakoa. Udako babeslekuak zuhaitzetako zuloak, azalak eta arroketako pitzatuak ere izaten dira, neguan ordea badirudi nahiago dituela tenperatura baxuko kobazuloak eta oxinak, bertan igaroko duelarik negua urritik martxora.

Badirudi araldia udazkenean izaten dela, abuztuan ugalketa aktiboan duten aleak aurkitu diren arren. Lehen urtetik aurrera ugaltzen dira. Ehiza-hegaldi arin, azkar eta bihurtasunarekin harrapatutako hegalariei artropodoak elikatzen dira. Batzuetan egunez ere jarduten dira. Lekualdatze motzeko espezie sedentarioa dela uste da.

Zita-kopurua mugatua da, oro har, Espainian, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoan ere. Horrek adierazten du espezie ezohikoa dela, eta aldi berean, bere egoerari buruz ezer gutxi jakitea eragiten du. Ez da zehaztu populazioen ugartasunean edo banaketan eragin dezaketen faktore mugatzaile edo arrisku-faktoririk. Hala ere, litekeena da pagadietako eta antzeko basoetako espezie menditarrekin lotura estua izatea, eta espezie bakana izatea zuhaitzi zaharrak urritzen ari direlako eta pestizidekin tratamendu fitosanitarioak egiten direlako.



Lepahoria

Marta

Martes martes

Ugatzun ertaina da, 55 cm-rainoko luzera izan dezake; 27 cm-rainoko isatsa dauka. Gorputz luzanga eta hanka laburrak ditu. Ilajea marroia da, eta bularrean eta zintzurrean orban horia dauzka, hori argia edo gorrixka, baina inoiz ez da zuria. Belarriak tente ditu, eta oso deigarriak dira.

Espezie honek banaketa eurosiberiarra dauka, Islandia eta Grezian baino ez da falta. Gure lurraldean Kantauri eta Mediterraneoko urak banatzen dituzten mendilerro handietan eta Karrantza eta Kantabriako mendilerroetan ageri da bakarrik. Zenbait puntu bakanetan ere aurkitu izan da.

Basoko espeziea da, eta zuhaitz hostoerorkorren baso ugari dauden inguruetan bizi da. Gauez aritzen da, baina zenbaitetan egunez eta egunsentian ere ageri da. Animalia bakartia da, bizitasun handikoa, eta erraz moldatzen da zuhaitzetan, nahiz eta lurretik mugitu. Arroketako arrakala, eta zuhaitzetako hutsuneak izaten ditu babesleku. Udan ernaltzen diren arren, enbrioia ren garapena ez da urtarrilera arte hasten eta bederatzi asteko ernaldiaren ostean, bi eta bost kume bitartean jaiotzen dira, normalean hiru. Familia-taldean ibiltzen dira udazkenara arte, eta ondoren, nork bere bidea egingo du, gurasoengandik bereizita. Zortzi edo hamar urte bizitzera hel daiteke. Batez ere ugatzun txikiak, hegaztiak eta fruituak jaten ditu. Narastiak, anfibioak, arrainak eta intsektuak ere ehizatzen ditu.

Ez da populazioaren tamaina ezagutzen, baina gutxi ikusten dira, eta horrek adierazten du dentsitatea txikia dela. Populazioaren joera ezezaguna da guretzat, eta eskualde batetik bestera aldatzen da.

Populazioek aurrera egin ahal izatea mugatzen dute oraindik ere pairatzen dituzten harrapaketek, eta egungo basoen ustiapen-sistemak kalte baino ez du egiten, zuhaitz zaharrak moztean, gutxitu egiten baita Lepahoriaren harrapakin kopurua, eta ondorioz, espeziea urritu egiten da.

Espezie hau kontserbatzeko, beharrezkoa da zaintzea zuhaitz zaharrak dituzten baso hostoerorkor handiak. Babes-neurri gehiago hartu beharko dira espeziearen egoera eta arazo zehatzak ezagutzean.



Elur-lursagua

Ratilla nival

Chionomys nivalis

Tamaina txikiko ugaztuna da; 14 cm-rainoko gorputza eta 75 cm-rainoko isatsa ditu. Isatsa beste lursagu batzuen baino luzeagoa da, goialdean ile grisak ditu eta behealdean zurixkak. Bizkaraldea arre grisaxka da, eta behealdean zurixka.

Banaketa palearktikoaren duen espeziea, eta bakarrik mendigune handietan ageri da. Hori dela eta, populazioak isolatuta daude. Gure lurraldean, hiru populazio bakartu baino ez dira aurkitu.

1.300 m-tik gorako larreen ertzetan kokatutako eremu harritsu, babes-
tu eta eguzkitsuetan bizitzea du gustukoen. Hala ere, hiru populazioetako
bat altuera pixka bat baxuagoetan bizi den. Animalia heliofiloa da, hau da,
bere jardueraren zati handia egunean zehar egin behar du. Ugalketa maia-
tzean hasten da. Emeez birritan erditu ohi dute, eta kumaldi bakoitzean
hiru kume izan ohi dituzte. Ia bakarrik landare berdeak eta bihiak jaten
ditu.

Gure lurraldean, badirudi populazioak, nahiz eta eskasak eta oso mu-
gatuak izan, egonkorak direla.

Ez da ezagutzen populazioak arriskuan jar ditzaketen faktorerik; izan
ere, badirudi hartzen duten inguruneak beraie jarraipena ziurtatzen duela.

Kontserbazio-neurriak hartu beharko dira espeziearen egoera eta arazo
zehatzak ezagutu ondoren.





*Interes
berezia
duten
espezieak*



Uhandre piriniarra

Tritón pirenaico

Euproctus asper

Urodelo honek gehienez 15 cm-ko luzera izan dezake, berezitasunik nabarmenena daukan azal zimurtsua da, ertz beltzak dituzten tuberkulu ugari dituen. Buru zanpatua, zapala du. Begiak txikiak eta konkortuak dira. Gorputza luzanga da, zirkulu-itxurako ebakidura du; gorputza eta bu-ruak hartzen duten luzeraren bestekoa da buztana, alboetatik zapaldua dena. Atzamarrak zapalak dira, eta amaieran ilunak, ia beltzak, diren azka-
zal antzekoak ditu, adarkarak direnak. Bizkarraldea arre grisaxka da, baina oso aldakorra da, oliba eta beltza ere izan daiteke eta. Orokorrean, gutxi gorabehera etengabeko marra bertebral hori edo laranja izaten du; sabelal-
dea banda hori edo laranja batek zeharkatzen du goitik behera.

Iberiar Penintsulako espezie endemikoa da, zehazki Pirinioetakoa. Mun-
du osoko banaketa mugatzen da Pirinioetako mendilerro eta mendi-adarre-
tara. Gure lurraldean Gipuzkoan, Leitzarango haranean baino ez da bizi, eta
populazio hori da espeziearen banaketa-arearen mendealdeko muga.

Espezie urtarra da, eta errekaetoetako goiko ibilguetan bizi da, mendi-
larre, pagadi eta konifero-landaketen artean. Leku horietako urak arinak,
sakonera gutxikoak eta freskoak izaten dira, eta hondo harritsuak izaten
dituzte. Ez da uretik ateratzen, eta gauez ibiltzen da nagusiki; udaberrian
hasten da ugaltzen, eta estaltzeek lau ordu ere iraun dezakete; barne-ernal-
keta ziurtatzeko arrak espermatoforo bat (espermatozoideak gordetzen di-
tuen masa) jartzen du. Emeak harri azpitan sakabanatuta uzten ditu 20
arrautza inguru. Larbak urte batean osatzen du bere garapena eta sexu-hel-
dutasuna 2-3 urte dituenean lortzen du. Heldua denean, era guztietako ha-
rrapakin urtarrak jaten ditu, hala nola, lur-zizare, molusku, krustazeo, in-
tsektu, intsektuen larbak, eta abar. Pirinioetako uhandrearen larbek, ordea,
diptero eta krustazeoen larbak harrapatzen dituzte.

Banaketa-arearen muga dagoenez, oso urria da espezie hau gure lurralde-
an; eta beraz, presentzia urri hori beste ezerk baino gehiago eragiten du bere
kokapen geografikoak. Dauden datuen arabera, populazioa egonkorra dirudi.

Uhandre Piriniarraren populazioaren mehatxu bakarra baso-jarduerak
dira; izan ere, espeziearen banaketa-arean jarduera horien ondorio nagu-
siak dira lurra eta enborrak mugitzea eta euri-urek materialak barreiatzea.
Hori dela eta, errekaetoen hondoa sedimentuz betetzen da. Ibaien goiko
tarteetan amuarrainak birpopulatzeak ere aleak galtzeko arriskua emenda
dezake, harrarapitza dela eta.

Populazioaren jarraipena ziurtatzeko era bakarra egur-esplotazioa eta
arrainen birpopulatzeak arautzea da; horrela, espeziearen eboluzioa ahal-
bidetuko da.



Apo ezproiduna Sapo de espuelas *Pelobates cultripes*

Anuru sendoa da, 10 cm-rainokoa. Buru zamakotea eta mutur borobila dauzka; begiak handi eta irtenak dira, eta begi-niniak bertikalak ditu. Gorputzadarrak labur eta sendoak dira. Oinek xehetasun bereizgarria eta nahastezina dute: ezproi adarkar beltza daukate, hareazko lurzoruan zuloak egiteko erabiltzen duena, barruan ezkutatzeko. Azal leuna dauka. Bizkarraldea oliba edo grisa da, eta orban arreak ditu; sabelaldea zuri lohia edo grisa da, eta batzuetan puntu beltzak ditu.


Europako kontinentean baino ez da bizi, bereziki Iberiar Penintsulan eta Frantzian. Gure lurraldean Mediterraneoko kutsu nabarmena duten Arabako Errioxako zenbait inguruetan baino ez da ageri, Ebro ibaiaren ertzetan. Agerpen puntualek adierazten dute gure lurraldea espeziearen penintsulako banaketaren iparraldeko muga dela.

Espezie hau bizi da Ebro ibaiaren terrazetan, zerealen laborantza-lurretan, ureztatze- eta lugorri-guneetan. Aldi baterako putzuetan ugaltzen den espezie lehortarra da, eta uretara ugalketa-garaian baino ez da hurbiltzen, udaberrian, arrautzak jartzera, hain zuzen ere. Batez ere gauez ibiltzen da. Parekatzeak edo amplexus delakoak zenbait egun irauten du, eta arrautzak kordel luze baten antzera erruten ditu, landareei lotuta. Larbak 15 cm-koak dira, eta metamorfosi osteko apo txikiak 3 cm-koak. Helduak oso jatunak dira, eta nagusiki intsektu eta inurriak jaten dituzte; baina bes-telako harrapakinak ere jaten dituzte: araknidoak, lur-zizareak, moluskuak, eta abar. Lehorte luzeak dauden garaietan lurpean sartu eta ez da irteten lehen euriak jausi arte. Bere burua arriskuan edo larri sentituz gero ere lurpean sartzen da.

Oso leku gutxitan, eta ale bakan batzuk baino ikusi ez direnez, populazioa txikia dela eta bakartuta ageri ohi dela esan genezake. Ez dakigu populazioa egonkorra den edo aldatzen ari den.

Espezie honen informaziorik ez dagoenez, anfibio guztien gainbehera eragiten duen faktorea da urmael, putzu eta aintzirak desagertzea. Izan ere, ugalketarako habitata gutxitu eta populazioak hedatzea mugatzen du.

Kontserbatzeko neurriak hartu beharko dira espeziearen arazo zehatzak ezagutu ostean.



Baso-igel iberiarra

Rana patilarga

Rana iberica

Sei cm-tik beherako tamaina txikiko eta forma xeheko anurua da. Gorputzadarrak finak eta atzekoak luzeak dira, eta horiei esker salto handiak egiteko gai da. Oinetako hatzak mintz batez lotuta ditu. Azala leuna du, pikortsu samarra, eta bizkarraldean luzetara bi tolestura ditu. Hainbat koloretakoa izan daiteke, baina nagusi dira arre ilunak edo gorrixkak; maiz orban beltzak izaten ditu, eta zenbaitetan gorputza oso iluna izaten du. Begi eta aho-ertzen artean aldi baterako orban gorria du. Sabelaldea zuri lohia edo arrea da eta orban beltz ugari ditu; zintzurak sare-egitura dauka, Erdiko aldean izan ezik.

Jatorria ipar-mendebaldean duen endemismo iberikoa da. Penintsularen iparraldean bizi da, Galiziatik Gipuzkoaraino. Hegoalderantz Sistema Iberiko Zentralera heltzen da. Gure lurraldean ipar-mendebaldeko eremuan sakabanatuta ageri da: Bizkaian eta Arabako zati batean, beretzat egokiak diren inguruetan ageri da, kostan hasi eta estai muinotarreko Erdiko kotetaraino. Beste zenbait leku isolatutan ere ageri da, adibidez Gipuzkoan.

Bigarren mailako ubideetan baino ez da bizi, mendiko errekaetoetan eta antzekoetan, igarotzen dituen inguruak direnak direla ere. Nahiago ditu substratuan arroak eta ertzean landaredia dituzten ibaiak. Lehortarra da, baina uretara oso lotuta bizi da, uretik hurbil, erreka-ertzetan edo ur-ibilguen ingurutako harrien artean. Izutuz gero, uretara egiten du salto. Egunez zein gauez ibiltzen da. Ugalketa udaberrian izaten da; amplexusak uretan dira eta errundako 400 arrautzak, emeek masa trinkoetan jarri eta urazpiko harrien azpian itsasten dituzte. Intsektu, molusku eta araknidoak jaten dituzte.

Inguru egokietan ohikoa da, baina ez dentsitate nabarmenetan, eta toki gehienetan ale gutxi eta bakartuak ageri dira. Badirudi nahiko ugaria den inguruetan populazioak egonkorak direla. Hala ere, ale gutxi ageri diren lekuetan, espeziearen biziraupena uren kalitateari lotuta dago.

Espezie honen mehatxu aipagarrienak dira erreketako landaredia suntsitzea, eta ondorioz, habitata hondatzea, ibai-hondoa eraldatzea, beharrezko emaria utzi gabe ura hartzea eta industriako edo nekazaritza- eta abere-ustiapenetako hondakin kaltegarriak isurtzea. Arrain-birpopulatzeak ere ez du eragin onik.

Espezie hau kontserbatzeko, beharrezkoa da habitataren osotasuna ziurtatzea, eta behar besteko emaria eta ur-kalitate ona bermatzea, bai eta ubide eta errekaetoak eraldatzen ez direla ziurtatzea ere.



Gardatxoa

Lagarto ocelado

Lacerta lepida

Europako sauriorik handiena da, 20 cm-tik gorako luzera izan baitezake burua eta gorputzaren artean; buztana luzera osoaren bi heren da; eta beraz, animalia 60 cm-koa izatera irits daiteke, eta inoiz ere 90 cm-koa izatera heldu da. Oso sendoa da, gorputzadar gogorrak ditu, eta oinetan azkazalak ditu; burua izugarri handia da. Bizkarraldea hori-berdexka da, eta sare-itxurako irudi beltza dauka; saihetsen gainean ozelo urdinak nabarmentzen dira. Sabelaldea horia da. Gazteak oliba-kolorekoak dira, eta bizkarraldean beltzez inguratutako orban hori edo zurixkak izaten ditu orbanok urdinak izan ohi dira saihetsetan.


Espezie iberikoa da, eta Europan Iberiar Penintsulan, Frantziako hegoaldean eta Italiako ipar-ekialdean baino ez da ageri. Gure lurraldean, Mediterraneoko eskualdean bizi da, Arabako Errioxan. Bertan banaketa uniforme da, eta Ingleasko haranetik eta Baia-Zadorrako pasabidetik iristen da Urkila-Elgea mendilerroetako mendi-magaletara.

Batez ere Mediterraneoko zuhaixkadietan bizi da, baina mahasti eta zereal-soroen bazterretan ere ageri da; gustuko ditu zuhaixka-geruzak, belar-geruzak eta baita lur eta arroka gutxiko substratuak ere. Eskualde subkantauriarrean ageri da laborantza-soro eta karraska-basoetako bazterretan edota sastrakak dituzten karraska-basoen argiuneetan. Azkarra eta abila izateagatik nabarmentzen da. Egunez ibiltzen da eta iheskorra da; zulo txikietan bilatzen du babes, eta igokari ona denez ez du zuhaitzetara igotzeko dudarik. Lurraldekoia da eta bere txokoa defendatzen du. Udaberrian parekatzen da; arrautzak, 10 aletik 20ra bitartean, emeak lurrean egindako zuloetan jartzen ditu. Kumeak irailean jaiotzen dira. Noiz behinka emeek bi errunaldi izaten dituzte. Orojalea da, era guztietako harrapakinak jaten ditu: intsektuak, araknidoak, moluskuak, lur-zizareak, sugandilak, karraskari txikiak, txoritxoak eta hegaztien arrautzak. Nektarrez eta fruitu gozoz ere elikatzen da.

Espezie hau askotan ikusi da, baina kopuru txikietan, batez ere bere banaketa-arearen iparraldeko gunean. Badirudi populazioak egonkorrak direla, baina, nekazaritza-lanen eraginez habitata desagertu eta zatitzearen eta populazioak isolatzearen ondorioz dentsitatea jaitsi eta espeziea pixkanaka iraungi daiteke.

Populazioengan eragin kaltegarria duten faktoreak honakoak dira: habitata eraldatzea, gutxitzea edo desagertzea, eta gizakiaren jazarpena.

Beharrezkoa da espeziearen habitata zaintzea, oso anitza den arren, beti ageri baita lotuta Mediterraneoko baso eta sastrakadie.



Schreiber muskerra

Lagarto verdinegro

Lacerta schreiberi

Hamar cm inguruko saurio ertaina da. Burua gorputz-tamainarekiko proportzionatua da, gorputza luzanga da, gorputzadar sendoak eta hatzetan azkazalak ditu. Luzetara eta 8 lerrotan ditu ezkata bentralak. Arrek bizkarralde berdexka dute, beltzez erretikulatua, eta sabelaldea horixka da, eta orban beltz ugari ditu. Emeen bizkarraldea arre edo berdea da, eta ez dituzte beti orban beltzak izaten. Araldian sexu bietako muskerrek zintzurrean eta buruaren bi aldeetan orban urdin bizia izaten dute. Orbanak intentsitate txikiagoa dauka emeetan. Gazteak arre berdexkak izaten dira, eta orban bertikal zuri-lohiak dituzte. Beltzez inguratuta egoten dira orbanok saihetsaldean.


Mendebaldeko endemismo iberiarra da, Penintsula Iberikoaren mendebaldean, erdialdean, eta ipar-mendebaldean hedatzen da. Gure lurraldean isurialde atlantikoko iparraldeko erdialde osoa hartzen du, eta bakartuta ageri da Gipuzkoako kostatik hurbil edo kostako zenbait puntutan. Itsas maila eta estai muinotarraren artean bizi da, gorago igo gabe.

Hainbat landazabaletan bizi da. Nagusiki ageri da landaredi oparoa duten harrizko hormetan, sastraka eta basoen bazterretan, artadi kantaauriarretan eta hauen fase andeatuetan. Kostako landetan ere ageri da; zenbaitetan inguru higroturbosoetan ikusi da, batez ere musker berdearekin kontaktuan dagoenean. Egunez ibiltzen da, betiere landarediaren artean erdi ezkutatuta. Inguru heze eta errekaetoetatik hurbil ageri ohi da. Lurraldekoia da eta bere ingurua babesten du beste arrik sar ez dadin. Araldia udaberrian izaten da. Emeak 15 mm inguruko 5-24 arrautza errun ohi ditu lurzoruko zulotxoetan, harrien azpian edo enborren azpian. Kumeak iraillean jaiotzen dira. Elikagai ugari dituzte: intsektuak, araknidoak, moluskuak eta lur-zizareak, baita zenbait fruitu gozo ere.

Kopurua zeharo aldatzen da herri batetik bestera. Ohikoa da, eta nahiko ugaria gainera, Bizkaiko kostaldean; noizean behinekoa barrualdean eta bakana da ipar-ekialdean. Badirudi populazioak egonkorrak direla.

Espezie honen mehatxurik handiena inguruaren aldaketa da, dela konifero-landaketek haien habitata ordezkatzen dutelako, dela inguru egokia txikitu delako edo honen kalitateak txarrera egin duelako, basogintzaren eta nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueren eraginez.

Populazioen iraupena bermatzeko beharrezkoa da habitatak zaintzea, eta horretarako konifero-landaketa gehiegi egotea ekidin, eta bazterretako landareak, hesi bizia, etab. irautea bermatu behar da.



Txaradi-sugandila Lagartija colilarga *Psammodromus algirus*

Muturretik kloakara 8 cm-ko luzera duen saurio ertaina da, buztana gorputza baino ia bi aldiz luzeagoa da. Alboetako ezkatat handiak dira eta karenatuta ageri dira, hots, albo-gila bat dute. Bizkarraldean arre grisaxka da, eta alde banatan bi banda zurixka edo horixka ditu. Sabelaldean zuri horixka da. Araldian arrak ozelo urdinak ageri ditu aurreko gorputzadarretan, eta zintzurra laranja izaten du. Dituen kolore guztiak hitsak dira, landareen artean ezkutatzeke.

Europar, bakarrik ageri da Penintsulan eta Frantziako hego-ekialdean, bai eta Afrikako iparraldean ere. Gure lurraldean, Mediterraneoko eskualdean ageri da era erregularrean. Arabako Errioxan eta Ingleares eta Ebroko haranetan barneratu eta Sobron ingururaino iristen da.

Mediterraneoko komunitateetan bizi da, batez ere, Mediterraneoko sastrakadietan eta argiuneak dituzten edo andeatuta dauden basoetan. Zuhaitza-geruza atsegin du, haietara igo ahal izateko. Zuhaitzetan ibiltzeko ohitura du, sastraketara igotzen da, elikagai bila, bai eta babes bila ere arriskuen aurrean; han, geldi-geldi geratzen da, duen mimetismoaz baliatuz. Batzuetan harea artean lurperatuta ezkutatzen du bere burua. Udaberrian parekatzen da, eta emeak 3 eta 11 arrautza bitarteko zenbait errunaldi izan ditzake udan zehar. Arrautzok lur xehearen azpian edo zuhaitxkaren baten oinean uzten ditu. Gazteek kolore hitsak izaten dituzte, grisak, eta buztana pittin bat gorrixka dute. Sugandila hau oihu xume bat egiteko gai da harrapatzen dutenean. Intsektu, araknido eta moluskuak jaten ditu.

Ageri den toki gehienetan oso urria da, nahiz eta zenbait puntu bakanetan ugaria izan, hedadura eta inguru egokia dituenean, hain zuzen ere. Badirudi populazioak egonkorak direla, baina habitata gutxitzeak populazioak urritzea eragin dezake.

Espezie honen mehatxurik handiena da bere inguruko landaredia eraldatzea, gutxitzea eta suntsitzea. Habitataren zatiketaren eta nekazaritza-erabileraren eraginez bakartuta dauden populazioek espeziea pixkanaka urritu eta galzorira daramate.

Beharrezkoa da berezko habitataren iraupena ziurtatzea, oso anitza dena, baina Mediterraneoko sastrakadi eta basoekin lotura handia duena.



Suge berde-horia

Culebra verdiamarilla

Coluber viridiflavus

Bi metrorainoko ofidio handia da, baina normalean ez da metro eta hogeita hamar zentimetro baino luzeagoa. Buztana oso luzea da, 50 cm-ainokoa. Burua meharra eta luzanga da, eta muturra borobila dauka. Bizkarraldean, fondo beltz edo berde ilunaren gainean marra hori meheak ditu lerroka; buztan osoa lerro hori eta beltzez marratua dauka. Sabelaldea horixka da eta tonu berdexka, horixka, gorrixka edo urdinxkak izan ditzake, baina ez du orban beltzik. Ale gazteen bizkarraldeak grisera jotzen du, eta orban hori eta beltz nabariak dituzte; burua beltza dute. Espezie aglifoia da, hau da, ez du hortz pozoitsurik eta ez da gizakiarentzat kaltegarria.

European, batez ere Italiako Penintsulan eta Frantzian ageri da. Suitzara ere hel daiteke eta Iberiar Penintsulan Pirinioetako zerrenda estu batean baino ez dago. Gure lurraldean, Gipuzkoan ipar-ekialdean ale bakan batzuk behatu dira, hango bi tokitan.

Zuhaitz hostoerorkorren basoetan bizi da, hariztietan eta baso mistoetan, eta baita konifero-basoetan ere. Basoen bazter eta argiuneetan ageri da. Inguru lehor, eta batez ere, kare-harrizko inguru harritsuetara jotzen dute. Lehorreko eta eguneko animalia da. Zuhaitzetan ibiltzeko ohitura du; trebetasun handiz igotzen da zuhaitz eta zuhaixken goiko adarretara, eta han eguzkitan berotzea du gogoko. Azkarra eta erasotzailea da, ez du dudarik egiten arriskuen aurrean hozka egiteko. Udaberrian ernaldutako ekainean 2-4 cm inguruko 6-7 arrautza errun ohi ditu. Kumeak irailean jaiotzen dira eta 20-25 cm-koak dira. Denetik jaten dute, eta mikrougaztuenak eta hegaztiak ohiko elikagaiak dira; musker eta sugandilak ere harrapatzen ditu. Harrapakin guztiak osorik irensten ditu. Hegaztiak edo txitak gehienetan habietan harrapatzen ditu.

Ezohikoa da, noizean behin baino ez baita ageri. Espeziea European, Frantzian barne, geografikoki hedatzen ari den arren, ez da oraino Iberiar Penintsulan alerik ikusi.

Espezie honen mehatxu handienak hauek dira: bizi den habitata eraldatzea, gutxitzea eta suntsitzea, batez ere hesi biziak eta hauen inguruak. Halaber, kolubridoekin gertatzen den bezala, gizakiak ale asko hiltzen ditu.

Komenigarria da paisai anitza sustatu eta bultzatzea, besteak beste, nekazaritza- eta abeltzaintza-lursailak heskai bidez banatzea. Egokia litzateke ere espezie hau ageri den basoak iraunaraztea; eta noski, behatutako aleak hiltzeari uztea, egun, ekintza hau ez dago-eta inolaz ere zuzenetsia.



Eskulapioren sugea

Culebra de esculapio

Elaphe longissima

Orotara luzeran 2 metro izatera irits daitekeen ofidio handia da, baina normalean ez da metro eta berrogei zentimetrora heltzen. Luzanga da, eta buru oso luzea eta mutur borobila ditu. Bizkarraldea oliba-kolorekoa, marroi berdexka edo arre argia da, uniforme oso; bizkarraldeko ezkatetik punta zuriak dituzte atzeko muturrean. Sabelaldea hori argia da, orbanik gabea. Ale gazteek buruan orban deigarriak dituzte, horiak edo marroi ilunak. Espezie aglifoia da, hots, ez du hortz pozoitsurik eta bere koskada ez da kaltegarria gizakiarentzat.


Europar espezie ugaria da, hego-erdialdea hartzen du, Italiako eta Balkanetako Penintsulak barne. Gure lurraldean Atlantikoko aldean baino ez da ageri, non, oinaldeko estai eta estai muinotarrean barreiatuta dagoen, uren banalerrotik kostaraino.

Habitat higrofiloetan bizi da, hala nola, baso misto heze eta hostoerorkorren basoetan; baso hauen barnean zein bazter eta argiuneetan ageri da, baita landazabaletan ere. Beraz, esan daiteke baso-ertzei, heskaiei eta abarrei dagokien elementua dela. Hezetasun handirik gabeko inguru eguzkitsuak behar ditu, baina idor edo lehorrak ez direnak eta landare asko dituztenak. Espezie lehortarra da, egunez aritzen da eta zuhaitzetan ibiltzeko ohitura du; gustuko du zuhaitzetan gora egitea, bero, atsedean, edo elikagai bila. Sarritan, zenbait egun jarraian ematen ditu, baita 15 ere, zuhaitzetako adarrik altuenetan; oso abila da eta gainazal ia lauetatik gora egin dezake. Udaberrian parekatzen dira eta emeak 2x4 cm-ko 6-20 arrautza erruten ditu. Kumeak irailean jaiotzen dira, eta 25 cm ingurukoak dira. Habitatan harrapatzen dituen mikrougaztunak eta hegaztiak jaten ditu, eta osorik irensten ditu harrapakinak estututa hil ostean.

Orokorrean, urria da eta soilik esan daiteke inguru egokietan ohikoa eta ugariagoa dela. Espeziearen populazioen gainbehera ageri-agerikoa da, gizakiaren esku-hartzea dela medio.

Pairatzen dituen mehatxurik handienak hauek dira: gizakiak zuzenean hiltzea eta errepideetan harrapatzea. Aipatu beharrekoak dira ere erabiltzen duen habitata eraldatzea, gutxitzea eta suntsitzea.

Espezieak behar du erabiltzen dituen habitatak zaintzea. Horretarako, paisai anitza sustatu eta bultzatu behar dira, non, nekazaritza eta abeltzaintzarako lursailak heskaiei bidez bananduta egongo diren. Eta nola ez, behatutako aleak hiltzeari utzi eta errepideetan harrapatzea saihestu behar da.



Eskailera-sugea

Culebra de escalera

Elaphe scalaris

Ofidio handia da, normalean, ez da metro bat baino luzeagoa, baina metro eta erdi izatera irits daiteke. Buru laburra eta mutur zorrotza ditu. Bizkarraldea arre argia da eta ezaugarri berezia du: bi banda paralelo marroi ilun ditu gorputz osoan zehar, eta gazteetan zeharkako marra batzuek batzen dituzte. Zeharkako marra horiek ematen diete izena espezieari. Sabelaldea uniforme da, zurixka edo horixka eta orbanik gabea, gazteetan salbu. Aglifo da, hau da, ez du hortz pozoidunik; beraz, bere koskada ez da gizakiarentzat kaltegarria.

Penintsula ia osoan bizi den espezie iberiarra da; Frantziako hego-ekialdean ere ageri da, kostatik doan zerrenda batean, Italiaraino heltzen dena. Gure lurraldean, Mediterraneoko aldean bizi da, Arabako Errioxan eta Inglares eta Ebroko haranetan barneratu eta Sobron ingurura heltzen da.

Mediterraneoko sastrakadietan ageri da, dauden baso mediterraneo urrietan, konifero-basoak direla, edo artadiak direla, baita soroen bazterretan ere, batez ere, landaredi-eraketa naturalekin kontaktuan daudenetan; belar- eta sastraka-geruza oparoak ditu gogoko. Espezie lehortarra da, eta egunez ibiltzen da. Gora egiteko oso trebea da; oso sendoa da eta horrek bizkortasun eta krudelkeria berezia ematen dio. Erasotzailea da, eta asal-datzen duen edozerri aurre egiten dio eta era ikusgarrian defendatzen du bere burua. Udaberriaren amaieran parekatzen dira eta emeak 6 eta 24 arrautza artean erruten ditu, 2x5 cm-koak. Hainbat harrapakin jaten ditu: mikrougaztunak, hegaztiak, sugandilak eta muskerrak; estutuz hiltzen ditu. Gazteek lehenengo hilabeteetan matxinsaltoak jaten dituzte.

Bakan samarra da, eta populazioak ez dira oso ugariak. Badirudi egonkorra dela, baina habitata galtzeak populazioen beherakada eragin dezake.

Espezie honen mehatxuak dira bizi den habitata eraldatzea, gutxitzea eta suntsitzea, eta beste kolubridoekin gertatzen den bezala, gizakiak bakanakoak hiltzea.

Beharrezkoa da populazioen iraupena bermatzea. Horretarako, animalia hau bizi den habitata zaindu behar da, oso anitza dena, baina beti lotuta ageri dena Mediterraneoko baso eta sastrakadie. Eta, noski, behatutako aleak hiltzeari utzi behar zaio, egun, inolaz ere onesten ez den ekintza baita.



Montpelierko sugea

Culebra bastarda

Malpolon monspessulanus

Europako ofidiorik handiena da, bi metro eta erdi neurtzera irits baitaiteke; hala ere, normalean ez da metro eta erdia baino luzeagoa. Gorputzaren lodiera nabarmena da; gainontzeko ofidioak lirainagoak dira. Burua luzea da. Bizkarraldea berdea edo arrexka da, batzuetan oliba-kolorekoa, eta baditu orban beltzak eta alboetan ere orban hori gutxi batzuk; gorputzaren aurrealdea oso belztua du. Sabelaldea horixka da, atzealdean ilunxeagoa. Gazteen kolorea oso deigarria da: bizkarraldean orban hori, zuri edo arreak ditu, buruan orban argi eta ilunak, eta ezpain-ezkatetan ozeloak ditu. Opistoglifoak da, hau da, hortz pozoitsuak ditu masail-hezurraren atzeko aldean. Pozoiak harrapakinak paralizatu, eta, batez ere, digestioan entzimak jaria daitezen laguntzen du.


Europan ageri den espeziea da, Iberiar Penintsula eta Balkanetan, bertuko kostazertendatan eta Afrikako iparraldean. Gure lurraldean, Mediterraneoko zonaldean ageri da, Arabako Errioxan, eta Ingalres eta Ebroko haranetan barneratu eta Sobron ingurura heltzen da.

Mediterraneoko sastrakadietan ageri da, dauden baso mediterraneo urrietan, konifero-basoak direla, artadiak direla eta, batez ere, inguru horretako soro, ureztatze-sail, fruta-arbola eta mahastietan; askotan, baso naturalekin kontaktuan ere ageri da. Lehortarra da, egunez ibiltzen da, eta erasotzailea da oso; era ikusgarrian babesten du bere burua aurkariengandik, eta ez du gizakiari aurre egiteko dudarik. Udaberrian parekatzen dira; emeek 1,5x5 cm-ko 4-18 arrautza erruten ditu, eta kumeak iraila inguruan jaiotzen dira, eta 25 cm-koak dira. Narrastiak, saurioak zein ofidioak, ugaztunak eta hegaztiak jaten ditu. Gazteek sugandilak harrapatzen dituzte.

Espezie hau nahiko bakana da, gehienetan populazioak ez dira oso ugariak. Badirudi populazioak egonkorak direla, nahiz eta habitata galteak hauen beherakada eragin dezakeen.

Jasaten dituen mehatxuak hauek dira: bizi den habitata eraldatzea, gutxitzea eta suntsitzea; eta beste zenbait kolubridotan bezalatsu, gizakiak banakoak hiltzea eta errepideetan harrapatzea.

Beharrezkoa da populazioen iraupena bermatzea. Horretarako, animalia hau bizi den habitata zaindu behar da, oso anitza dena, baina beti lotuta ageri dena Mediterraneoko baso eta sastrakadietara. Eta, nola ez, behatutako aleak hiltzeari utzi eta errepideetan harrapatzea saihestu behar da.



Murgil handia

Somormujo Lavanco

Podiceps cristatus

Berrogeit hamar cm-tik gorako urtar liraina da. Lumaje bereizgarria du, batez ere eztei-aroan, buruan bi motots beltz eta bi lepoko arre baititu. Gorputzaren behealdekoa zuria da, eta bizkarraldekoa iluna, ia beltza; aurpegia zuria da. Lepoa eta mokoa luzangak dira. Neguan lepokoak galtzen ditu, baina bereizgarria da, itxuraz gain, masailetakoa, lepoaren aurrealdekoa eta bularreko tonu zurien eta bizkarraldeko tonu ilunen arteko kontrasteari esker.

Gure lurraldean, Mediterraneoko isurialdean baino ez da bizi. Umatze-garaitik kanpo, alde atlantikoan ere ageri da, batez ere kostan eta estuario-etan. Egoiliarra da, eta ipar-latituetatik populazio negutarrek etortzen dira.

Hezegune natural edo artifizialetara, besteak beste, urmael eta ureztatze-putzuetara, lotuta bizi da. Nahiago du azaleratzen den uretako landare-di ez oso dentsoa, eta zenbait metroko sakonera duten ur-azalera handiak, landararik gabeak. Paregabeko urpekaria da, murgilketa luzeak egiten dituen. Hegaldia zuzena da, nahiz eta horrela mugitzea asko gustatu ez. Arriskuen aurrean, murgildu eta ihes egiten du. Eztei-dantza oso ikusgarria da: arrak eta emeak aurrez aurre egiten dute igeri eta txandaka buruak biratzen dituzte. Habia flotagarria egiten du uretan, gehienetan ertzetik hurbil, uretako landareekin. Urtean behin 3-4 arrautza errun ohi ditu; txitak lehenengo egunetan gurasoen bizkarraren gainean lekualdatzen dira. Arrainak, anfibioak, moluskuak eta artropodoak jaten ditu; dietan landareen bat ere sar dezake.

Ugal daitekeen populazioa 70 bikote ingurukoa dela uste da, eta soilik Ulibarriko urmaeletan 30 bikotek egiten dute habia. Azken hamar urteetan, geografia- eta demografia-hazkunde nabaria egiaztatu da.

Espezie honentzat kaltegarriak diren eraginen artean aipatzekoak dira batetik, zingira-landaredia suntsitzeak animalia honen habitata hondatzen baitu; eta bestetik, eta neurri txikiagoan, umatze-garaian uren maila aldatzeak duen eragina.

Espezie hau kontserbatzeko bermatu beharko da umatze-inguruak babestea eta uren oszilazioak gutxitzea; adibidez, urmaelen azken aldeetan ur-geruza presatuak sortzea.



Txilinporta lepabeltza **Zampullín Cuellinegro** *Podiceps nigricollis*

Hogeita hamar cm inguruko espezie urtar ertaina da. Eztei-lumajea duenean, burua eta zintzurra beltzak ditu, eta begien atzean hasten den urre-koloreko mototsa dauka. Saihetsak arreak dira, bizkarraldea beltzezka da eta sabelaldea zurixka. Buruaren soslai oso bereizgarria da: gorantz pixka bat kurbatutako mokoa eta bekoki altua dauzka. Neguko lumajean, buruaren goialdea eta bekokia ia beltzak dira, gorputza eta zintzurra grislohiak eta popa zuria eta zarpaila.

Mundu osoan banaketa zabala duen espeziea da: Eurasian, Ipar Amerikan eta Hego Afrikan bizi da. Gure lurraldean, hegazti negutarra da eta ageri da kostaldean —oso arraroa bada ere— eta barnealdean, Ulibarriko urtegian, hain zuzen ere.

Estuarioetan eta urtegi handietan bizi da, babestuta dauden kostalde eta barnealdeko hezegune handiak baititu gustuko. Habia egiteko nahiago ditu laku eta urmaelak. Urpekari ona da, eta urazpian erdi-mailako iraunkortasuna dauka. Iheskorra da, eta uretan baino denbora luzeagoa ematen du landareen artean; hala ere, neguan ingurune irekiagoetara jotzen du. Oparo samarrak diren kolonietan ugaltzen da; habia egiten du sakonera txikiko ur-eremuetan, landareen artean ezkutatuta. Normalean urtean behin 3-4 arrautza erruten ditu. Arrainak, anfibioak, artropodoak, moluskuak eta krustazeoak jaten ditu.

Urtetik urtera, 50 ale negutar daude. Horietako 30 Ulibarrin bizi dira. Badirudi azken urteetan ale gehiago ikusi direla, batez ere lurraldearen barneko hezeguneetan.

Habiak egiteko garaian espezie honen mehatxu handienak habitata eraldatzea, aleak harrapatzea eta gizakiak egindako eragozpenak direla aipatzen da. Hala ere, negutarra izatearen inguruan ez dirudi arazo handirik duenik.

Espezie hau kontserbatzeko komenigarria litzateke espeziearen ne-gualdiko behaketa-programarekin jarraitzea, espeziearen eskakizunak eta bilakaera aztertzeko; horrela, beharrezkoa izatekotan, kontserbazio-neurriak hartu ahal izango dira.



Txori zezen arrunta

Avetoro Común

Botaurus stellaris

Laurogei cm-rainoko tamaina handiko hegaztia da, eta itxura pixka bat mozkotea dauka. Arrea, arre-urreea eta marraduna da. Goialdea, burua barne, marratua da eta tanto beltzak ditu; behealdea, berriz, argiagoa da. Moko hori berdexka da eta hanka berdeak dira.

Palearktiko erdialdeko latitudeetan bizi den espeziea da, eta Afrikako hegoaldean populazio bakartu bat dauka. Gure lurraldean migratzailea eta noizean behineko negutarra da eta Urdaibain, Txingudin eta Ulibarrin ikusi da.

Kostako zein barnealdeko inguru hezeetan bizi da. Habitataria dagokionez, espezie zorrotza da, sakonera gutxi eta zingiretako landare ugari dituzten hezegune zabaletan bizi baita. Batez ere egunsentian aritzen da, normalean landareen artean egoten da bakarka eta erdi ezkutatuta, eta kanabera eta adar artean mugitzen da. Gutxitan egiten du hegan eta hargatik animalia hau behatzea biziki zaila da. Gehienetan arraren oihuari esker jakiten da bertan dagoela, marruarekin nolabaiteko antza duen durundia baita, hainbat kilometroko distantziaz entzun baitaiteke. Landareen artean egiten du habia handia, lezka edo uretako landareen artean. Urtean behin 5-6 arrautza errun ohi ditu. Arrainak, anfibioak, eta uretako beste zenbait ornodun txiki jaten ditu, bai eta artropodoak, moluskuak, krustazeoak eta zenbait landare ere.

Europako populaziorik handienak Holanda, Frantzia, eta Alemanian daude, eta Euskal Autonomia Erkidegoan lau tokitan baino ez da aipatu. Populazioak beheraka egiten ari dira Europan, nahiz eta Iberiar Penintsulan pixkanaka suspertzen ari dela dirudien.

Habitat egokirik ez egoteak mugatzen du gure lurraldean habiak erakitzea. Gainera, aipatzekoa da ehiza oraindik banako negutarrentzat kaltegarri izaten jarraitzen duela. Europan, ehizaren eragin kaltegarriaz gain, gainbeheraren eragilea da lezkadiak —espezie honen habitat gogokoena— galdu eta eraldatzea. Halaber, ez da uren kutsaduraren eragin negatiboa ahaztu behar.

Espezie hau kontserbatzeko, gure lurraldeko hezeguneak babestea ziurtatu eta kostaldean ezkutuko ehiza saihesteko beharrezko neurriak hartu behar dira.



Lertxuntxo karramarrozalea

Garcilla Cangrejera

Ardeola ralloides

Berrogeita hamar cm-rainoko hegazti handia da, eta gorputz mozkotea dauka. Motots luze eta zintzilikari nabarmena dauka, bereziki ugalketa-garaian ikusten dena. Bizkarraldea arre argia edo horixka da, eta hegoak eta ipurtxuntxurra zuriak dira. Buruan eta lepoan marra finak edo orbanak ditu. Mokoa eztei-garaian berdexka edo urdinxka da, eta punta beltza dauka; hanka berdexka edo horiak ditu neguan, eta gorrixkak udaberrian.

Eurasiako mendebaldeko erdialdean eta Afrikan ageri den espeziea da. Gure lurraldean dozena erdi bat aldiz behatu da kostaldean eta Ulibarriko urtegian. Beraz, noizean behin baino ageri ez den hegazti migratzailea da.

Umatze-garaitik kanpo dagoenean ia edozein hezegunetan ageri da, baina habia egiteko nahiago ditu ur gezak hartutako eremuak, sakonera txikia dutenak. Bakartia da eta egunez eta egunsentian aritzen da. Udazketan talde txikietan batzen da. Hegaldia beste ardeida batzuen baino azkarragoa da, baina, batez ere lurzorutik lekualdatzen da ongi, landare, kanabera eta adarren artean, eta hauetara erraz igotzen da. Kolonietan edo bakarka egiten du habia, zingira-landaredi, zuhaitz, zuhaixka, kanabera edo lezkadietan. 4-6 arrautzako errunaldi bakarra dute, eta batez ere emeak txitatzen du. Bakarka elikatzen da, zelatan edo aukera sortu ahala. Dieta animalia urtar edo erdi urtarrek osatzen dute.

Iberiar Penintsulan badirudi ale-kopuruak gora egin duela; Europan, ordea, erregresio-joera dauka. Gure lurraldean, behatu direnak beti ale bakanak izan dira.

Populazioen erregresioa eragin duten faktore nagusiak hauek dira: bizi den habitata suntsitzea, eraldatzea eta desagertzea, eta umatze-kolonietan jasaten dituzten eragozpenak.

Zeharka eragiten duten faktoreak kontserbatzeko, hezeguneak babestu eta hobetu behar dira, horrek espezieak aurrera egitea eragin baitezake.



Sai arrea

Buitre Leonado

Gyps fulvus

Harrapari handia da, metrotik gorakoa. Burua eta lepoa ez dituzte lumek estaltzen, lumatxa labur eta zurixkek baizik. Bizkarraldekoa arre iluna da, eta hegoak eta buztana —motza dena— ilunagoak dira. Mokoak eta hankak grisak dira.

Europar eta Asiako bizi den espeziea da. Europan, bereziki Mediterraneoan herrialdeetan ageri da. Populazio Iberiarra da garrantzitsua. Gure lurraldean, ugaltze-koloniak hiru lurralde historikoetan banatzen dira, nahiz eta populazioaren zati handiena Arabako mendebaldeko mendizerretan egon. Izan ere, kolonia garrantzitsuenak Valderejo, Sobron eta Salbada Mendilerroan daude.

Animalia hau inguru menditsuetako haitzetan bizi da, baldin eta elikagai nahikoa badu, hots, azienda ugari baldin badute, hildako abereak jaten baititu. Hegazti planeatzailea da, eta denbora luzez egiten du hegan jateko guneen gainean. Gora egiteko korronte termikoez baliatzen da, eta horrek energia gutxi xahutzea ahalbidetzen dio hegaldia hasi eta lekualdatu nahi duenean. Espezie soziala da, eta kolonietan biltzen da bai ugaltzeko eta bai elikagaia bilatzeko. Hierarkia hertsia bati jarraitzen diote, batez ere haratustela irensterako orduan. Amildegietan egiten dituzte habiak, erlantz eta arrakletan, sai-kolonietan. Habiak eskasak dira, barrutik pixka bat forratuak eta adarrez eginak. Urtean egiten duten errute bakarra arrautza batetako da.

Gure lurraldean, 350 bikote inguruk egiten dute habia; Araban 250 baino gehiagok, 27 koloniatan, Bizkaian 57k eta Gipuzkoan 38k. Azken urteotan populazioek goranzko joera argia dute. Europan egoera ezberdina da herrialde batetik bestera, batzuetan goraka eta besteetan beheraka egiten baitute populazioek.

Iraganean, espeziearen erregresioaren eragile izan ziren pozoia erabiltzea eta abeltzaintza estentsiboa gero eta urriagoa izatea. Eragile negatibo hauek kontrolatu bezain laster populazioak suspertu egin dira. Oraindik ere eragiten duten mehatxuen artean honakoak ditugu: elektrokuzio bidez edo linea elektrikoaren kontra jotzean hiltzea, ezkutuko ehiza eta umatze-garaian txangolari eta eskalatzaileek eragindako eragozpenak.

Espezie hau kontserbatzeko, linea elektrikoak behar bezala seinaleztatzen badira, espezie honetako aleak ez dira galduko; era berean, umatze-koloniak egiten dituzten harkaitzak babestea, alegia, umatze-garaian harkaitzetako kirol-jarduerak erregulatzea, populazioen iraupena ahalbidetuko du.



Mirotz zuria

Aguilucho Pálido

Circus cyaneus

Metro erdirarainoko harrapari ertaina da. Sexu-dimorfismoa dauka. Arra errauts-grisa da eta sabelaldea argia dauka. Hegoek muturraren gainaldea beltza dute; moko beltza eta hanka horiak ditu. Emearen gainaldea arre iluna da, marratua behealdea, eta buztana arrea da eta zerrenda ilunak ditu. Buztana luzea da bi sexuetan.

Banaketa holarktikoak duen espeziea da, European klima epel eta boreala duten zonetan bizi da. Euskal Autonomia Erkidego osoan zehar ageri da, baina ugariagoa da zonalde subkantauriarrean inguru atlantiko eta mediterraneoetan baino. Espezie sedentarioa da, baina migrazio-mugimendu batzuk egiten ditu hegoalderantz, eta beste inguru batzuetako ale negutar batzuk ere heltzen dira.

Baso hasi berrietan, andeatutako hariztietan, baita txilardi eta otadietan ere egiten du habia. Mediterraneoko isurialdean ere ageri da nekazaritza-soroetan, batez ere zereal-soroetan. Inguru kantauriarrean, aldiz, koniferoz edo eukaliptoz birpopulatutako baso gazteak aukeratzen ditu habia egiteko. Zorutik distantzia txikira egiten du hegan, hegoak astinduz edo planeatuz, hegoak gorantz okertuta, «V» forman, irekita dituela. Harrapakinen gainera trebeki jausten da. Bakartia da, baina migrazioetarako bandoetan biltzen da. Nahiko maiz lurreratzen da. Lurzoruan egiten du habia, landareen artean, belar eta adarrez baliatuz. Errute bakarra izaten dute urtean zehar, lau edo bost arrautzetakoa. Tamaina txikiko ugaztunak, lurreko hegaztiak, narrastiak, anfibioak eta zenbait artropodo jaten ditu.

Gure lurraldean, populazioa, gutxi gorabehera, 200 bikote ugaltzailek osatzen dute, baina populazioaren joera zein den ez dakigu. Hala ere, Europako makina bat herrialdetan erregresio nabarmenean dagoen espeziea da.

Populazioen erregresioa eragin eta eragiten duten faktoreak dira txilardi eta otadiak bezalako sastrakadiak erretzea eta luberritzea, eta oraindik hegan egiteko gai ez diren txitoak hiltzea, zereal-lursailetakoa uztak batzeko makinaren ondorioz.

Espezieari dudarik gabe on egingo liokeen kontserbatzeko neurria litzateke mendiko sastrakadi edo eta zereal-sailen erretzea eta luberritzea kontrolatzea. Era berean, eragingarria litzateke nekazariak kontzientziaztea, uztak biltzeko garaian habiak gal ez daitezen.



Gabiraia Gavilán Común *Accipiter nisus*

Berrogei cm-rainoko harrapari ertaina da. Itxura arina eta mehea dauka, batez ere astinaldi azkarreko hegaldietan. Sexu-dimorfismo nabarmena dauka, emea arra baino askoz handiagoa baita. Azken honek bizkarralde gris urdinxka du, eta behealde herdoil-gorria da eta banda edo erreskada meharrek ditu. Hegoak behealdean marratuak dira eta ilunak gainaldean. Emearen bizkarraldea gris arrexka da eta behealdean tonu gorriak falta ditu. Moko eta hanka horiak ditu.

Europar, Asian eta Afrikan banaketa zabala duen espeziea da. Gure lurraldean barreiatuta dago, batez ere uren banalerroan zehar, eta gainerako lurraldean bakartuago dago. Litekeena da Europako iparraldetik negua igarotzera aleak etortzea.

Baso-espeziea da, zuhaitzak dituzten era guztietako habitatetan bizi dena. Habia egiteko baso garatuenak aukeratzen ditu eta elikatzeke, berriaz, basoko argiuneak eta hesi biziak dituzten inguru irekiak. Hegaldi abila dauka, baxua gehienetan, bere ingurunean, hots, baso, sastrakadi eta zuhaixka-inguruetan erraz mugitzen laguntzen diona. Bakartia eta iheskorra da. Zuhaitzetan egiten du habia, enborretik hurbil. Urtean behin 4-5 arrautza errun ohi ditu. Batez ere airean harrapatutako hegazti txikiz elikatzen da, eta noizean behin, artropodo eta ugaztunak ere jaten ditu.

Populazioaren tamainaren inguruan datu orokorrik ez dagoenez, Arabako iparraldeko erdialdean, adibidez, 90 bikote ugaltzaile inguru omen daude, eta batez besteko dentsitatea da 5,83 bikote/100 km²-ko. Alderdi atlantikoan, ordea, habia gutxitan egiten du, baina negua igarotzeko ohikoa da. Ez da populazioaren joera ezagutzen, baina badakigu Europan erregresio gogorrak pairatu dituela, baina berriki badirudi pixkanaka suspertzen ari dela.

Aipatzen denez, espeziearen mehatxurik handienak dira habitata eraldatzea eta animalia gutxi ugaltzea, arrautzen oskola meheagoa delako, pestizida organokloratuen eraginez. Ehizaren eragina ere nabaria da, batez ere gure lurraldera negua igarotzera datozen populazioengan.

Espezie hau kontserbatzeko, tiro bidezko hilketa gutxitzeko ahalegiak egitea komenigarria litzateke, populazio hauetan berezkoa ez den heriotzaren eragile nabarmena baita.



Uroilanda pikarta

Polluela Pintoja

Porzana porzana

Hogei cm inguruko espezie urtar txikia da. Bizkarraldea eta alboak arre beltzekak ditu, lumen ertzak oliba-kolorekoak dira eta ildaska zuriak dituzte. Behealde gris oliba da, tanto zuriak ditu bularraldean, eta sabelaldea argiagoa da. Moko berde-horia da, eta oinarria gorrixka du. Hanka berde olibak ditu.

Europar, banaketa zabala duen espeziea da, eta ekialdeko herrialdeetan ugariagoa da. Gure lurraldean, ugalketari buruzko datu bakarra ezagutzen da. Espezie egoiliarra da, baina migrazio-garaian, kanpoko zenbait ale etortzen dira, eta horietako batzuk gurean ematen dute negua.

Sakonera txikiko uretan bizi da, batez ere ur gezetan, zingira-landarez beteak baina oso trinkoak ez diren inguruetan. Egunez eta egunsentian aritzen da. Iheskorra eta behatzen zaila da. Kantuari esker jakin ohi da bertan dagoela. Landareen artean edo hezeguneetako ertzetan ezkutatuta egoten da. Bakartia da, gauez egiten ditu migrazioak eta ez da askotan hegan aritzen. Altuera txikian egiten du habia, zoruaren gainean, landareen artean, baita lokatzetan edo sakonera txikiko uretan ere. Urtean bi errunaldi izan ohi ditu, 8-12 arrautzetakoak. Lokatzetan harrapatzen dituen harrapakin txikiak jaten ditu: intsektu, molusku eta krustazeoak. Landareak ere jaten ditu.

Populazio ugaltzailea minimoa da, habia egin duen bikote bakarra eza gutzen baita. Europako populazioak badirudi egonkorrak edo, asko jota, gora-beheratsuak direla, aurreko hamarkadetan izandako erregresioaren ondoren.

Espezie honen Europako beherakadaren eragiletzat hartzen dira habitata galtzea eta gizakiak eragindako asaldatzeak.

Hezeguneetako espezie hau eta beste batzuk kontserbatzeko neurriak bideratu behar dira espezie horiek bizi diren inguruetara. Izan ere, zingiretako landaredia zaindu eta ahal den neurrian hobetu behar da.



Uroilanda txikia

Polluela Chica

Porzana pusilla

Hogei cm-tik beherako hegazti urtar txikia da. Bizkarraldea arre gorrixka da, kutsu olibak ditu, bai eta ildaska beltzak eta zipristin zuri irregularrak ere. Kopeta eta masaila grisak dira, eta hegoak arre beltzekak. Behealdea grisa da, eta zeharka zerrenda beltzak eta zuriak ditu. Moko berdea da eta hankak arre olibak dira.

Banaketa zabala baina irregularra duen Europako espeziea da. Gure lurraldean, Araban baino ez da ageri; bertan, bikote ugaltzaile baten, eta agian beste baten datuak daude. Bertakoa den populazio urri horretaz gain, espezie migratzailea da, eta beraz, Europatik etorritako aleak ageri dira migrazio-garaian.

Ur geza duten hezeguneetan bizi da, uretako landaredia dutenetan, baina ez du oso altua ez eta oso trinkoa izan behar; neurri txikiagoan ageri da estuario eta ur gazikara duten inguruetan. Egunez eta egunsentian aritzen da. Iheskorra da eta ezkutatuta egon ohi da landareen artean, edo hezeguneetako ertzetan. Beste uroilandekin gertatzen den bezala, bere kantua entzutea da animalia bertan dagoela egiaztatzen duena. Migrazioak gauez egiten ditu. Ez da oso igokaria, ez eta oso hegalaria ere. Uretako landareen artean egiten du habia, uraren mailatik gora; habia plataforma txikia da, eta uretako landareekin egiten du. Urtean 6-9 arrautzako bi errute izan ohi ditu. Lokatzetan harrapatutako harrapakin txikiak jaten ditu: intsektu, molusku eta krustazeoak. Haziak ere jaten ditu.

Populazioa minimoa da, eta segur aski habia noizean behin eta irregularlari egiten dute. Hau Europako hainbat eskualdetan gertatzen ari da, han populazio guztiak behera egiten ari dira eta.

Populazioen erregresioaren eragilea da hezeguneak desagertzea eta eraldatzea. Aipatu izan da ere, migrazioan zehar linea elektrikoen aurka kolpatu eta hil egiten direla.

Espezie hau eta hezeguneetako beste espezieak kontserbatzeko neurriak bizi diren ingurura bideratu behar dira. Izan ere, zingira-landaredia mantendu eta babestu behar da, bai eta landarediaren funtzionaltasun ekologikoa ziurtatu ere.



Giloia

Guión de Codornices

Crex crex

Tamaina txikiko hegaztia da, 30 cm-rainokoa. Atzealdea nabarra da, eta orban ilunak ditu, ia beltzak. Hegoak marroi-gaztain uniformeak dira, eta bereziak dira hegan egiten ikusten denean. Sabelaldea grisa da. Lepoan ñabardura urdinxkak ditu eta gainerako atalak okreak dira, eta zerrenda lausoak dituzte. Mokoa haragi-kolorekoa da, eta punta iluna dauka. Hankak grisak dira, eta ukitu arrosa daukate.

Eurasian banaketa zabala duen espeziea da. Bertako populazioak Afrika tropikalera joaten dira negua igarotzera. Gure lurraldean, udazkeneko eta udaberriko migrazioetan ageri da, batez ere kostaldean zehar. Batzuetan barnealdeko hezeguneetan ere ikusi direla aipatu da.

Espezie hau belarrez ongi estalita dauden guneeetan bizi da, hezegunee-tako ertzetan, basoetako argiguneeetan, ubideak dituzten istingadietan eta garaiera nahikoa duten bazka-laborantzetan. Bakartia eta iheskorra da. Landaretza belarkaran ezkutatuta egoten da, eta horrek animalia ikustea zailtzen du. Egunsentian aritzen da. Migrazioa, eskuarki, gauez egiten du. Habia landareen artean egiten du, lurrean. Habia ezkutatuta egoten da, eta belar lehorrez egindako plataforma bat izaten du. Urtean behin 8-12 arrautza errun ohi ditu. Intsektu, molusku, har, krustazeo, eta landareak jaten ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoko kostaldean noizbehinka baino ez da ikusten. Halatan, oso espezie bakana da. Europan erregresio handia pairatzen ari da.

Espezie honen Europako populazioen erregresioaren eragileak hurrengoak dira: ingurumena eraldatzea, lur hezeak drainatzea eta nekazaritza areagotzea, azken honek biodibertsitatearen kontserbazioarekin bateragarriak ez diren praktikak erabiltzen ditu eta.

Espezie hau kontserbatzeko neurriek habia egiteko guneeetan jarri behar dute arreta nagusia, hegaztien habitata hobetu eta mantentzeko.



Kurrilo arrunta

Grulla Común

Grus grus

Tamaina handiko hegaztia da, metro eta erdirainokoa. Hankak luzeak eta beltzak dira. Grisa da, eta beltzak dira luma primarioak, estal-lumak, luma sekundarioen atzealdeko ertza eta buztanaren muturra. Burua, garondoa, zintzurra eta aurpegia beltzak dira, eta pileoa gorria da. Lepoaren aurrealdeko goiko zatia beltza da. Mokoa berdexka nabarra da.

Banaketa eurosiberiarra duen espeziea da. Eurasiako hegoaldeko eta Afrikako iparraldeko hainbat gunetan igarotzen du negua. Espezie migratzailea da, eta gure lurraldean migrazioak iraun bitartean ikus daiteke; egonaldi laburren bat egin dezake urtegietan eta kostaldean.

Habia egiteko sakonera txikiko hezeguneak, lakuak, eta urmaelak aukeratzen ditu. Europako populazio gehiena Iberiar Penintsulan kokatzen da. Bertan, negua igarotzen dute arteen eta artelatzen arteko larreetan, bai eta laborantza-lurretan ere. Migrazioan «V» itxurako taldeetan egiten dute hegan eta etengabe egiten dute garrasi, tronpeta-soinuaren antzera. Neguan, etzauntzetatik elikatze-guneetara joateko taldetan biltzen dira. Habia, landarezko muino txiki batean egiten du. Urtean behin bi arrautza errun ohi ditu. Hazi eta fruituez elikatzen da, eta lurtean antropodo eta moluskuak harrapatzen ditu. Neguan, Extremadurako larreetan, ezkurak jaten ditu, batik bat.

Penintsulara 60.000 indibiduotik gora etortzen dira udazkenean. Euskal Autonomia Erkidegoan, Gernikan 500 hegazti eta Abran 115 behatu dira, eta uste da bertan detektatu den kopuru handiena dela. Europako ekialdeko populazioek erregresio nabaria izan dute; erdialdekoak eta iparraldekoak, ordea, handituz doaz.

Habia egiteko guneetan faktore mugatzaileak honakoak dira: ugalketa-arrakasta gutxitzea, gizakien eragozpenen eta linea elektrikoen aurka talka egitearen eraginez. Negua pasatzeko guneetan populazioek pairatzen dituzte larreak gutxitzea, linea elektrikoen aurkako talken ondoriozko heriotzak, isilpeko ehiza eta etzaleketako eragozpenak.

Espezie hau kontserbazteko neurriak bideratu behar dira habia egiteko eta negua pasatzeko guneetara. Horretarako, inguruaren oreka bermatu eta populazioak aztoratzen dituzten elementuak deuseztatu behar dira.



Zankaluzea

Cigüeñuela Común

Himantopus himantopus

Tamaina ertaina duen limoetako hegaztia da, 40 cm-rainokoa. Zuria da eta atzealdea beltza dauka. Hankak oso luzeak dira, arrosak, eta hegan egitean hegaztiaren atzean zintzilik geratzen dira; horrela, erraz bereiz daitekeen itxura hartzen du. Mokoa luzea, fina eta beltza da. Hegoak beltzak dira goitik eta behetik, eta galtzarbeko zuriak ditu. Buruko orban ilunen proportzioa aldakorra da sexu, garai, eta banakoaren arabera.

Banaketa kosmopolita duen espeziea da. Negua, batik bat, Afrikan igarotzen du. Euskal Autonomia Erkidegoan migratzailea da, eta kostaldean eta barnealdean ageri da. Oraintsu, Araban ugaltzen hasi da.

Sakonera txikiko hezeguneetan bizi da, ur gazi zein gezetan. Batez ere kostaldeko urmaeletan eta ibaien beheko aldeetan ageri da. Gure lurraldean estuarioetan, urtegietan eta barnealdeko urmaeletan ageri da. Urertzetan edo uretan ikus daiteke. Ibilera geldo bereizgarria du. Taldekoia da, baina migrazioetan izan ezik, ez ditu talde handiak osatzen. Habia egiteko koloniala da. Habia lur gaineko zokogune txiki batean egiten du, landareen artean edo leku ia irekian, eta baita sakonera txikiko uretan ere. Urtean behin hiruzpalau arrautza errun ohi ditu. Intsektu, molusku eta harrak jaten ditu. Elikagaiok sakonera txikiko uretako lokatzen ibitik igaroz harra-patzen ditu.

Hemen egindako behaketetan, 6 eta 20 indibiduo bitarteko taldeak ikusten dira. Dirudenez, espeziearen populazioa handituz doa azkenaldi honetan. Arabako populazioak, dagoeneko, hogeit bat habia ditu.

Espezie honen faktore mugatzaileak dira gizakiak sortutako eragozpenak, segur aski gure lurraldeko hezegune batzuetan habia egitea galarazten dietenak.

Espezie hau kontserbatzeko, hezegune batzuetan jarduerak eta erabilerak arautzeak, alegia, pertsona eta animalien sarrera mugatzeak, behar-bada zenbait bikote finkatzea ahalbidetuko luke.



Atalarra

Alcaraván Común

Burhinus oedicnemus

Tamaina ertaineko hegazia da, 40 cm ingurukoa. Sarritan ingurune erdi idorretan mugitzen da, eta horretarako kolorazio kriptikoa dauka. Atzealdean nabar argia da, eta marra ilunak ditu. Hegoak nabarrak dira, eta estal-lumen ertzean bi zerrenda zuri ditu. Azken ezaugarri horrek hegan dabilenean oso erraz bereiztea ahalbidetzen du. Buztana zurixka da, marra ilunak ditu, eta muturra ia beltza da. Mokoa horia da, eta punta beltza dauka. Hankak horiak dira.

Banaketa zirkunmediterranea duen espeziea da. Populazio nagusiak Iberiar Penintsulan eta Errusian bizi dira. Gure lurraldean Mediterraneoko eskualdean azaltzen da. Migrazioan zehar Europatik datozen ale ugari ikusten dira. Horietako asko negua igarotzen geratzen dira.

Habiak egiten ditu laborantzako lurretan, txilardietan, larreetan, eta landa eta estepa lehorretan. Oso lehortarra da eta lurretik arin eta bizkor mugitzen da. Hegan egitea ez zaio apenas gustatzen eta erabat geldirik, kamuflatuta, egon ohi da. Egunsentian eta gauetz aritzen da, eta batzuetan bere jarduera egunean zehar luzatzen du. Lagunkoia da, eta talde txikietan bizi da. Habia lurrean egiten du, leku irekietan eta zokogune txikietan, barnealdea ia estali gabe. Urtean behin bi arrautza erruten ditu. Moluskuak, harrak eta artropodoak jaten ditu, eta noizbehinka harrapakin handiagoak ere harrapatzen ditu.

Oso gutxitan behatu denez, badirudi bikote ugaltzaileen kopurua oso txikia dela. Europako banaketa-area osoan erregresio adierazgarria izan duela egiaztatu da.

Erregresioaren eragileak ondokoak dira: nekazaritza-ingurunea eraldatzea, ehiza eta gizakiak eragindako eragozpenak.

Orokorrean, beharrezkoa da ingurune ireki eta landuak kontserbatzea, eta ingurumena errespetatzen duten nekazaritza-jarduerak sustatzea.



Kaio iluna

Gaviota Sombria

Larus fuscus

Tamaina ertaineko itsas hegazia da, 60 cm ingurukoa. Burua, lepoa, beheko atalak, eta buztana zuriak dira. Atzealdea gris iluna da. Hegoek muturra ilunagoa dute eta arraun-lumek punta zuriak dituzte. Moko horia da, eta beheko muturrean orban gorria dauka. Hankak horiak dira ezteigaraian. Gazteek, hainbat urteetan zehar, helduen lumajea lortu arte, nabarrak dira, eta orbanak eta ildaskak dituzte. Horrek, gazteak beste kaio batzuen gazteengandik bereiztea zailtzen du.

Europar, banaketa zabala duen espeziea da, eta kostalde subartikoetara holtzen da. Gure lurraldean, Gipuzkoako itsasertzeko ekialdeko muturrean ageri da. Gure kostaldeko beste zenbait puntutan bakan batzuk ageri dira. Populazio sedentarioari iparraldeko latitudeetako aleak gehitzen zaizkio udazkenean eta neguan. Hegazi horiek negua pasatzera etortzen dira edo beste toki batzuetara joateko pasatzen dira.

Espezie hau umatzen da labarretan, uhartetxoetan eta, noizbehinka, belardietan, dunetan eta kostalde inguruko uharri-eremuetan. Iheskorra da, eta ez du gizakiaren presentzia beste kaioek bezain ondo onartzen. Migrazioak egiten ditu kostaldean zehar. Koloniala da. Habia lurrean egiten du, zokogune txiki batean, eta barrualdea belar eta algekin estaltzen du. Urtean behin hiru arrautza erruten ditu. Arrainak, moluskuak, harrak, eta hegazi eta ugaztunen arrautzak jaten ditu. Arrantza-ontzien hondarrak, zaborrak, eta sarraskia ere jaten ditu.

Gure lurraldean dozena bat bikote baino ez dira geratzen, eta populazioa nahiko egonkorra da. Dirudienez, Europako populazioak hedatzen ari dira.

Gure lurraldean populazioak hedatzea mugatzen duten faktoreak ekologikoak dira; hain zuzen, antzeko beste espezieekin konpetentzia daukate.

Espezie hau kontserbatzeko, umatze-kolonien babesa bermatu behar da gizakiak sortzen dituen eraldaketen eta harrapari antropofiloen aurrean.



Zata arrunta **Chotacabras Gris** *Caprimulgus europaeus*

Tamaina txikiko hegaztia da, 25 cm ingurukoa. Burua nabarmena da, mokoa motza eta ahoa oso zabala baititu. Hegoak eta buztana luzeak dira. Goialdea nabar grisa, okrea eta beltzez zipriztindua da. Hegoak arre ilunak dira, eta orban gaztain eta grisak ditu. Buztana nabarra da, eta orbanak ditu. Behealdea okrea, horixka da, eta zeharkako ildaska ilunak ditu. Zintzuraren alboetan orban argiak ditu. Mokoa beltza eta hankak nabarrak dira.

Palearktikoan zehar banaketa zabala duen espeziea da. Gure kontinenteko latitude garaienak ekiditen ditu. Gure lurraldean oso sakabanatuta dago. Halatan, mendietako gailurretan bakarrik falta da. Populazioak, hemen, migratzaileak eta udakoak dira eta udazkenean latitude epelagoetara joaten dira.

Ia ingurune guztietan bizi da, zuhaizti handi eta trinkoetan izan ezik. Nahiago ditu landare txikiz eratutako landarediak, besteak beste, txilar-diak, iralekuak, larreak eta bazkalekuak. Landazabaletan eta hostozabalen eta koniferoen basoen soilguneetan ere ageri da. Gauean eta egunsentian aritzen da, eta egunez hartzen du atsedea. Hegaldia isila, gozoa eta alde-rraia da, eta txiri ugari egiten ditu. Bakartia da, baina migrazio-garaian talde txikiak osatzen ditu. Habia lurrean egiten du, zokogune txiki batean. Bertan estali gabeko habia motza egiten du. Urtean bi aldiz bi arrautza errun ohi ditu. Batez ere, airean harrapatzen dituen intsektuez elikatzen da. Batzuetan, harrapakinak lurrean ere harrapatzen ditu.

Lurraldeko zati zabalean ohiko espeziea da. Hala ere, populazioaren dentsitatea ez da oso handia. Europako populazioak erregresio gogorrean daude.

Populazioen erregresioaren eragile nagusiak dira habitata eraldatzea, batez ere nekazaritza-lurrak, azkenaldian, laborantza intentsiboak egin eta pestizidak gehiegi erabiltzen baitira. Hesi zinegetikoen aurka jota eta ibil-gailuek harrapatuta ere hainbat banako hiltzen dira.

Espezie hau kontserbatzeko neurriak umatze-habitatak hobetzera eta kontserbatzera bideratu behar dira, eta horretarako nekazaritza-jarduerak zentzuzkoak izan daitezen sustatu behar da.



Malkar-sorbeltza

Vencejo Real

Apus melba

Tamaina txikiko hegazia da, 20 cm ingurukoa. Sorbeltz arrunt ezagun eta hiritarra baino dezente handiagoa da. Goialde osoa nabarra du. Hegoak ere marroiak dira, pittin bat distiratsuak, luzeak eta puntazorrotzak. Behealde zuria da, eta bularrean marra nabar-grisa dauka. Buztanaren beheko estal-lumak nabar grisaxkak dira. Buztana urkilatua dauka.

Mediterraneoko banaketa duen espeziea da. Gure lurraldean, banalerroko mendilerroetako eta Mediterraneoko eskualdeko amildegietan ageri da, batez ere Arabako mendebaldean. Udakoa eta migratzailea da.

Barneko mendietako harkaitzetan baino ez da bizi. Labarretako biotopo termofilo erdi idorretako ohiko espeziea da. Hegazti oso hegalaria da, hegaldi arina daukana eta planeatu ere egiten duena. Taldekoia da. Umatze-guneen inguruan egiten du hegan, talde zaratatsuetan eta era ikusgarrian. Egunez eta egunsentian aritzen da. Habiak kolonietan egiten ditu, amildegi eta arrakaletan; batzuetan zubietan eta eraikinetan ere bai. Kopaitxurako habia egiten du, bere listuarekin, lokatzarekin eta lumekin egiten duen masa batekin. Urtean behin bi edo hiru arrautza erruten ditu. Intsektujalea da; horrela, aireko planktona baino ez du jaten.

Ageri den tokietan ez da espezie oso oparoa, baina sarritan behatzen da. Nahiz eta datu asko ez izan, dirudienez populazioak egonkorak dira. Beste eskualde batzuetan espeziea hedatzen ari da, populazioari eta eremu geografikoari dagokionez.

Populazioen atzerakadaren eragileen artean aipatzekoa da pestiziden zeharkako eragina, bere harrapakin-eskuragarritasuna gutxitzen baitute.

Espezie hau kontserbatzeko, umatze-koloniei berebiziko arretaz jarraitu behar zaie. Dena den, kolonia horiek beste espezie mehatxatu batzuekin batera osatzen dituzte; beraz, beste espezieei bezala, honi ere beharrezko lasaitasuna bermatu behar zaio.



Martin arrantzalea

Martín Pescador

Alcedo atthis

Tamaina txikiko hegazti ikusgarria da, 15 cm ingurukoa. Gorputza po-txoloa dauka eta mokia luzea eta zuzena da, harrapakinak heltzeko erabil-tzen duena. Hegoak biribilduak eta buztana laburra dira. Goiko atalak ber-de urdinxka distiratsuak dira, eta behekoak gaztain gorrixkak. Lepoan eta zintzurrean orban zuriak ditu. Buztana urdina da. Mokia beltza da, eta oin gorrixka dauka. Hankak gorriak dira.

Mendebaldeko Palearktikoan banaketa zabala duen espeziea. Horrela, klima boreala duten guneetatik Mediterraneoraino hedatzen da. Gure lu-rraldean ere, oso sakabanatuta dago.

Ibaietako erdiko eta beheko ibilguetan bizi da, ur garbia eta ertzetan landaredia dutenetan. Bakartia da, baina udazkenean familia-talde txikiak osatzen ditu. Hegaldi zuzena eta arina dauka, eta ibaien ibilguak altuera baxuan igarotzen ditu tximista urdin txikia bailitzan. Habia egiten du ibaiertzetako hondarrezko paretetan eta ezpondetan, bai eta ibaiaren pre-sen azpian ere. Horretarako, metro bateko luzerainoko tunel bat zulatzen du, bukaeran ganbera bat duena, eta bertan habia jartzen du, ia materialik erabili gabe. Urtean bi errunaldi izaten ditu, eta bakoitzean sei edo zazpi arrautza errun ohi ditu. Zelatan ehizatzen du. Halatan, harrapakinak harra-patzeko, adar batetik uretara amiltzen da zuzenean. Arrain txikiak, intsek-tuak eta uretako larbak janez elikatzen da.

Gure lurraldean 200 bikote baino zertxobait gutxiago daudela uste da. Urteak aurrera joan ahala pixkanaka gutxitu da. Populazioaren atzerakada hori Europako beste hainbat herrialdetan ere gertatzen ari da. Hala eta guztiz ere, espezie honen populazioek gora-behera asko izaten dituzte.

Populazio hauentzako mehatxuak dira ibaiak kutsatzea eta ibaietan egiten diren lanak: dragatzeak, zuzenketak edo bideratzeak.

Ubideen eta ibaiertzen ezaugarriak eta uren kalitatea hobetzeak, espezie honen populazioak hobe daitezen eta aurrera jarrai dezaten lagunduko du.



Erlatxoria

Abejaruco Común

Merops apiaster

Tamaina ertaineko hegazia da, 25 cm-rainokoa. Nahastezina da duen kolorazio biziari esker. Arraren kopeta zuri-berdexka da, lepoa eta atzealde gaiztain gorrixka, eta horixkagoa da sorbalda eta ipurtxuntxurrerantz joan ahala. Goiko estal-lumak eta buztana berde urdinxkak dira, eta lema-lumek mutur ilunak dituzte. Hegoen luma primarioak urdin nabarrak dira eta sekundarioak gaiztain gorrixkak, muturrak ilunak dituzte, eta behealde gaiztain argia dute. Mozorro beltza dauka eta zintzurra horia da. Bularra eta sabelaldea berde urdinxkak dira. Emea argiagoa eta berdexkagoa da. Moko luzea, kurbatua eta beltza da. Hankak nabarrak dira.

Banaketa zirkunmediterranea duen espeziea da. Gure lurraldean eskualde mediterranean bizi da. Udakoa eta migratzailea da.

Klima mediterranea duten tokietan bizi da. Koloniak osatzen ditu zuhaitz sakabanatu batzuk dituzten eremu irekietan, gehien bat alubioi-lautada eta ibaiertzetan. Hegaldi trebea dauka, eta harrapakinak airean harrapatzen ditu. Planeatu egiten du eta batzuetan telefono harietan pausatzen da. Migrazioetan talde handiak osatzen ditu. Kolonietan ugaltzen da. Habia egiten du materialik gabe, lurrezko paretetan eta ezpondetan industen duen 2,5 metroraingo tunelaren amaieran dagoen ganbera batean. Bertan, urtean behin lau eta zazpi arrautza bitartean errun ohi ditu. Aireko intsektuez elikatzen da, eta gehien bat erleak jaten ditu.

Ez da ugaria, baina bere banaketa-arean ohikoa da. Litekeena da lurraldea orain dela gutxi kolonizatu izatea, eta dirudienez, hedatzen ari da. Iberiar Penintsulan eta Europako zenbait herrialdeetan ere hedatzen ari da. Dena den, populazio batzuen erregresioa ere egiaztatu da.

Espezieak nozitzen dituen mehatxu nagusiak dira bere umatze-tokiak suntsitzea eta lege kanpoko ehiza.

Kontserbazio-neurriek ziurtatu behar dute umatze-koloniak babestea eta ibaien ekosistemak egoera onean mantentzea.



Lepitzulia

Torcecuello

Jynx torquilla

Tamaina txikiko hegaztia da, 15 cm-rainokoa. Kolorazio orokorra nabar-grisaxka da, eta orban arre bermikur finak ditu. Inguratuta dagoela uste duenean, burua modu deigarrian biratzen du. Babes-mekanismo gisa ulertu behar da. Hortik dator, hain zuzen, eman zaion izen arrunta. Burua nabarra da, eta lumen ertzak ilunak dira. Hegoen goialdea nabarra da, eta behealdea gorrixka-grisa. Buztanak marra gris eta nabarrak ditu. Bularra eta sabelaldea nabar gorrixkak eta marratuak dira. Mokoa eta hankak nabarrak dira.

Banaketa palearktikoaren duen espeziea da. Gure lurraldean oso sakabatatuta dago eta eskualde atlantikoan nahiko ohikoa da. Udako espeziea da.

Landazabal atlantikoan bizi da; zuhaitzak, sastrakadiak eta fruta-arboletan landaketa helduak dituzten inguruetan. Ingurune horietan habia egiteko zuloguneak eta elikatze larreak ditu. Eremita horietatik kanpo, inoiz zuhaitz hostoerorkorren basoetan ere ageri da, batez ere erkameztietan, hauen argiune eta ertzetan. Zuhaitzterra da; hala ere, batzuetan lurrian mugitu eta pausatzen da, bertan elikatzen baita. Habia egiten du zuhaitzen zuloguneetan eta giza eraikinen hutsuneetan, eskuarki, garaiera baxuetan. Habia egiteko ez du materialik erabiltzen. Urtean errunaldi bakarra izan ohi du, zazpi eta hamar arrautza bitartekoa. Intsektuak janez elikatzen da, ia inurriak baino ez ditu jaten.

Landazabal atlantikoan, 10 hektareako 0,2 eta 2,1 indibiduo bitarteko dentsitatea du. Dirudenez, populazioak gutxitu egin dira bai hemen eta bai Europako beste herrialde batzuetan.

Populazioen erregresioaren eragileak dira, batetik, nekazaritza areagotzeak larreetako formizido-kopurua txikitzea eragin du, batez ere lursail marjinalak desagertu direlako eta pestizidak gehiegi erabiltzen direlako. Bestalde, habiak egiteko toki gutxi dute, zuhaitz zaharrak falta baitira.

Kontserbazio-neurriak bideratu behar dira landazabala kontserbatu eta hobetzera. Leku horietan zuhaitz helduen proportzio egokia mantendu beharko litzateke.



Okil txikia
Pico Menor
Dendrocopos minor

Txolarre baten tamainako okila da, 15 cm ingurukoa. Ar eta emeen artean dimorfismo arina dago. Arrek buruan masail zuriak dituzte, bibote antzekoa beltza da, kopeta zuria, txanoa gorria eta garondoa beltza. Emek kopeta zuri-lohia dute eta pileoa eta garondoa beltzak dira. Atzealdean eta hegoetan marra beltz eta zuriak ditu. Buztanaren erdialdea beltza da eta alboetan marratua. Beheko atalak argiak, zertxobait marratuak dira. Mooka beltza da eta hankak gris berdexkak dira.

Palearktikoan banaketa zabala duen espeziea da. Gure lurraldean zehar sakabanatuta dago, baina ez dira populazio dentsoak. Neguan, zertxobait barreiatzen da.

Espezie hostoerorkorren basoetan bizi da, batez ere, hariztietan eta ibaiertzeko zuhaixketan. Baso zabaletan zein unada txikietan bizi da. Halatan, landazabalean aski ohikoa da. Zuhaitzetako gune garaietan bizi da. Hegaldia izurtua eta geldoa da. Habia zuhaitzetako hutsuneetan egiten du: barrunbe txikia egiten du. Horrela, sarrerako tunel kurbatua ganbera txiki eta luzanga batean amaitzen da. Ganbera hori ez du estaltzen, eta bertan, urtean behin, lau eta sei arrautza bitartean errun ohi ditu. Gehien bat in-sektuez elikatzen da, baina batzuetan landareak ere jaten ditu, batez ere fruitu txikiak.

160 bat bikote daudela uste da. Penintsulako populazioa, Europako beste herrialde batzuetan gertatzen den legez, erregresioan dago.

Habitata eraldatzea da atzerakadaren eragile nagusia. Izan ere, heskaie-tako, ezpondetako eta urertzetako zuhaitz zaharrak kentzen dira, mozketa-ziklo laburra duten espezieekin egiten dira baso-berritzeak, eta lorategi eta parkeetan ere gehiegi moztu eta inauten da.

Espezie hau kontserbatzeko neurriak bideratu behar dira hariztiak eta beste espezie hostogalkorrek, oin askeak eta zuhaitz zaharrak kontserbatu-ko dituzten kudeaketak egitera. Halaber, ur-ertzak eta zuhaitzak dituzten heskaiak zaintzea ere bultzatu behar da, batez ere landazabalean.



Kalandria

Calandria

Melanocorypha calandra

Alaudido handia eta sendoa da, 19 cm-rainokoa. Orokorrean, lur-kolorekoa da, eta lumen ertzak argiak eta grisak dira. Burua nabar grisaxka du, eta atzerantz luzatzen den bekain zurixka dauka. Bularra okrea da, marra batzuk ditu, eta idun erdiaren itxurako orban beltzak ere bai. Sabela zuri-lohia da. Hegoak nabar ilunak dira. Luma sekundarioen ertzak zuriak dira eta azpialdea oso iluna dute. Buztana nabarra da, eta ertz zuriak ditu. Mokoia sendoa eta hori-nabarra da. Hankak nabarrak dira.

Mundu osoan banaketa zabala duen espeziea da: Mediterraneoan, Itsaso Beltzean, Ekialde Hurbilean eta Asiako erdialdean ageri da. Gure lurraldean, populazio txikia bakarra bizi da, Mediterraneoako eskualdean.

Toki zabaletan bizi da: laborantza-lur eta lugorri zabaletan, belar erruderalak dituztenetan eta inguruan zereal-soroak daudenetan. Taldekoia da. Talde oso sinkronizatueta egiten du hegan, lurretik nahiko gertu. Lurretik mugitzeko abila da. Habia kolonia laxoetan egiten du, lureko zokogune txikietan, landareen babespean, belar lehorrak erabiliz. Urtean birritan lau edo bost arrautza errun ohi ditu. Gehien bat artropodoez elikatzen da, baina molusku, har eta haziak ere jaten ditu.

Populazioa 50 bikotetik beherakoa da. Kopuruak gora edo behera egiten du erabilgarri duen habitataren azaleraren arabera. Iberiar Penintsulan gainbeheran dago.

Gure lurraldean aipatzekoa da ingurunearen muga naturalak faktore mugatzaileak direla, espezieak aurrera egitea ekiditen baitu. Penintsulan, atzerakadaren eragileak dira nekazaritza areagotzearen ondorioz ingurunea eraldatzea, eta azalera zabalak ureztatzea.

Espezie hau kontserbatzeko egokia izango litzateke laborantzen txandaketak egitea eta lurrak aldi baterako uztea. Era berean, nekazaritza-inguruneen biodibertsitatea hobetuko litzateke.



Txoriandre arrunta **Terrera Común** ***Calandrella brachydactyla***

Tamaina txikiko hegaztia da, 15 cm-rainokoa. Ez da oso deigarria. Orokorrean lur-kolore argia du. Atzealdea arre gorrixka da, eta ildaxka edo zerrenda ilunak ditu. Buruaren goialdea zertxobait gorrixka da; txanoa du, pixka bat tentea izan daitekeena. Behealdea zuri lohia da, eta alboetan eta bularrean marra gehiago ditu. Lepoaren albo bakoitzean orban beltz laburra dauka, espezie honen bereizgarriak direnak. Hegoak arreak dira, eta lumek ertz zuriak dituzte. Mokoak horia da eta hankak arreak dira.

Banaketa zirkunmediterranea duen espeziea da. Gure lurraldean, Arabako Errioxan ageri da, baita beste puntu bakanen batean ere. Udako espeziea da.

Espezie hau bizi da mahastietan eta larre xerofiloak dituzten erein gabeko lursailetan, eskuarki, eremu erdi idorretan edo estepa-lurretan. Taldekoia da. Taldetan egiten dute hegan, altuera txikian, eta askotan lurrean ez dira antzematen. Zuhaitz eta zuhaixketan ez da ia inoiz pausatzeko. Habia egiten du lurreko zokogune txikietan, muluren baten babespean. Hostoak, adarrak, ileak eta lumak erabiliz kopa sakon baten itxura duen habia eraikitzen du. Urtean birritan hiru eta bost arrautza artean errun ohi ditu. Artropodoak eta haziak jaten ditu.

Uste da espezie honen dentsitatea 10 hektareako 0,4 indibiduokoa dela. Bere joera ez da ezagutzen, baina Penintsulako populazioa erregresioan dago.

Euskal Autonomia Erkidegoan, espezieak behar duen ingurunearen zabalera oso murrizta da, eta hori dela eta da hain urria espezie hau. Gauza bera gertatzen zaie estepakoak diren beste espezie batzuei ere. Iberiar Penintsulan, batik bat, laborantza intentsiboko eragiten dute erregresioa, habitat erabilgarria gutxitzen baitute.

Espezie hau kontserbazteko neurriak bideratu behar dira Mediterraneoko eskualdean bizi den ingurunea mantentzera eta egungo ustiaketa-sistemari eustera.



Kutturlio mokolaburra

Cogujada Montesina

Galerida theklae

Tamaina txikiko lurreko hegaztia da, 15 cm ingurukoa. Kutturlio arruntarekin bereiztea zaila da. Goialdea arre grisaxka da, luzeran marrak ditu eta orban ilunagoak ere bai. Isatsaren goiko estal-lumak gorrixkak eta hegoak grisak dira. Lumazko gandar arre iluna dauka, oso bereizgarria, normalean tente eramaten duena. Zintzurra argia da, eta alboetan orban gorrixka gutxi batzuk ditu. Behealdean arre argia da, orbanik gabea, bularrean izan ezik, bertan orbanak nabariak baitira. Mokoia eta hankak arre kolorekoak dira.

Banaketa Afrikako iparraldean duen espeziea da. Iberiar Penintsula osoan bizi da, isurialde atlantikoan izan ezik. Gure lurraldean Mediterraneoeko eskualdean ageri da, eta nahiko mugatua da.

Lursail mistoetan bizi da, larre xerofiloak, ezkaidiak, erromero-sasiak eta arte-sastrakadiak agertzen direnetan, hain zuzen ere. Halaber, harritza eta gutxi landutako eremuetan ere azaltzen da. Hegazti bakartia da. Noiz-behinka bikoteka edo talde txikietan ikus daiteke. Bere hegaldia baxua eta uhindua da. Askotan pausatzen da. Lurreko zokogune txiki batean egiten du habia landareak, ileak eta lumak erabiliz. Urtean bi edo hiru errunaldi egiten ditu, eta bakoitzean hiru edo lau arrautza errun ohi ditu. Haziez elikatzen da eta artropodoak ere harrapatzen ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoan, populazioa 50 bikotetik beherakoa dela uste da. Penintsulako populazioa erregresioan dago.

Gure lurraldean, espezie honen agerpena mugatzen duen faktorea da espezieak behar duen ingurunearen zabalera oso murrizta dela. Gauza bera gertatzen zaie estepetako beste espezie batzuei ere. Beraz, faktore mugatzaileak ekologikoak dira. Iberiar Penintsulan, laborantza intentsiboek eta baso-berritzeek eragiten dute batik bat populazioen atzerakada, habitat erabilgarria gutxitzen baitute.

Kontserbazio-neurriak espezie honek Mediterraneoeko eskualdean erabiltzen duen ingurunea mantentzera bideratu behar dira.



Landa-txirta

Bisbita Campestre

Anthus campestris

Tamaina txikiko hegaztia da, 15 cm ingurukoa. Bizkarraldea arre-gri-saxka da, nahiko uniforme. Bekaina oso nabaria da, zurixka. Behealde zuri krema-kolorekoa da. Bularra eta alboak gaztain gorrixkak dira, pixka bat marratuak. Hegoak arreak dira, eta lumek ertz horiak dituzte. Isatsa arrea da, eta ertzak krema-kolorekoak dira. Mokoa arre iluna da eta hankak arre horiak dira.

Europa, Asia eta Afrikako iparralde gehienez agertzen den espeziea da. Gure lurraldean bakarrik gune mediterraneoan eta gune azpikantauriarren hego-erdialdean azaltzen da. Eredu zabal honetatik kanpo ere populazioen bat edo beste bizi daiteke. Espezie hau udakoa eta Saharaz bertaldeko migratzailea da.

Deforestatutako gunetan bizi da, erliebe leun eta giro lehorretan, larre xerofilo edo sastraka herrestariak dauden lekuetan, eta baita ertzetan heskaiak dituzten lehorreko laborantzetan ere. Lurrean egoten da, eta lurretik abileziak mugitzen da. Bere hegaldia baxua eta uhindua da. Migrazioan talde txikiak osatzen dituzte. Lurreko zokogune txikietan egiten du kopatitxura duen habia, landareen hondarrak erabiliz eta barrualdea tapizatuz. Oro har, urtean birritan hiru eta bost arrautza artean erruten ditu. Lurrean harrapatzen dituen artropodoak elikatzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoan 3.500 bikote daudela uste da. Penintsulako eta Europako populazioak erregresioan daude.

Bere populazioen eta banaketa-arearen erregresioaren eragileak dira, oro har, lurraren erabilerak aldatzea. Hala nola, sastraka xeheen baso-berritze natural edo artifizialak egitea, abeltzaintza estentsiboa uztea eta tradiziozko nekazaritzaren lursailak laborantza intentsiboko lursail bihurtzea.

Espezie hau kontserbatzeko neurriak, habitata irizpide ekologikoak kontuan hartuta erabiltzera bideratu behar dira. Halatan, artzaintza eta sastrakadiak kontserbatzea bultzatu behar da, egokiak diren tokietan.



Ur-zozoa

Mirlo Acuático

Cinclus cinclus

Hemezortzi cm-rainoko hegazti txikia da. Mozkotea da, eta itxura tri-pontziak eta buztan laburrak areagotu egiten dute duen itxura lodikotea. Burua eta garondoa arre ilunak dira, eta gainerako bizkarraldea gris beltzezka da. Hegoak arre beltzak dira. Buztana motza eta gris iluna da. Zintzurra eta bularra oso zuriak dira, eta sabelaren atzealdea arrea da. Mokoak arre beltzezka da eta hankak arreak dira.

Espezie menditarra da, European Asian eta Afrikan bizi dena. Gure lurraldean sakabanatuta ageri da, eta lurraldearen herena hartzen du. Lotura handia du inguru menditsu eta kostako ibaiekin.

Hondoa txintxarrak eta ertzetan haitzak dituzten erreketetako goiko ibilguetan, ibai malkartsuetan bizi da espezie hau, ur-jauziak eta ur-lasterak, ur gardenak eta sakonera gutxi dituzten aldeetan. Ibilguan zehar agertzen den landarediak ez dio axolarik. Lurraren arrasean egiten du hegan, zuzen, apeu ozena egiten duen bitartean. Erraztasun handia dauka murgildu eta urpean igeri egiteko; urazpian ibiltzeko ere gai da. Errekatik ateratzen diren harrietan pausatzen da maiz. Bakartia da, eta ugalketa-garaian bikoteka batzen da. Ur-mailaren gainetik egiten du habia, ezpondetako zulo edo arrakalaren batean, edota enborren baten oinarrian, zenbaitetan ur-jauziren batez babestuta dagoena. Goroldioz egiten du kopa-formako habia, eta barrualdetik tapizatu egiten du. Urtean zehar 2-3 errunaldi izan ohi ditu, bakoitza 4-5 arrautzetakoa. Uretako intsektuez elikatzen da eta dieta osatzen du molusku, krustazeo, har eta arraintxoekin.

Euskal Autonomia Erkidegoan populazioa 100-250 bikote ugaltzailek osatzen dutela uste da. Populazioak azken hamarkada hauetan beherakada nabarmena izan du. Europako beste zenbait herrialdetan espezia erregresioan dago edo egonkorra da.

Populazioen erregresioaren eragileak dira espezia bizi den ingurunea eraldatzea, eta bereziki, urak kutsatzea. Izan ere, ur-zozoa uraren kalitatearen adierazle ona da.

Espezie hau kontserbatzeko neurriak espezia erabiltzen dituen ubideak hobetzera eta iraunaraztera bideratu behar dira.



Mendi-tuntuna

Acentor Alpino

Prunella collaris

Hemezortzi cm-rainoko tamaina txikiko hegaztia da. Burua eta bizkaraldea grisak dira eta luzetara orban arreak ditu. Hegoetan bi ilara fin osatuz, punta zuriak dituzten estal-luma beltzekak ditu. Arraun-lumak arreak dira eta ertz okreak dituzte. Buztana arrea da, eta zenbait luma ditu orban horiak eta puntan orban zuri lohia dituztenak. Zintzurra zuri lohia da, eta tanto beltzak ditu; bularra eta sabelaldea grisak dira. Saihetsaldean gaztaina-kolore oso bereizgarria du. Mokoa beltza da, oinarri zuria duena, eta hankak arre-arrosak dira.

Eurasian banaketa zabala duen espeziea da; batez ere, Europako erdialde, hegoalde eta ekialdeko mendiguneak hartzen ditu. Gure lurraldean, banalerroko mendietako inguru garai eta harritsueta bizi da, eta ez da 900 metrotik behera ageri. Migratzaile partziala da, gure lurraldera mendi-lerro mugakideetako populazioak etorri ohi dira. Neguan, ordea, umatze-zonetan egoten da, batez beste, altuera txikiagoetan.

Malkar handiko inguru menditsu garaietan bizi da, harrizko estaldura oparoa, zuhaitzik ez eta sastrakadi gutxi dituzten aldeetan. Bakartia da, hegaldi baxua eta laburra du, eta lurreratu bezain laster ezkututzen da. Migrazioen aurretik familia-taldeak izan ohi diren bando txikiak osatzen ditu. Lurrean, harrien artean edo harkaitzetako arrakaletan egiten du habia, kopa-formakoa, landareez eginga eta barrualdea tapizatua izaten duena. 3-5 arrautza errun ohi ditu urtean behin edo bitan. Artropodoz elikatzen da, eta har, molusku eta landare-haziekin osatzen du dieta.

Azken urteetan egonkorra den 30 bikote inguruko populazioa balioesten da.

Ez du ageriko faktore mugatzailerik, eta mendigoizaleen aurrean ez da asaldatzen.

Kontserbazio-neurriak bideratu behar dira mendi-inguruak eta hauen aniztasuna bere horretan mantendu eta iraunaraztera; nolahi ere, bereziki erreparatu behar zaio sua egiteari, batez ere ugalketa-garaian.



Pitxartxar nabarra

Tarabilla Norteña

Saxicola rubetra

Hamahiru cm-rainoko hegazti txikia da. Sexu-dimorfismoa dauka. Arrak goiko aldea arre beltzezka du eta lumek gaztaina-koloreko ertzak dituzte. Buruan, zerrenda superziliar zuria eta begien azpian marra beltzak ditu. Hegoak gainaldean arre ilunak dira, eta barnealdeko estal-lumetan orban zuria dute. Oinarri zuria duen buztan arrea dauka. Behealdeak zu-riak edo krema-kolorekoak dira, gorrixkagoak lepoa eta bularra, eta marra zuria dauka zintzuraren alde bakoitzean. Emeak zerrenda superziliarra horixka du, gainaldea argiagoa dena. Zuri gutxiago ageri du hegoetan, eta zintzurereko marrak arreak ditu. Mokoa eta hankak beltzak dira.

Palearktikoan banaketa zabala duen espeziea da. Gure lurraldean En-tzia, Aralar, eta Salbada mendikateetako magaletan baino ez da agertzen. Arabako Lautadan, hezeguneetako ertzetan ere bizi da. Udako espeziea da, Saharaz bestaldeko migratzailea.

Ia zuhaitzik eta zuhaixkarik gabeko larre eta bazkaleku irekietan bizi da eta mila metrotik behera agertzen da. Pausalekuan denbora luzez har-tzen du atsedean eta buztana maiz astintzen du. Hegaldi zuzena dauka, eta altuera txikian egiten du. Batik bat egunsentian aritzen da, bakarka, eta udaz-kenean familia-talde txikietan batzen da. Landareen artean egiten du kopa-formako habia landareak erabiliz, eta barnealdek estaltzen du. Urte-an 5-7 arrautzako errunaldi bat edo bi izan ohi ditu. Batez ere, lurrean edo landareen artean harrapatutako artropodo, molusku eta harrak jaten ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoko populazio ugaltzailea 500 bat bikote-koa dela uste da. Espezieak erregresio handia jasan du, banaketa-areari dagokienez, bai eta populazioei dagokienez ere; hala, 60ko hamarkadan Gipuzkoan oparoa zen. Iberiar Penintsulan ere aleen beherakada gertatzen ari da; Europan, ordea, orokorrean egonkorra da edo gainbehera oso txi-kiak ditu.

Espeziearen erregresioaren eragile dira inguruaren aldaketa, hala nola, otalur eta landazabalen baso-berritzeak, nekazaritza areagotzea edota la-reen arteko zuhaixkak deuseztatzea.

Kontserbazio-neurriak bizi den ingurura bideratu behar dira, habitata mantentzera edota hobetzera.



Ipurzuri horia Collalba Rubia *Oenanthe hispanica*

Hamabost cm-rainoko txori txikia da. Sexu-dimorfismoa dauka. Arrek gainalde okre gorrixka dute eta ipurtxuntxurra eta goiko estal-lumak krema-zuriak. Hegoak beltzak dira, buztana zuria da, eta muturreko marra eta erdialdeko lumak beltzak ditu. Honek, txoriari hain berezia den alderantzizko «T»-aren diseinua ematen dio. Beheko aldeak krema-zuriak dira. Burua zuria da, zintzurra krema-kolorekoa, eta belarrien ingurua beltza. Emeak gainalde arrea edo gaztain-horia du; ipurtxuntxurra zuria eta hegoak arreak dira. Behealdeak okre argiak dira eta zerrenda superziliarra horia da. Mokoa eta hankak beltzak dira.

Mediterranean, Afrikako ipar-mendebaldean eta Ekialde Hurbilean banaketa zabala duen espeziea da. Gure lurraldean, Mediterraneoan eskualdera mugatzen da, eta inguru subkantauriarrean populazio bakarturen bat ere badago. Udako espeziea eta Saharaz bestaldeko migratzailea da.

Basoa galdu den inguru harritsu edo erdi idor irekietan bizi da, altitude txikian, landaredi-estaldura txikiko inguruetan, eta sakabanatuta erromero, ez kai eta abaritzaren zuhaixka txikiak agertzen diren inguruetan. Otalurretan eta mahasti, olibondo eta soroetako ertzetako zuhaixketan ere agertzen da. Hegaldia altuera txikikoa, azkarra eta laburra izan ohi da. Harri edo zuhaitzetan lurreratzen da eta lurrean oso abila da. Lurreko sakonuneetan egiten du habia landareak erabiliz, harri edo mulu baten ondoan. Kopa-formako habia da, sarrera albo batean duena eta barrualdea estalia duena. Urtean birritan errun ohi du, eta 4-6 arrautzako errunaldiak izaten dira. Elikagaiak, batez ere artropodoak, lurrean harrapatzen ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoan populazio ugaltzailea 500 bat bikotekoa dela uste da, egonkor mantentzen dena. Italiako Penintsulan eta Iberiar Penintsulan erregresio nabarmena pairatu du, bai banaketa-areari eta bai ale-kopuruari dagokionez. Europako beste zenbait herrialdetan espeziearen egoera egonkorra da.

Espezie honen presentzia, eta populazioak hedatzea eta haztea baldintzatzen duten faktoreak bizi diren inguruaren muga ekologikoak dira. Erregresioaren eragile nagusia litzateke Sahel-eko negu-toki afrikarretan habitata galtzea. Gainera, espeziearentzat mehatxu handia da habitata eraldatzea, hala nola, nekazaritza areagotzea, azalera handiak ureztatzea eta abeltzaintza estentsiboa uztea.

Nekazaritza-jarduera adeitsuen bidez habitata zaintzea eta abeltzaintza estentsiboari ekiteak populazioen iraupena ziurta dezakete.



Harkaitz-zozo gorria

Roquero Rojo

Monticola saxatilis

Hemeretzi cm-rainoko hegazti txikia da. Sexu-dimorfismo nabarmena dauka. Arrak burua, zintzurra eta bizkarraren atzealdea urdin argiak ditu, eta ipurtxuntxurra zuria. Hegoak arre ilunak dira. Buztanaren erdialdea arrea du, eta alboetan gaztaina-kolorekoa da. Behealdea gaztaina-laranja bizia da. Emeak tantoak dituen gainalde arre grisa edo pittin bat urdinxka du. Isatsaren estal-lumak okreak dira. Behealdea gaztaina-kolorekoa, arrarena baino hitsagoa, eta orban arreak ditu. Mokoak beltza eta hankak arreak dira.

Palearktikoko inguru menditsuetan banaketa zabala duen espeziea da: Europan, Asian eta Afrikako ipar-ekialdeko herrialde zirkunmediterraneoetan bizi da. Gure lurraldean toki bakanetan agertzen da, mendikate atlantiko eta subkantauriarretan. Udako espeziea da, Saharaz bestaldeko migrazioa.

Larre eta haitz ugariko inguru menditsuetan bizi da. Bakartia da, eta harrien artean ezkutatzen da berehala. Lurrean sarritan egoten da eta egiten dituen hegaldiak laburrak eta altuera txikikoak izaten dira; buztana astintzen du pausagunean dagoenean, normalean harkaitz baten ertzean. Udazkenean familia-talde txikiak eratzen ditu, batez ere migrazioarako. Harkaitz eta eraikinetako arrakala eta zuloetan landareekin egiten du kopa-formako habia, barrutik tapizatua. 4-5 arrautza errun ohi ditu urtean behin. Lurrean harrapatutako artropodoak eta moluskuak jaten ditu, bai eta zenbait anfibio, narrasti eta fruitu ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko populazioaren tamaina 100 bat bikote ugaltzailetan balioesten da, eta kontingentea egonkorra da. Hala ere, Europako erdialde eta ekialdeko hainbat herrialdetan gertatzen ari den erregresioa izugarria da.

Espeziearen habitat-eskakizunak berak dira espeziearen garapena mugatzen dutenak. Beste inguru batzuetan, espezieek habitata galdu dute, eski-estazioak eta mendi-turismoa dela eta. Horrez gain, espeziearen beharrek eragin dute abeltzaintza estentsiboa desagertzeak eta basoak birpopulatzeak.

Kontserbazio-neurriak agertzen den inguruetan lasaitasuna bermatzera bideratu behar dira, batez ere ugalketa-garaian.



Harkatiz-zozo urdina

Roquero Solitario

Monticola solitarius

Hogei cm-rainoko tamaina txikiko hegaztia da. Sexu-dimorfismo oso nabarmena dauka. Arrak bizkarralde urdin iluna du, eta zenbait isla ditu; sabelalde ilunagoa da. Buztana eta hegoak ia beltzak dira. Emea arrea da gainaldean, lumen ertzak beltzak dira; lumen ertzak grisak dituzten hego arreak ditu, eta buztana beltza da. Zintzurra zurixka da, eta lumen ertzak arreak eta beltzak dira. Beheko aldeak orlatuta ditu. Mokoia eta hankak beltzak dira.

Palearktikoan banaketa zabala duen espeziea da: Europan, Asian eta Afrikako ipar-ekialdeko herrialde zirkunmediterraneoetan ageri da. Gure lurraldean, batez ere itsaslabarretan agertzen da, bereziki Bizkaian, eta Arabako Mediterraneoeko mendilerroetan ere aipamen bat edo beste egin da. Migratzaile partziala da.

Harkaitzetan egoten da, eta batez ere kostaldeko labarretan bizi da. Bakarka eta iheskorra da. Lurrean, landarerik gabeko lekuetan ematen du denbora luzea, eta bertan mugitzeko trebea da. Altuera txikian egiten ditu hegaldi laburrak. Noizean behin, bikoteka edo familia-talde txikietan ikusi da. Haitz, eraikin, edo kobetako arrakala eta zuloetan egiten du kopa-formako habia landareak erabiliz, eta barnealdetik tapizatua egoten da. 4-5 arrautza errun ohi ditu urtean behin, edo batzuetan bitan. Zelatan ehizatzen du, harrapakinaren gainera oldartzen da ikusi bezain laster; batez ere artropodoak, harrak eta moluskuak jaten ditu.

Populazio ugaltzailea 25 bat bikotekoa dela uste da, eta badirudi populazioa egonkorra dela. Europako zenbait lurraldetan, Iberiar Penintsulan kasu, gainbeherak aipatu dira.

Gure lurraldean egokiak diren habitat-eskasiak espeziearen agerpena mugatzen du, batez ere banaketa-areari dagokionez. Edozein kasutan ez du gizakiaren presentzia jasaten. Beste zenbait ingurutan habitata galtzea eta ekintza turistikoak dira mehatxu aipagarrienak.

Espezie hau kontserbatzeko, beharrezkoa da itsaslabarrak behar bezala babestea, espezie honen eta antzeko beharrian ekologikoak dituzten harkaitzetako beste espezieen ezinbesteko lasaitasuna bermatzeko.



Zozo paparzuria

Mirlo Capiblanco

Turdus torquatus

Hogeita bost cm-rainoko txoria da. Sexu-dimorfismo nabaria dauka. Arrak goiko eta beheko aldeak beltz arreak ditu, buztana beltza eta bularrean orban zuria. Hegoak ere beltzak dira, eta lumek ertzak zuriak dituzte. Emea arre iluna da gainaldean, lumen ertzak arreak eta bularreko orban txikiagoa eta hitsagoa ditu. Punta arrea duen moko horixka dauka. Hankak arreak dira.

Europar banaketa sakabanatua duen espeziea da. Gure lurraldean, populazio ugaltzailea uren banalerroko mendigune bakar batean baino ez da agertzen. Migratzaile partziala da eta pase-garaian zonalde eta biotopo ezohikoetan beha daiteke.

Erliebe handiko inguruetan bizi da, harkaitzezko hormak dituzten zuhaitzik gabeko larre menditarretan. Paramo garai eta baso menditarretan agertzen da. Bakartia da, iheskorra, arriskurik txikienaren aurrean ezkutatzen dena. Hegaldi azkar eta zuzena dauka, eta maiz pausatzen da. Migrazioarako baino ez da bando txikietan batzen. Zuhaitz, zuhaixka eta hormetako zuloetan landarez egiten du habia, kopa-formakoa eta barrutik tapizatua dena. Urtean bitan 4-5 arrautza errun ohi ditu. Harrak eta artropodoak jaten ditu, eta neguan, baita molusku eta fruituak ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen populazio ugaltzailea minimoa da, dudarik gabe. Iberiar Penintsulan atzerakada xumea nabaritu da, eta Europan egonkorra da.

Espezie honen faktore mugatzaileak ziurrenik lurraldeko baldintza ekologikoak dira, espeziearentzat egokienak ez direnak. Izan ere, gure lurraldea zozo paparzuriaren banaketa-arearen hegoaldeko muga da.

Espezie hau babesteko, erabiltzen duen ingurua babestu behar da, eta egun dituen erabilerak mantendu behar dira.



Ur-benarriza

Carricerín Cejudo

Acrocephalus paludicola

Hamahiru cm inguruko lezkari txikia da. Bizkarraren oinarritzko kolorea arrea edo oliba-kolorea da, baina marra beltz ugari ditu. Buruan, lerro supertziliar okrea du eta horren gainean marra iluna. Kaskoaren erdialdea argia da. Beheko aldeak arre argiak dira, mokoa beltza eta hankak arrosak.

Europako ekialdean agertzen den espeziea da; bere negu-tokiak Saharaz bestaldeko Afrikako mendebaldean daude. Gure lurraldean, kostaldean ikusten den migratzaile urria da. Batez ere Txingudin agertzen da, eta noizean behin barrualdeko hezeguneetan ere bai.

Habia egiteko zingiretako landare belarkarak dituzten hezeguneak, istingadiak eta ibaiak aukeratzen ditu. Migrazioan zehar, kostako paduretan eta urtegietan ere agertzen da. Bakartia da, zuhurra, eta landareen artean denbora luzea ematen du. Lurretik mugitzen da eta korrika ere egiten du. Hegaldi laburra dauka, berehala lur hartzen du eta ezkutatu egiten da. Ihi-tokietan egiten du habia lurretik altuera gutxira. Kopa-formako habia belar, armiarma-sare eta biloeekin egiten du, eta barnealdea tapizatzen du. Urtean behin 5-6 arrautza erruten ditu. Intsektuz elikatzen da.

Oso gutxitan behatu da espezie hau Euskal Autonomia Erkidegoan. Europako populazioa ikaragarritzko erregresioa pairatzen ari da.

Populazioen erregresioaren eragile nagusiak dira habia eraikitzen duten inguruetakoko habitata hondatzea eta pestizidak gehiegi erabiltzea, baliabide trofikoak galtzen dira eta.

Kontserbazio-neurriak hartu behar dira habia egiten duten eremuetan. Hala ere, gure lurraldeko hezeguneak babestea populazioak mantentzen lagunduko du.



Ezkal-txinboa

Curruca Tomillera

Sylvia conspicillata

Hamahiru cm-rainoko txori txikia da. Bizkarralde arre-gorrixka du, burua errauts-grisa, eta mokoaren ertzetara joan ahala beltzezka da. Hegoak arreak dira eta ertz argiak dituzten lumak ditu; buztana gris iluna da, kanpoko lema-luma argiak dituena. Zintzurra zuri nabarmena da, bularra arrosa eta azpialdeak argiagoak dira. Emearen lumajea ez da hain kontrastatua, marroi-griskara baita. Mokoa beltza eta hankak arre argiak dira.

Banaketa zirkunmediterranea duen espeziea da. Gure lurraldean, Arabako bi tokitan baino ez da agertzen.

Espezie hau ipuru eta txilarrezko landetan eta egutera kokaturik dau den artadietan bizi da, baita Mediterraneoko sastrakadi xehe eta landa xerofiloa duten muinoetan ere. Orokorrean, handia da leku hauetako lur biltzen proporzioa. Bizi-bizia da eta landareen artean gelditu gabe ibiltzen da. Hegaldi labur eta baxua dauka, eta edozein arriskuren aurrean sastrakaren artean ezkututzen da. Lurretik altuera txikira, landareen artean egiten du habia landareak erabiliz, eta barnealdea tapizatua izaten du. Urtean bitan, askotan hirutan ere, 4-5 arrautza errun ohi ditu. Artropodoz elikatzen da, baita fruitu txikiz ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko populazio ukaltzailea, gehienez 20 bikotekoa dela uste da. Europako kontingenteak, Iberiar Penintsulan eta Italiako Penintsulan agertzen dira, eta egonkorrak direla dirudi.

Populazioen faktore mugatzailea da, bai dentsitateari bai banaketari dagokionez, hegazti honen beharrian ekologikoak betetzeko inguru egokien eskasia, hau da, eremu erdi idor edo sastrakadi-estepen eskasia.

Kontserbatzeko neurriek espezieek erabiltzen duen habitata mantentzeari lotuta egon behar dute.



Txinbo papargorritzta **Curruca Carrasqueña** *Sylvia cantillans*

Hamabi cm-rainoko txori txikia da. Arrak kontraste polita du: bizkaraldea gris urdinxka da, eta behealdea gorrixka edo gaztaina-kolorekoa. Sabelaldea hitsagoa da. Hegoak arre grisak dira, buztana ere bai, eta kanpoko lema-lumak argiak dira. Bibote zuria dauka, baita begi-eraztun gorri ikusgarria ere begien inguruan. Emeak tonu hitsagoak ditu, marka hain bereizgarririk gabe, baina bibote-hasikinak ditu. Mokoa grisa eta hankak arre horiak dira.

Banaketa zirkunmediterranea duen espeziea da. Gure lurraldean Mediterraneoko eragina duten inguruetan agertzen da, Ebroko haranetik gertu. Udakoa eta migratzailea da, eta udazkenean Saharaz bestaldeko negu-tokietara abiatzen da.

Artadi lehorretan bizi da, zuhaixka-geruza oparoa duten inguruetan. Sastrakadi garai edo uniformeak saihesten saiatzen da. Aktibitate handikoa da, eta landareen artean etengabe higitu eta hegaldi laburretan lekualdatzen da. Sastraken artean egiten du kopa-formako habia, landareak erabiliz, eta barrutik tapizatzen du. Urtean bitan 3-4 arrautza errun ohi ditu. Artropodoz elikatzen da, eta zenbait fruitu ere jaten ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoan populazioa 500 bikote ugaltzaile baino gutxiagokoa dela uste da. Zenbait eremutan 10 hektareako 0,4 banakoko dentsitatea dute. Litekeena da populazio hau egonkorra izatea, oro har, Europako populazioa bezala.

Populazioak mugatzen dituen eragile nagusia da, bai dentsitateari bai banaketari dagokionez, espeziearen beharrianetarako inguru ekologiko egokien eskasia.

Espezie hau kontserbatzeko beharrezkoa da sastrakadi mediterranea dagoen eremuetan abeltzaintzaren, oihaneztatzaren, landaretzaren segida naturalen eta suek eragindako atzerakaden arteko oreka ahulari eustea.



Zozo-txinboa **Curruca Mirlona** *Sylvia hortensis*

Txori txikia da, baina beste txinboak baino sendo eta handiagoa da, 15 cm-rainokoa baita. Arrak txano gris beltza du, begiaren azpiraino luzatzen dena, eta bizkarraldea gris arrea da, uniforme. Hegoak ilunak dira, ia beltzak, eta zenbait ertz zuri dituzte. Buztana grisa da, eta kanpoko ertza zuria dauka. Behealdea argia, eta bularra eta saiheitsaldea krema-kolorekoak dira. Emeak txano gris arrea du eta bularra eta saiheitsaldea arrexkak dira. Moko beltza eta hankak grisak dira.

Banaketa zirkunmediterranea duen espeziea da. Gure lurraldean, Araban ageri da, Mediterraneoko eragina duen eremuan. Udakoa eta migrazioa da, udazkenean Saharaz bestaldeko negu-tokietara abiatzen da.

Zuhaiztietan bizi da, artadi andeatuetan eta aleppo pinuaren pinudietan. Aktibitate handikoa da, geratu ere egin gabe mugitzen da adar garaien eta landareen artean. Zuhaitz eta zuhaixketan egiten du kopa-formako habia landareak erabiliz. Barrutik ez du estaltzen. Urtean behin, batzuetan bitan, 4-5 arrautza errun ohi ditu. Artropodo, intsektu eta fruituak jaten ditu.

Uste da populazioaren tamaina 100 bikotetik beherakoa dela. European, populazio batzuen erregresioa ezagutzen da.

Populazioen erregresioa eragiten du bizi diren ingurunea eraldatzeak, batez ere eremu basotsuak galtzeak eragindakoa, hein handi batean nekazaritza areagotzearen eta suteen ondorioz.

Kontserbatzeko neurriak habitata zaintzera bideratu behar dira; horretarako, lurraren ustiapen intentsiboak saihestu behar dira.



Mendi-erregetxo Reyezuelo Sencillo *Regulus regulus*

Txori ñimiñoa da, Europan bizi direnetan txikiena dela uste da, 10 cm-rainokoa baita. Gorputza pittin bat mozkotea dauka. Burua gris berdexka du eta beltzez inguratutako pileo horia dauka. Pileoak arretan tonu laranjak ditu. Bizkarraldea berdexka da, baita hegoak ere. Hegoek arraun-lumen ertzak zuriak dituzte, eta bi marra, bata zuria eta bestea beltza, ere badituzte. Buztana arre berdexka da. Beheko aldeak argiagoak dira. Mokoak arre iluna eta hankak grisak dira.

Palearktikoan banaketa zabala duen espeziea da. Gure lurraldean, Arabako inguru subkantauriarraren mendebaldeko mugan baino ez da ageri, pinu gorrien oihan helduetan, 1.000 metroko garaieran. Egoiliarra eta mi-gratzaile partziala da.

Baso misto edo konifero-basoetako berezko espeziea da. Aktibitate handikoa da, eta etengabe lekualdatzen da adar garaietan. Hegaldiak azkarak, laburrak eta izurtuak dira. Talde txikiak osatzen ditu, normalean beste «parido» espezie batzuekin batera, hala nola, kaskabeltz, amilotx, txio, garrapo eta gerri-txoriekin. Zuhaitzetan egiten du habia, kopa-formakoa eta gainetik estalia, adarren puntatik esekia. Landareez egin eta barrualdea lumez tapizatzen du. Urtean bitan 7-10 arrautza erruten ditu. Artropodoz elikatzen da, eta udazkenean fruituak ere jaten ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoko populazioa 100 bikote ugaltzaitetik beherakoa dela uste da. Europako populazio gehienak egonkorak dira.

Gure lurraldean, kota garaietan baso-azalera handirik ez egoteak populazioak bakanak izatea eragiten du.

Kontserbatzeko neurriak bizi den habitataren, hots, pinu gorrien pinudien, jarraipena ziurtatzera bideratu behar dira.



Dilindaria

Pájaro Moscón

Remiz pendulinus

Hamaika cm-rainoko tamaina txikiko txoria da. Sexu-dimorfismoa dauka. Arrak burua eta zintzuraren atzealdea grisak ditu eta mozerro zabal eta beltza dauka. Bizkarraldea gaztain-gorrixka da, eta ipurtxuntxurrera joan ahala, okrea. Isatsaren gaineko estal-lumak arre-grisak dira, eta ertz horixkak dituzte. Hegoen estal-lumek orban beltzak dituzte, arraun-lumak eta buztana arre grisak dira, eta ertz zuriak dituzte. Zintzurra zuria da eta gainerako azpiko aldeak krema-kolorekoak dira. Emea arrea da, karatula txikia eta garondo grisa duena. Mokoia eta hankak beltzak dira.

Asiako eta Europa gehiengan agertzen da. Gure lurraldean eremu mediterraneora mugatzen da, bereziki Ebro ibaira eta horren ibaiadarretara.

Ibaiertz, ibar-baso eta makaldietan bizi da. Iheskorra da, eta landare-diaren gainaldean aritzen da batez ere. Bakartia da, udazken eta neguan talde txikiak eratzen ditu. Zuhaitzetan egiten du habia, normalean, sahats edo makaletan, adar finen puntan. Habia berezia da oso: esekitako poltsa baten itxurakoa da, sarrera albo batean du, tunel motza bailitzan. Habia eraikitzekeo biloak, zuntza eta artilea erabiltzen ditu; barrutik tapizatua dago. Urtean behin 5-8 arrautza errun ohi ditu. Artropodoak, haziak eta fruituak jaten ditu.

Oso gutxitan ikusi denez, badirudi populazioa urria dela. Lurraldea berriki kolonizatu du, eta etengabe emendatzen ari da. Europan modu nabarrian hedatzen ari da, eta eremu gutxi batzuetan baino ez da ikusi erregresioan dagoela.

Espeziearen garapena mugatzen du Mediterraneoko ibaietan ibar-baso handirik, ondo garaturik eta zaindurik ez egoteak. Izan ere, ibaiertzak dira aldaketa gehien jasaten dituzten inguruneak.

Kontserbazio-neurriak ibaietako ibar-baso eta makaldiak zaintzera bideratu behar dira. Izan ere, espeziearen populazioentzat eta hauen bizilekuentzat kaltegarriak izan daitezkeen ekintzak erregulatu behar dira.



Belatxinga mokohoria

Chova Piquigualda

Pyrrhocorax graculus

Hogeita hemezortzi cm-rainoko tamaina ertaineko korbidoa da. Luma-je beltz distiratsua du, buru txikia eta buztan luzea. Moko horia eta hankak gorriak dira.

Banaketa zabala duen espeziea da, Asiako, Europako eremu mediterraneoko eta Afrikako ipar-mendebaldeko mendiguneetan bizi da. Gure lurraldean uren banalerroko mendietara eta Arabako mendebaldeko ertze-
ra mugatzen da.

Gailurretan eta mendilerro eta mendiguneetako inguru garaietan bizi da, mila metrotik gora, eremu harritsu edo larreen arteko hartxingadietan. Nahiko taldekoia da, eta talde oparoak eratzen ditu, amildegi, labar edo larre menditarretan ikusten direnak. Hegaldiak akrobatikoak eta oso ikusgarriak dira. Koloniala da, eta sima eta leize sakonetan, zenbaitetan erai-
kintan ere, egiten du habia. Habia adarrez eta sustraiez egina da, kopa-
formakoa eta barnetik tapizatua. 3-5 arrautza errun ohi ditu urtean behin. Lurrean, larre garaietan elikatzen da, eta artropodoak, moluskuak eta beste zenbait ornogabe jaten ditu. Halaber, aurkitzen dituen ugaztun txikiak, fruituak eta hondakinak jaten ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoko populazioa 300 bikote ingurukoa dela uste da, eta bere biotopo hoberenetan 10 hektareako 1,5 aleko dentsitatea dauka. Badirudi populazioa egonkorra dela, baina herrialde batzuetan erregresio xumea nabaritu da.

Populazioak garatzea mugatzen duten eragileen artean nabarmendu behar dira habitat naturala eraldatzea, batez ere elikagaiak bilatzen dituen eremuetakoa, eta aisialdirako ekintzek ugalketa-koloniei eragiten dizkieten eragozpenak.

Kontserbazio-neurriak habiak egiteko guneak babestera eta horien inguruan egiten diren aisialdi-ekintzak erregulatzera bideratu behar dira. Neurri horiek mesede egingo diete ere harkaitzetako beste espezieei.



Belatxinga mokogorria

Chova Piquirroja

Pyrrhocorax pyrrhocorax

Hogeita hemezortzi cm-rainoko tamaina ertaineko korbidoa da. Guztiz beltza eta distiratsua da, eta hanka eta moko gorriak ditu. Buztana nahiko motza dauka, bere kide belatxinga mokohoriarekin erkatuz gero; gainera, mokoa pittin bat luzeagoa eta okerragoa da.


Zatituta agertzen da Palearktikoan eta Afrikako iparraldean, mendiguneei estuki lotuta. Gure lurraldean ia mendikate guztietan ikus daiteke.

Mendilerro eta mendiguneetako alde garaietan bizi da, deforestatutako eta amildegi ugari dituzten mendietan, 500 metrotik gora. Larre eta landa menditarretan, artzaintza tradizionala egiten den inguruetan bilatzen du elikagaia. Taldetan biltzen da eta taldeak amildegien gainean hegan egiten ikustea merezi duen ikuskizuna da, oso hegaldi bizkorra eta akrobatikoa baitute, eta hegan daudela oihu bereizgarria egiten dute. Kolonietan egiten dute habia, kobetan, harkaitzetako arrakaletan, eta, gutxiagotan bada ere, eraikinetan ere bai. Habia kopa-formakoa da, landareez egina eta barnetik tapizatua. Urtean behin 3-4 arrautza erruten ditu. Taldeka elikatzen da, eta batez ere larreetan dabilen bitartean aurkitzen dituen ornogabeak jaten ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoan ehunka bikoteko populazioa dagoela uste da. Azken hamarkadetan erregresio nabaria pairatu du, Gipuzkoako zenbait amildegi-gunetatik talde txiki batzuk desagertu egin dira jadanik. Europan, banaketa-area murriztu egin da, eta baita zenbait populazioen dentsitatea ere.

Populazioen garapenaren mugatzaile dira bai elikagaiak agertzen diren inguruak eraldatzea, oihaneztatzeen edo abeltzaintza estentsiboa uztearen ondorioz. Umatze-kolonietatik hurbil egiten diren zenbait aisialdi-ekin-tzek ere eragin negatiboa dute.

Espezie hau kontserbatzeko beharrezkoa dira habiak egiteko erabiltzen dituen eremuak babestea, inguru horietan aisialdi-ekintzak egitea arautzea eta artzaintza tradizional estentsiboa sustatzea.



Erroia

Cuervo

Corvus corax

Hirurogei cm-tik gorako korbido handia da. Itxura sendoa du, guztiz beltza da eta zenbait isla eta irisazio ditu. Punta meharrek dituzten hegoak ditu eta falka itxurako buztana. Mokoa gogorra eta lodia da. Hankak beltzak dira.

Palearktikoan banaketa zabala duen espeziea da. Gure lurraldean ere banaketa handia du; hala ere, ez da hain ugaria laborantza-lur handiak dituzten eskualde subkantauriarreko eta mediterraneoko inguru baxuetan.

Habitat mota ugartan bizi den espeziea da, kostatik hasita mendilerro-etako gailurretaraino hedatzen baita. Orokorrean, ugariagoa da mendiko eremuetan. Landa, larre eta harkaitz-amildegiak dituzten aldeak nahiago ditu. Gizakia agertzen den ingurua saihestu ohi du; beste zenbait korbido baino iheskorragoa da. Hegaldi sendo eta zuzena dauka, eta maiz pausatu eta lurrean ibiltzen da. Planeatu eta hegaldi akrobatikoak egiten ditu, batez ere araldian. Bakartia da, baina talde txikiak ere era ditzake. Amildegietan eta harrobi hutsetan egiten du habia, eta inoiz ere zuhaitzetan. Habia adarrez egina eta barrutik tapizatua da. Urtean behin 4-6 arrautza errun ohi ditu. Orojalea da eta era guztietako artropodoak, moluskuak, ornodun txikiak, landareak, haratustela eta hondakinak jaten ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoko populazioa 300 bikote ugaltzailek osatzen dutela uste da. Egonkorra da, eta gainera, litekeena da azken urteotan gehikuntza pixka bat izatea. Gehitzeko joera hau Europako beste zenbait herrialdetan ere nabaritu da.

Espezie honek pairatzen duen mehatxuak, gizakioren aurrean oso sentikorra izatearen ondorioak dira. Halaber, legez kanpoko ehiza ere mehatxua da, ugariagoak diren beste korbidoekin nahastu eta espezie honetako aleak hiltzen baitituzte.

Espezie hau kontserbatzeko beharrezkoa da habia egiteko erabiltzen dituen harkaitz eta labarrak babestea. Neurri horrek harkaitzetako beste espezie batzuei ere on egingo die.



Tarina

Lúgano

Carduelis spinus

Hamabi cm-rainoko txori txikia da. Sexu-dimorfismoa dauka. Arrak txano beltza du; goialdeak berde horiak eta beltzez marratuak dira. Ipur-txuntxurra hori berdexka da. Hegoek ertz horiak dituzten luma arre beltzak dituzte, estal-lumak berdexkak dira, eta punta beltzak dituzte. Koko-tsa beltza da, buruaren alboak berde-horiak, eta zintzurra eta bularra hori-berdexkak dira. Saihetsaldean ildaska beltzak ditu eta sabelaldea zuri lohia da. Emeak ez du kolore beltzik buruan eta tonu hitsagoak ditu. Moko gris arrea da eta hankak arreak dira.

Palearktikoan irregularki banatzen den espeziea da. Gure lurraldean, noizean behin baino ez da agertzen eremu atlantiko eta subkantauriarrean, baina pixka bat ohikoagoa da Gipuzkoako erdialdean eta hegoaldean. Badirudi espezie honen agerpena udazken eta neguko migrazioen eta karioletatik ihes egindako aleen arabera dela. Migratzaile partziala da.

Basoko espeziea da, batez ere koniferoen basoetakoa eta pinuak, alertzeak, haltzak eta urkiak dituzten baso mistoetakoa. Habia egiten dute oihanpean zuhaitz hostoerorkorrek garatuta dituzten intsinis pinuaren landaketetan, bai eta pagadietan ere. Aktibitate handikoa da; hegaldi izurtua eta abila du, eta lurrian nahiz adarretan pausatzen da. Neguan taldeak eratzen ditu. Konifero-adarren baten puntatik hurbil egiten du habia, kopa-formakoa eta landareez egina. Urtean bitan 3-5 arrautza errun ohi ditu. Batez ere haziak jaten ditu, bereziki pinuenak eta haltzenak. Dieta zenbait artropodoekin osatzen du.

Euskal Autonomia Erkidegoan uste da populazio ugaltzailea ez dela 100 bikotetik gorakoa. Gainera, urtetik urtera kopurua asko aldatzen da. Beraz, populazioaren tamaina gorabeheratsua da. Europako zenbait herrialdetan ere egoera aldakorra da.

Tradizioan txori hau harrapatu egiten da, eta gatibu izateko preziatua da. Zenbait ale karioletatik alde egin eta basati bihurtzen dira, eta larreetan ugaltzera ere iristen dira.

Animalia hauek gatibu hazteko aleak harrapatzeko ematen diren baimenak modu eraginkorrean kontrolatu eta jarraitzea izan behar du kontserbazio-neurrien oinarri.



Mokolodia

Picogordo

Coccothraustes coccothraustes

Hemezortzi cm-rainoko hegazti txikia da, itxura nahastezina duena. Gorputz mozkotea du eta konkortutako buru horia, begiaren inguruan marra beltza dauka, kokots eta mokora jotzean handitzen dena. Idun gris urdinxka, bizkarralde arrea eta ipurtxuntxur okrea dauzka. Hegoek arraun-luma beltzak eta zerrenda zabal zuria dituzte. Estal-lumak beltzak edo arreak dira, eta punta zuria dute. Buztaneko lumak beltzak dira, muturrean zuriak eta albo-ertzetan berde-grisak dira. Bularra eta sabelaldea gris urdinkarak dira. Mokoak grisa da udaberrian, eta motelagoa neguan. Hankak arrosak dira. Emea hitsagoa da.

Palearktikoan banaketa zabala duen espeziea da. Gure lurraldeko barrualdeko zenbait tokitan puntualki egoten da ugaltzaile moduan. Migrazioaile partziala da, eta neguan, iparraldeko populazioetako aleak etorri ohi dira.

Basoko espeziea da, eta baso heldu eta hostogalkorretan bizi da, batez ere hariztietan, hala mendiko hedadura handietan, nola landazabal txikietan. Zuhaitzen adaburuetan ibiltzen da nagusiki, baina lurlean ere pausatzen da eta bizkorki higitzen da elikagaien bila. Hala ere, normalean ez da nabarmentzen. Hegaldi altu eta azkarra dauka. Talde alderraietan biltzen da neguan. Zuhaitzetan egiten du kopa-formako habia landareak erabiliz, eta barrutik tapizatzen du. Urtean, asko jota bi aldiz, 4-6 arrautza errun ohi ditu. Moko gogorraz apurtutako fruituetatik ateratzen ditu elikatzeke haziak, eta artropodoak ere jaten ditu.

Gure lurraldean populazioa habia egin duten 50 bat bikotek eratzen dutela uste da. Kopurua duela urte batzuk baino txikiagoa da. Europako populazioak egonkorrak dira.

Badirudi erregresioaren eragilea dela erabiltzen duen habitata hondatzea. Hala ere, ez dakigu zergatik den espezie honen banaketa hain irregularra eta agerpena hain urria.

Espeziea kontserbatzeko beharrezkoa da hostogalkorren zuhaizti helduak eta zuhaitz zaharrak mantentzea.



Miarritza

Escribano Hortelano

Emberiza hortulana

Hamazazpi cm-rainoko txori txikia da. Burua, zintzurra eta bularraldearen zati bat berde olibak dira, pittin bat grisak. Ildaska beltzak dituen bizkarralde arrea dauka eta ipurtxuntxurra okrea du. Hegoek ertz horiak eta luma berde olibak dituzte. Buztana arre beltza da, eta kanpoko arraun-lumak zuriak ditu. Zintzurra, bibotea eta begi-eraztuna horiak dira. Mokoia eta hankak arrosak dira. Emeak arraren antza du baina tonuek ez dute hain kontraste handia.

Palearktikoan banaketa zabala duen espeziea da. Gure lurraldean Mediterraneoaren eragina duen Arabako ingurunera mugatzen da. Udakoa eta migratzailea da, eta negu-tokiak Saharaz bestaldean ditu.

Eremu deforestatuetan, lehorretan eta sastraka xehea dutenetan bizi da, hala nola, lugorrietan eta Mediterraneoako sastraka txikiak dauden eremuetan. Iheskorra da eta telefono-harien edo adarren gainean beha daiteke. Talde txikiak eratzen ditu. Lurrean egiten du habia, landare belarkaren edo zuhaixken artean. Habia kopa-formakoa da, eta barrutik, material mehar eta lumentz tapizatua. Urtean bi aldiz 4-6 arrautza errun ohi ditu. Batez ere artropodoz elikatzen da, eta dieta haziak eta zurtoin eta hostoen kimu berriak jenez osatzen du.

Euskal Autonomia Erkidegoan populazio ugaltzailea 400 bikotekoa dela uste da. Erregresio nabarmena pairatzen ari da Iberiar Penintsulan eta Europako zenbait herrialdetan.

Erregresioaren eragileak dira nekazaritza areagotzea, abeltzaintza esentsiboa bertan behera uztea eta baso-berritzeak egitea, espezie honen habitata naturalak urritzea eragiten baitute.

Espeziea kontserbatzeko nekazaritza-paisaiaren dibertsitateari eutsi behar zaio, eta horretarako heskaiak zaindu behar dira eta pestizidak gehiegi erabiltzea saihestu behar da. Horrek populazioen jarraipena ahalbidetuko du.



Gau-saguzar txikia

Nóctulo menor

Nyctalus leisleri

Bost eta hogeï gramo bitarteko pisua duen ugaztun txikia da; 34 eta 46 mm bitarteko besaurrea du. Arre iluna da, eta sabelaldea argiagoa da. Belarri motzak ditu.

Espezie hau bizi da Europan, ipar-erdialdean izan ezik; Asian, Himalayaraino heltzen da; eta Afrikako iparraldean. Gure lurraldean kostalde eta barrualdeko mendialdeetan behatu da. Populazioak berez egoiliarak dira, eta Europatik negua igarotzera ere batzuk etortzen dira.

Basoan bizi den espezie hau, mendialdeetako nekazaritza-inguru edo basoetan ager daiteke. Gertu dauden herrietako argiaz baliatzen da pagadi, harizti eta pinudietan ehiza egiteko. Kolonien babeslekuak zuhaitzetako eta eraikinetako zuloetan egiten ditu. Nagusiki gauez aritzen da, baina noiz edo noiz egunez ere ikus daiteke hegan. Emeak ehunka ale dituzten ugalketa-kolonietan biltzen dira. Udazkenean ernaldtu eta ekainean erditu ohi dira; eme bakoitzak kume bat edo bi izaten ditu. 810 km-rainoko migrazioak egin ditzakete. Lepidoptero handiak eta koleopteroak jaten ditu.

Noizean behin baino ikusten ez denez, espezie urria dela ondoriozta daiteke, eta populazioaren joera zein den ez dakigu.

Beste lurralde batzuetako populazioen atzerakadaren eragileak dira habitat naturalaren eraldaketa, egun egiten diren baso-ustiapen desegokiak —babeslekuak suntsitzen dituzte eta— eta pestizidak gehiegi erabiltzea, elikagai eskuragarri gutxiago izatea eragiten baitu.

Espezie hau kontserbatzeko komenigarria litzateke basoetan zuhaitz zaharrak zaintzea; izan ere, zuhaitzetako hutsune eta arrakalek basoetako saguzarrei babeslekua eskaintzen diete. Are gehiago, habia artifizialak jarri beharko lirateke, batez ere landaketetan, espeziea bertan agertzea bultzatzeko. Bestelako babes-neurriak hartu ahal izango dira populazioen egoera eta arazoak ezagutu ostean.



Nathusius pipistrelloa

Murciélago enano de bosque

Pipistrellus nathusii

Tamaina txikiko ugaztuna da, 4 eta 12 gramo arteko pisua eta 32-35 milimetroko besaurrea dituena. Arrea da, uniforme, eta sabelaldea pixka bat argiagoa da. Belarri laburrak ditu.

Eurasian zabaltzen den espeziea da, baina iparraldeko eskualdean ez da ageri. Gure lurraldean, indibiduo hibernatzaileak behatu dira bai barnealdean bai kostaldean. Beraz, populazio negutarrek dira, eta ez sedentarioak edo egoiliarak. Orokorrean, Erdialdeko Europatik datoz.

Basoko ohiko espeziea da. Gune baxu eta hezeetako basoen barruan bizi da, eta neurri txikiagoan, gizakien kokaguneetan ere. Zuhaitzen hutsune eta zirrikituetan bilatzen du babes. Gautarra da. Udazkenean parekatu eta ekainean edo uztailean erditu ohi dira. Eme bakoitzak kume bat, eta inoiz ere bi izaten ditu. Migrazioak abuztuaren erdialdetik edo irailetik aurrera izan ohi dira eta apirila eta maiatza bitartean bueltatzen dira, erditzeko garaia baino zertxobait lehenago. 1.000 km-ko mugimendu erregularak ezagutzen dira, eta neurtutako distantzia luzeena 1.600 km-koa da. Tamaina ertain eta txikiko aireko intsektuez elikatzen da. Intsektuok airean harrapatzen ditu, 4 eta 15 metro bitarteko garaieretan.

Datu guztien arabera, ale negutarren kopurua oso txikia da gure lurraldean. Europan espezie honen joera ez da uniforme, toki batzuetan erregresioan baitago, eta beste batzuetan, ordea, egonkorra baita.

Erregresioaren eragiletzat aipatu dira batetik, basoetan gero eta zuhaitz zahar gutxiago dagoela; eta bestetik, egurraren tratamendurako eta kontserbaziorako erabiltzen diren produktuen eragin negatiboak.

Espezie hau kontserbatzeko komenigarria izango litzateke basoetan zuhaitz zaharrak mantentzea eta aleen negualdia erraztuko luketen habia artifizialak jartzea. Populazioen egoera eta arazoak ezagutu ondoren, bestelako kontserbazio-neurriak abian jarri ahal izango dira.



Baratz-saguzarra

Murciélago de huerta

Eptesicus serotinus

Tamaina txikiko ugaztunada, 20 eta 27 gramo arteko pisua eta 48-55 milimetroko besaurrea dituena. Arre iluna da, eta sabela pixka bat argiagoa da. Isatsaren muturra hatzen arteko mintzetik ateratzen da. Belarriak motzak dira.

Europar eta Asian zabal hedatzen den espeziea da, eta Afrikako iparralderaino ere iristen da. Gure lurraldean, mendiguneetan eta kostaldean agertzen da; populazioak egoiliarak dira eta Europatik negutarrek ere etortzen dira.

Haitz-guneetara eta gizakien kokalekuekara lotuta bizi dira. Halatan, itsas maila eta 1.000 m bitartean dauden herri eta hirietan babes bilatu eta ehizatzen du. Iberiar Penintsulako hegoaldeko jarduera-datuek diote gaueko lehen orduetan bakarrik aritzen dela. Emeei 10 eta 20, inoiz ere 50, indibiduo arteko umatze-koloniak eratzen dituzte; garai horretan arrak bakartiagoak dira. Udazkenean parekatu eta ekainean erditu ohi dira. Eme bakoitzak urtean kume bateko edo biko erditze bakarra izan ohi du. Erdialdeko Europako populazioek migrazioa abuztu erdialdean edo irailean hasten dute, eta apirila edo maiatzean itzultzen dira. Migratzaile partziala dela esaten da, populazio gehiena sedentarioa baita. 330 km lekualdaketak ezagutzen dira. Gehien bat koleoptero handiez elikatzen da.

Populazioaren tamaina eta joera zeintzuk diren ez dakigu. Nolanahi ere, badirudi Europar egonkorra dela, edo, asko jota, gainbehera txikian dagoela.

Europako populazioen erregresioaren eragilea da zaharberritzen ari diren eraikinetan egurraren kontserbaziorako tratamenduetan erabiltzen diren produktuen eragin negatiboa. Halaber, gizakiaren jazarpenak ere kaltetzen du espezie hau.

Populazioak kontserbatzeko komenigarria da ugalketa-garaian eraikinen zaharberritze-lanak ekiditea. Egurraren kontserbaziorako erabiltzen diren tratamenduei dagokienez, kolonien aktibitatea kontuan hartuz egin beharko lirake, bai eta espezie hauentzat toxikoak diren substantzia kontserbagarriak ekidinez ere. Populazioen egoera eta arazoak ezagutu ondoren, bestelako kontserbazio-neurriak abian jarri ahal izango dira.



Gau-saguzarra

Nóctulo mediano

Nyctalus noctula

Tamaina txikiko ugaztuna da, 18 eta 27 gramo bitarteko pisua eta 46 eta 55 milimetro arteko besaurrea dituen. Arre urre-kolorekoa da, eta sabalaldea gorrixka du; nabarmenak dira bere hego estuak. Belarriak laburrak dira.

Banaketa palearktikoaren duen espeziea da; gure lurraldean, Arabako mendebaldeko muturrean ageri da. Udaberrian eta udan agertzen da, eta horrek berez migratzailea dela adierazten du. Hala ere, alboko lurraldeetan gertatzen dena kontuan izanik, litekeena da inguru hauetan ere urte osoan egotea.

Basoko espeziea da. Zuhaitzetako hutsuneetan eta eraikinetan bilatzen du babesa. Gautarra da, eta babeslekuak ilunabarra baino lehen utzi ohi ditu. Erabat koloniala da, eta udan, batez ere egun beroetan, babesten diren hutsuneetan taldeek ozenki garrasi egiten dute. Udazkenean parekatu eta udaberrian edo udan erditu ohi dira; eme bakoitzak urtean kume bat edo bi izan ohi ditu kumaldi bakarrean. Elikadurari dagokionez, ubideen gainean, basoetan eta kale-argietan ehizatzen du; hegada arina eta bizia dauka. Funtsean, koleopteroak eta basoko beste intsektu batzuk jaten ditu.

Populazioen kopurua eta joera zein den ez dakigu.

Atzerakadaren eragileak dira batetik, basoetan hutsuneak dituen zuhaitzi zaharrik ez egotea, espezie honi babesa eskaini ahal izateko; eta bestetik, koleoptero handiak gutxitzea, bere harrapakin ohikoenak baitira.

Espezie hau kontserbatzeko komeni da basoetako zuhaitz zaharrak mantentzea, horien hutsune eta zirrikituetan basoetako saguzarrek babesa izaten baitute, bai eta habia artifizialak jartzea ere, bereziki landaketetan, saguzarren agerpena bultzatzeko. Populazioen egoera eta arazoak ezagutu ondoren, bestelako kontserbazio-neurriak hartu ahal izango dira.



Saguzar buztanluzea

Murciélago rabudo

Tadarida teniotis

Tamaina txikiko ugaztuna da, 15 eta 36 gramo bitartekoa; besaurrea 58 eta 64 milimetro artekoa da. Grisaxka da, eta sabelaldea argiagoa dauka; isats luzea du eta buztan-mintzetik bereizita duen saguzar bakarra da. Belarri handiak aurrerantza ditu eta oinean lotuta daude.

Espezie hau ageri da Europan, bertan zirkunmediterraneoan da, eta Asian. Gure lurraldean, mendiguneetako zenbait puntutan behatu da. Ez dakigu ziur egoiliarra edo migratzailea den, baina alboko lurraldeetan dauzkaten datuen arabera litekeena da egoiliarra izatea.

Harkaitzen zirrikitu, kobazulo handi eta eraikinetan bizi da. Askotan, herrietan ehizatzen du, eta argiak erakartzen dituen intsektu ugariak jaten ditu; harkaitzetan eta arroiletan ere ohikoa da. Klimatologia goxoa dagoen tokietan eta neguak oso zorrotzak ez direnean hibernazio-garaia laburtzen du, edota ez du hibernaziorik egiten. Gautarra da. Udazkenean parekatu eta udaberri bukaeran erditu ohi dira. Eme bakoitzak kume bat, edo bi ere, izaten ditu. Migrazio-mugimenduak egiten dituela uste da, baina ez dago hori frogatzen duen datu zehatzik. Koleoptero eta lepidopteroak jaten ditu. Buztanluzeak duen hegada garai eta arinari esker harrapatzen ditu.

Gure lurraldeko populazioaren tamaina eta joera zein den ez dakigu.

Populazioen erregresioaren eragileak dira batetik, zaharberritzen ari diren eraikinetan egurra tratatzeko erabiltzen diren produktuen eragina eta, bestetik, Europan intsektu handien populazioak gutxitzea.

Kontserbazio-neurriak hartu beharko dira espeziearen egoera eta arazo zehatzak ezagutu ondoren.



Daubenton saguzarra

Murciélago ribereño

Myotis daubentonii

Nahiko espezie txikia da, 6 eta 10 gramo bitarteko pisua duena. Bizkarraldea arre-gorrixka edo beltzezka du, eta sabelaldea zuri lohia.

Espezie hau Palearttikoko erdiko latitudeetan ageri da. Espainian eza gutzen den agerpen bakarra ipar-mendebaldeko koadrantean izan da. Eskura dauden ziten zati handia Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, bertan ohiko saguzarra baita, eta Arabako Mediterraneoko isurialdean ondo banatuta dago. Aitzitik, Bizkaia eta Gipuzkoako sektore atlantiarrean askoz bakanagoa da.

Ibaiei eta ur gezetako masei lotuta dagoen espeziea da. Hainbat substratu-motetan bilatzen du babeslekua: zuhaitzetako zuloetan, arroka edo eraikinetako zirrikitu eta barrunbeetan, bai eta zubietan eta tuneletan ere. Saguzarren beste espezie batzuek bezala, araldia udazkenean izaten du, baina obulazioa, ernalketa eta ernaldia hurrengo udaberrian izaten da. Erditze gehienak, beraz, ekainean eta uztaillean izan ohi dira. Dipteroak, trikopteroak eta beste ur-intsektu batzuk harrapatzen ditu. Eremu bera erabiltzen duten indibiduoek talde egonkorak eratzen. Saguzar sedentariotzat hartzen bada ere, normalean udako babeslekuak (kumatzeko erabiltzen dituenak) eta negukoak (hibernatzeko babeslekuak) leku desberdinetan egoten dira.

Ez dago espeziearen populazioaren joerari buruzko daturik. Zenbait herrialdetan biozida-metaketak egiaztatu dira —basoen tratamendu fitosanitarioetan erabiltzen dira— indibiduen ehunetan. Bestalde, eragin negatiboa dute ere babeslekuetan jasaten dituzten eragozpenek eta desagertzeek, etxebizitzak eta zubiak konpontzearen ondorioz. Teorian, ur kontinentalen kutsadurak mugatu egiten du intsektuen, hau da, animalia hauen elikagai-iturri nagusiaren eskuragarritasuna.

Beste kiroptero batzuetan gertatzen den legez, populazioen kontserbaziorako neurriak babeslekuak zaintzera bideratu beharko lirateke, babesleku garrantzitsuenak saguzar honentzat eraginkorra den moduan itxi, eragozpenak ekidin eta eraikuntzetako zaharberritze-lanak kontrolatu beharko lirateke. Biodibertsitatearentzat mesedegarriak diren habitatak kontserbatzea ere garrantzitsua da, besteak beste, zuhaizti zaharrak dituzten eta pestiziden tratamendurik jasan ez duten basoak kontserbatzea.



Savi saguzarra

Murciélago de montaña

Hypsugo savii

Espezie honen adskripzio taxonomikoaasko eztabaidatu da. Morfolo-
gikoki, antzeko beste espezie batzuegandik tragoaren zabalerari esker
(belarriaren barnealdetik irtena da) bereizten da, motza eta zabaldua dena.
Espezie honen beste ezaugarri interesgarriak dira aurpegian bizarrik gabe-
ko guneen kolore ilun edo beltzezka eta ilearen luzera nabarmena. Bizka-
rraldeko tonuak aldakorrek dira, eta behealdeak berriz zurixkak.

Espezie honen mundu-mailako banaketak Paleartikoko eremu zabala
hartzen du, Kanariar artxipelagotik eta Cabo Verdetik Mongoliaraino. Eu-
ropan batez ere banaketa zirkunmediterraneo da; Espainian, berriz, beha-
ketak eskualde gehienetan egin dira, nahiz eta jarraipenerako irtenbideak
anitzak izan. Euskadiko Autonomia Erkidegoan ezagutzen diren zita baka-
rrak Arabako hegoaldeko muturrari dagozkio.

Betidanik *Hypsugo savii*-a gune arrokatsuetako, mendietako eta haran
garaietako espezia dela uste izan da, baina egia esan, hainbat habitat-
mota erabiltzen ditu, eta nekazaritza-mosaikoetan eta gizakiari lotutako
guneetan ere aurki daiteke. Babeslekuak harkaitz, kobazulo, zuhaitz eta
eraikinetan egiten ditu. Ehizarako dituen guneak ere era askotakoak dira:
nekazaritza-inguruak, entresakaren ondoriozko baso argiak, larreak, hiri-
inguruko giroak, etab. Estalaldiak udazken hasieran izaten dira, baina
kropteroen artean ohikoa denez, hazia emearen traktu genitalean gorderik
geratzen da, udaberrian obulatu eta ernalketa egiteko erabili arte. Hortaz,
erditzeak ekainean izaten dira, emez osatutako umatze-kolonietan.

Espezie honek lepidopteroak, dipteroak, neuropteroak eta beste intsek-
tu hegalaria batzuk jaten ditu. Horiek guztiak hegaldi zuzenen bitartez ha-
rrapatzen ditu. Bere migrazio-joerei buruzko datuak ez dira biribilak;
badirudi aldizkako migrazio laburrak egiteko gai dela.

Bere egoera zein den ia ez dakigu. Baso- eta nekazaritza-lanetan eten-
gabe erabiltzen diren biozidek sortzen duten kutsadura aipatzen da efektu
negatibo gisa. Era berean, sorgailu eolikoek kontra jota ale ugari hil direla
egiaztatu da, bai eta errepedetan banakoak harrapatzeagatik ere.



Erbinude zuria

Armiño

Mustela erminea

Tamaina ertaineko ugaztuna da, 27 cm-rainoko gorputza du, eta 11 cm-ko isatsa. Arrak emeak baino askoz handiagoak dira. Erbinude zuria-ren gorputza liraina eta tutu-formakoa da, eta hanka laburrak ditu. Ilajeak kolore ezberdina du neguan eta udaberrian; udaldiko azala gorrixka da, eta neguan, ordea, zuria, eta askotan orban gorrixkak ditu. Sabelalde zuria da. Buztanaren puntan orban beltza dauka.

Banaketa zirkunboreala duen espeziea da. Europan, hegoaldean eta Islandian bakarrik falta da. Ipar Amerikako iparraldean eta Asiako erdialdean eta iparraldean ere ageri da. Zeelanda Berrian eta Australian sartutako espeziea da. Gure lurraldean, ipar-mendebaldean azaltzen da, Bizkaian hain zuzen, bai eta beste gune bakan batzuetan ere.

Larre menditar harritsuetan bizi da. Gauez zein egunez aritzen da. Barkaria da, eta batzuetan familia-taldeak eratzen ditu. Udan eta udaberrian parekatzen da; garapena hilabete batzuk beranduago hasten da, horrela, jaiotza, 6 asteko haurdunaldiaren ostean, hurrengo urteko martxoan da. Haragijalea da, eta gehien bat karraskari txikiak jaten ditu; hegaztiak bigarren mailako harrapakinak izaten dira.

Bere populazioaren tamaina zein den ez dakigun arren, datuen arabera badirudi ez dela txikia. Ez dakigu populazioaren joera zein den, baina eza-gunak dira beste herrialde batzuetan populazioek izaten dituzten fluktuazio gogorrak.

Gure lurraldean animalia honen agerpena mugatzen duen faktorerik ez da ezagutzen, baina baliteke faktore naturalak izatea; alegia, beharrian ekologiko egokirik ez izatea. Izan ere, populazio hauek banaketa-area kantaurrearen muga dauka.

Kontserbazio-neurriak hartu beharko dira espeziearen egoera eta arazo zehatzak ezagutu ondoren.



Ipurtatsa

Turón

Mustela putorius

Tamaina ertaineko ugaztuna da, 44 cm-rainoko gorputza eta 18 cm-rainoko isatsa izan dezakeena. Gorputz liraina eta hanka motzak ditu. Gorputz osoaren ilajea arre iluna da, muturreko eta aurpegiko orban zuria izan ezik; bizkarraldeko ileak dentsuak ez direnez, biloa, azpiko ile horixka txikiak, erdikustea ahalbidetzen du. Horrek itxura bereizgarria ematen dio. Sabelaldea argia da.

Espezie hau Europan zehar hedatzen da, baina iparraldean eta Mediterraneoko zonalde batzuetan falta da; gure lurraldean, banaketa orokorra du.

Ibaiei lotutako espeziea da, urek igarotzen dituzten inguruneak edonolakoak izanda ere, eta ibaien gune baxuenetatik mendikateetako toki garaienetara arte ageri da. Gautarra da, lehortarra, eta ez du ia inoiz inon gora egiten, ezta igeri egiten ere. Bakartia da. Martxoan parekatzen da; ondoren, sei asteko haurdunaldia igaro eta gero, emeek 4-9 kume erditu ohi dituzte. Elikadurari dagokionez, haragijalea da eta denetik jaten du: karraskari txikiak, anfibioak, narrastiak eta intsektuak. Hala ere, urtaroa-ren eta tokiaren arabera dietan aldaketa gogorak izaten ditu.

Populazioak barreiatuta daude, baina ez dituzte dentsitate handiak. Dirudenez, populazioa egonkorra da. Beste toki batzuetan, populazioak atzeraka egiten ari direla, zein egonkorrak direla adierazten da.

Populazioen erregresioaren eragileak hainbat dira: tranpa-jartzaileak egiten dituzten harrapaketek izan duten eragina —jadanik ez da erabiltzen—, nozitzen dituzten parasitosiak, eta bereziki, bere habitatak galtzea eta eraldatzea.

Espezie hau kontserbatzeko beharrezkoa da ibaiak eta ibai-ertzak babestu eta hobetzeko neurriak hartzea; horrela, espezieak ingurune egokia izan dezan. Espeziearen egoera eta arazo zehatzak ezagutu ondoren, bestelako kontserbazio-neurriak hartu beharko dira.



Basakatua

Gato montés

Felis silvestris

Tamaina ertaineko ugaztuna da; 70 cm-rainoko gorputza eta 32 cm-rainoko isatsa dauka. Isatsak punta kamutsa du. Arrak emeak baino handiagoak dira. Gorputz sendoa dauka. Ilajea grisaxka da, eta alboetan goitik behera marra arre argiak ditu, eta ez dauka tantorik. Isatsak eraztun ilunak ditu.

Palearktikoan banaketa zabala duen espeziea da. Europan, egun, herrialde zirkunmediterraneoetan eta erdialdean baino ez da agertzen. Gure lurraldean zehar barreiatuta dago, baina bere agerpena beti puntuala da.

Baso zabaletan bizi da. Zuhaitz hostoerorkorrak nahiago ditu koniferoak baino, eta batez ere garaiera jakinetik gorako eremuak. Halatan, eremu lauetan, haranen zokoetan eta jendea bizi den tokietan ez da ageri. Ondo garatutako oihanpea egotea du gustuko. Gauez eta egunsentian aritzen da, eta gehienetan bakartia da. Zuhaitzetara igotzeko eta adarretatik ibiltzeko trebea da; hala ere, beti lurrean ehizatzen du. Udaberrian parekatzen da, eta 10 asteko haurdunaldiaren buruan, maiatza aldera, 6 bat kume erditu ohi ditu. Kumeek bizitza independentea udazkenean hasten dute. Gehien bat karraskari txikiak jaten ditu, eta neurri txikiagoan, hegaztiak.

Populazioaren tamaina eta joera zeintzuk diren ez dakigu. Dena den, espeziearen agerpenari buruzko datuek adierazten dute Araban nahiko ugaria dela; beste bi lurraldeetan, ordea, animalia honen dentsitatea baxua da. Beste herrialde batzuetako joera aldakorra da, eta era guztietako adibideak daude, erregresioan bai eta gorakadan ere.

Europan espeziearen atzerakadaren eragileak hurrengo hauek dira: deforestazioa, gehiegizko presio zinegetikoa eta etxeko katuekin hibridatzea. Faktore horiek guztiek gure lurraldean ere eragiten dute.

Kontserbazio-neurriak hartu beharko dira espeziearen egoera eta arazo zehatzak ezagutu ondoren. Espezie honen populazioei buruzko ikerketek, populazio bakoitzak etxeko katuarekin duen hibridazio-mailari heldu beharko diote.





Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

ISBN: 978-84-457-2581-8



9 788445 725818

Salneurria: 18 €